

Pio Perez Aldasoro

Joxe Zampirainen
bertso-malkoak

Edo nola arindu arimaren
sufrimenduak bertsoen bidez

LABAYRU IKASTEGIA
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
BILBAO
2013

© *Argitaraldi honena:* LABAYRU IKASTEGIA – AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Colon de Larreategi
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

© Pio Perez Aldasoro

Fotokonposaketa, fotomekanika: IKUR, S. A.
Silutegia:

ISBN: 978-84-92599-36-3
Lege gordailua: BI-594-2013

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldeaz aurreko eta idatzizko baimen barik.

Agur biotzez, seme maitea;
Galdu nun sendi osua,
Bederatzitik zazpiren palta,
Au bai dala erasua!
Kabi utsari begira dago
Tristerik aita gaxua,
amaika aldiz egin bearra
eman nai eztan pausua,
miru beltzaren atzaparretan
eztabil ondo usua

Joxe Zapiain

Aurkibidea

1. Atarikoa	9
2. Zاپiraındarrak	15
2.1. Historiatik desagertu diren istorioak	15
2.2. Larruari erantsita daramatzagun istorioak	17
2.3. Zاپiraın sendia, bertsozale eta bertsolariak	21
2.4. Sendiaren zenbait datu biografiko	27
2.4.1. Aitona, Joxe Bixente	28
2.4.2. Juan Kruz, anaia nagusia	29
2.4.3. Joxe, anaia gaztea	32
2.4.4. Salvador, biloba	34
2.4.5. Xanti, birbiloba	35
3. Gerraren oroitzapen mingarriak	37
3.1. Altxamendua eta gerra zibila	37
3.2. Atxiloketa, gurutze-bide sinestezina	41
4. Infernuaren atarian	49
4.1. Gorrota ezazu delitua eta erruki ezazu delitugilea	49
4.2. Gerra kontseilu guztiz sumarioa	53
4.3. Joxek jakin zuen Antonio eta Juan Jose semeak fusilatu zituztela .	6
5. Infernu batetik beste okerrago batera	63
5.1. San Kristobal gotorleku gogaikarria	63
5.2. <i>Lasciate ogne speranza</i>	67
5.3. <i>Hablen en cristiano!</i>	70
5.4. Ezkaba menditik behera. San Kristobal presondegiko ihesaldia ..	75
6. Gerraosteko giroa	79
6.1. Gerra ez zen 1939an amaitu	79
6.2.- Libre al gara?	83

7. Bertsoak, oroimena eta emozioaren gordailua	87
7.1. Bertsolariak, tradiziozko euskal komunikatzaileak	87
7.2. Zafiraindarren bertsozaletasuna	89
7.3. Zafiraindarrak: gerra zibila eta bertsoak	90
7.4. Emozioetatik irtendako bertsoak	92
7.5. Testigantzaren beharra	95
7.6. Urrutiko lurretan Anna Ajmatova	98
8. Ahots isilduak	101
8.1. Jendaurrean ipinitako sufrimendua	101
8.2. Oroimenaren garaian bizi omen gara	102
8.3. Bertso eta testigantza performatiboak	104
8.4. Oroimenaren kultura	105
9. Bibliografia	107

1. Atarikoa

Dударик gabe, Espainiako Gerra Zibila izan da Hego Euskal Herriak XX. mendean bizi izan duen garairik tragikoenetakoa. Gerrak eragindako lehenengo izu eta ezustekoen ostean etorri ziren gerraondoko errepresioa, pobrezia eta gosetea, bata bestearen atzetik, apokalipsiko zaldunak bezala. Zoritxarrez, gerraondoa ez zen suertatu aurrekoa baino samurragoa, gehienbat lurralde traidore deituak izan zirenetan.

Espainiako Gerra Zibilaren osteko urteetan errepresio sistematiko eta orokorra hedatu zen hegoaldeko euskal probintzietan, bereziki euskal kutsua zeukan edozein sinbolo edo zantzuren aurka. Gertaera haiek gogor astindu zuten garai hartako euskaldunen belaunaldi osoa, eta beraien bizitzak markaturik geratu ziren betiko. Zazpi hamarkada igaro ondoren, esan dezakegu gerraren hunkipenek eta errepresioak eragin zituzten izuak aurrerantzeko belaunaldietara ere hedatu zirela. Beharbada, pentsa dezakegu industrializazio prozesuaz eta emigrazioaz gain, gerra izan dela euskaldunen ohiko bizitza gehien aldarazi duen eragilea. Euskaldunen bizipenetan nekez aurki daiteke Espainiako Gerra Zibilak ukitu ez duen alderdirik.

Jakina da gerraren inguruko kronika, azalpen, justifikazio edo deskripzioek leku zabala izan dutela nobela, entsegu, poesia edo bat-bateko bertsoetan. Izan ere, euskal literaturaren orrialdeetan ez da falta gerrak sortutako erreakziorik, eta urte haietako ankerkeriak itzal luzea utzi du gure memoria literarioan (Lertxundi 1997: 6)¹. Egitate historiko horien inguruko literatur produkzioa oso aberatsa izan da, milaka idazki, liburu eta ikerketa lan idatzi eta argitaratu dira. Neurri batean edo bestean, pertsona guztiok istorio-kontalariak gara eta, era berean, gu geu gara kontatzen ditugun istorio horiek.

Borrokan egondako norbanako edo talde bakoitzak bere arrazoiak zituen

¹ LERTXUNDI, Angel (1997) "Hitz bi" in CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Luis (1997) *Espainiako Gerra zibila Euskal Herrian*. Donostia, Euskaldunen egunkaria.

gerran parte-hartzeko, eta ikuspuntuok lau haizetara azaldu nahi izan zituzten, nola edo hala. Parte-hartzaile edo behatzaile bakoitzak modu singularrean bizi izan zuen gerra hura, eta aniztasun hori islatu nahi izan da Espainiako Gerra Zibilaren kontaeran (Goigana 2010)². Beharbada, afera horretan Claude Levi Strauss antropologo frantziarra ekarri beharko genuke gogora. Egile honek zioen, mitoez hitz egitean, mitoen kontaeraren inguruan sortzen ziren aldaerek eta ikuspuntu ezberdinek ez zutela arazorik sortzen mitoa ulertzeko, nahiz eta askotan aldaera horiek egiturazkoak edo aurkakoak izan; horrenbestez, aldaerarik gabeko mitoa ez da mitoa.

Izan ere, gertaera zehatz baten inguruan sortzen diren berau ikusteko alderdi anitzak gizartearen aniztasunaren ezaugarriak dira. Idazleak gertaera baten aurrean gertaera horri buruz ulertu, antzeman eta zerbait gehitzeko gaitasuna du. Subjektibitateak errealitateari eusten dio, Dilthey-ek³ mundua ezagutzeko eta ulertzeko abiapuntutzat dauka bizipen kontzeptua deiturikoa. Bizipena da giza bizitzaren objektibizazioaren oinarria eta bizitza horren historizazioa ahalbidetzen duena. Horrela, errealitatea ulerkor agertzen zaigu, finean bizitzea errealitatea ulertzea baita.

Espainiako Gerra Zibilaren inguruan euskaraz sortu den literatur ekoizpen hedatsu eta anitz horretatik bertso xume batzuk eta bi nobela apal gogora ekarri nahi izan ditut. Hain zuzen ere, Joxe eta Salvador Zapirainen testigantzak jasotzen dituztenak. Alegia, diktaturako errepresio gordineko lehenengo urte beltzetan bi semeren hilketa salatzeak aitak osatu zituen bertso hunkigarriak, eta anaien fusilamendua ezagutarazteko Salvadorrek idatzitako bi eleberriak. Nire ustean bertso eta idazlan horiek oso egoki deskribatzen dituzte Espainiako gerra zibilak baserri, etxe eta herri askotara eramane zituen oinaze, tristura eta bizipen traumatikoak.

Joxe Zapirainek bere sufrimenduak bertsoan aireratu zituen garaiotan, Walter Benjamin filosofoak idatzita utzi zuen memoriak gogo eta sentimenduen mundutik ihes egiten zuela, harik eta ezagutzeko tresna zehatza izateraino. Beraz, Benjaminen ustez ezagutzaren teoria bilakatu zen memoria (Aiestaran 2010)⁴. Urte batzuk beranduago, antzeko berbak erabili zituen

² GOIOGANA, Iñaki (2010) “36ko gerrari buruzko saio bibliografiko minimo bat” In ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel; AGIRRE MAULEON, Juanxo (2010) *1936ko gerra Euskal Herrian: historia eta memoria*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

³ DILTHEY, Wilhelm (2000) *Dos escritos sobre hermeneútica: el surgimiento de la hermeneútica y los esbozos para una crítica de la razón histórica*. Madrid, Istmo.

⁴ AIESTARAN, Ignazio (2010) *Walter Benjamin Aingerua Gernikako Bonbardaketatik. Esne Beltza eta Nazismoaren Adiskideak*. Donostia, Elkar.

Theodor Adornok, Benjaminen lagunak, memoriaren garrantzia agertzeko. Oroimenak inperatibo kategoriko berria bultzatu zuen: gogoratu egin behar da, gogorazi egin behar dugu, etorkizunean hainbat gertakizun lazgarri berriro gerta ez daitezen (Reyes Mate 2008)⁵. Joxek, bertsoen bidez, seme fusilatua gogoratzean justizia egin nahi zuen; hain zuzen ere, gogoratu ez ezik, kantuen bidez hilketak salatu zituen, antzeko jazoera izugarriak berriro gerta ez zitezen.

Hargatik, datozen orrialdeetan moldatu dudana ikerketa honek herri literaturatik haratago joan nahi du eta, bide batez, azken hamarkadetako literaturaren eta antropologiaren arteko harreman gatazkatsua (Frigolé 1995)⁶ sailhestu. Izan ere, nire aburuz, Espainiako Gerra Zibilaren inguruan euskaldunen memorian sakontzeak ez du lantzen bakar-bakarrik gure iragana edo iragan hurbila. Era berean, ariketa horrek justizia helburua du; beraz, zuzentasunaren bideetatik korritu nahi izan du ikerketa honek. Munduko beste edozein lurretan gertatzen den legez, euskal gizarteak aurre egin behar dio iraganarekin daukan zorrari. Alabaina, saiak hegan ibiltzen diren bezala, euskaldunok aurre egin behar diogu geure buruaren gainean jiraka dabilen iraganeko mamuari. Bat nator Lertxundiren oharrarekin, zeren urteak aurrera joan eta Espainiako Gerra Zibilaren oihartzunak isiltzen joan baitira, tragedia hartaz zer kontaturik, zer hausnarturik ez bagenu bezala (Lertxundi 1997)⁷. Halaber, Tzvetan Todorov pentsalariak asmatu egin zuelakoan nago: egile horrek esan zuen iraganeko izugarrikeriak ezagutzen dituenak ahotsa altxa beharko lukeela, horrela, etorkizunean gerta daitezkeen izugarrikeriak berriro errepika ez daitezen.

Ikerketaren helburuak garatu ahal izateko, hainbat orientabide teoriko eta metodologiko erabili ditut; besteak beste, historia-egitatean, memorian eta testigantzaaren inguruko literatura akademikoan oinarritu naiz, gehien bat, filosofia eta gizarte antropologia diziplinetako literaturan. Eta unibertso zabal horietatik Carolyn Nodstrom eta Antonio Robben (1995)⁸ antropologoek honako ideia honek erakarri ninduen: orokorrean, ikertzaileek arreta

⁵ REYES MATE, Manuel (2008) *La herencia del olvido*. Madrid, Errata naturae.

⁶ FRIGOLÉ, Joan (1995) *Un etnólogo en el teatro. Ensayo antropológico sobre Federico García Lorca*. Barcelona, Muchnick.

⁷ LERTXUNDI, Angel (1997) "Hitz bi" in CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Luis (1997) *Espainiako Gerra zibila Euskal Herrian*. Donostia, Euskaldunen egunkaria.

⁸ NODSTROM, Carolyn eta ROBBEN, Antonius (1995) *Fielwork under Fire. Contemporary Studies of Violence and survival*. Berkeley, University of California Press.

handiagoa ezarri dute gerraren alderdi tekniko eta historikoak deskribatzen, gerrak berak pertsonengan eragindako sufrimendua agertzen baino. Nodstromen hausnarketa zitzakari hori lan honen diseinutik bertatik atxiki nahi izan nuen, jardun intelektualaren funtsezko eginbeharra zen ustean. Hori horrela, Zapiraindarrekiko eta gerra zibilean sufritu zutenekiko elkartasunetik abiatu naiz ezagutza mundura. Beharbada, gizarte zientziak eta humanitateek leku garrantzitsua garatu behar dute pertsonen oinazearen memoria eta justizia eskuratzeko ahaleginetan. Bi ikerketa-eremu horiek benetako laborategiak dira, gaurko jendartean bizikidetzara eraiki nahi izanez gero.

Irakurleak ikerketa honetan eztabaida metodologikorako hainbat gai aurki ditzake. Esaterako, testigantzen eta koherentziaren arteko lotura iheskorrena, edota testigantzek errealitatearekin duten loturarena. Testigantzen egileak koherentzia ematen saiatzen dira inkoherentziaz betetako haien bizitzari; narrazioari logika ematen ahalegintzen dira, alegia; eta logika horretan gertakariak, sentimenduak eta gorabehera guztiak integratzen dituzte. Hala ere, irakurleari adierazi behar diot ikerketa honen helburua ez dela izan datu edo egitate historikoak biltzea, baizik eta gerrari eta lekukoaren sufrimenduari begiratzea.

Ezin izan ditut erabili lan honetan Gizarte Antropologiako ikerketetan erabiltzen diren ohiko lanabes metodologikoak: behaketa parte-hartzailea edo lekuan lekuko lana. Zurztasun metodologiko hori gainditzeko nagusiki, Joxe eta Salvador Zapirainen idatzizko testigantzetara jo behar izan dut, bertso zein eleberrietara, eta horiek guztiak testigantza osagarrien bidez aberastu. Paz Moreno Feliuren liburu batean (2010)⁹ agertzen den kontzeptua erabilita, esan dezakegu Zapiraindarren testigantzak ezagutza pozoitsuak¹⁰ direla. Hau da, Joxe aitaren eta seme Salvadorren testigantzak erresistentzia-moduak bezala ulertu behar dira; ezagutza horiek askatasuna eta zuzentasunaren guneak eraiki nahi izan baitzituzten Francoren diktadura garaian, injustiziaren aurreko pasibotasunaren kontrako erreakzioa sortu nahi izan baitzuten.

Eta amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi dagozkigun bertso eta narrazioek emozioak jendaurreko espazioan jarri zituztela; beraz, aspaldikoak badira ere, oso gaurkoak dira. Faxismoaren aurkako aldarriaz, gerraren bidegabekeriaz, garaituei ezarri zieten indarkeriaz ari gara, baina sufrimenduaren alderdiak eta diskurtsoak ez ditugu nahastu nahi indarkeria eta errepresioa-

⁹ MORENO FELIU, Paz (2010) *En el Corazón de la zona gris*. Madrid, Trotta.

¹⁰ Ezagutza pozoitsuak kontzeptua Veena Das antropologoaren lanetatik hartua da.

rekin. Espainiako gerra zibileko garaituen bihozminak bere ahotsa bilatu behar zuen, jendaurrean zegokion lekua izan nahi zuen, hitz egin behar zuen. Azken finean, horixe da bertso eta eleberri horiek lortu nahi zutena; nolabait, gurekin partekatu nahi dute demokraziaren funtsezko gai bat: justizia egitearena, alegia.

Ikerlana bederatzi ataletan dator. Hasierako atala, gaiaren aurkezpen moduan, atariko dugu. Lerro horietan irakurleak gaiarekiko lehengo hurbilpena aurki dezake. Halaber, hasierako atalean, ikerlanaren inguruko zehaztasunak, ikuspegiak, ikerketaren oinarriak eta lanaren nondik norakoa eskaini nahi izan dira.

Bigarren atalean ikerketa egitera zerk bultzatu ninduen azaldu nahi dut. Beraz, lanaren zergatia eta Zapirain sendiaren inguruko zertzeladak daude bertan. Hala nola, Zapiraindarren bertsozaletasuna, ezagutu zuten euskal bizitza tradizionala eta familia-kideen hainbat datu biografiko.

Hirugarren atalean azaltzen da, laburki, Espainiako gerra zibilak Gipuzkoan izan zuen bilakaera, garaileek ezarri zuten errepresio bortitza eta horren ondorioz zapiraindarren gurutze-bidea nola hasi zen.

Laugarren ataleko lerroetan, berriz, lau zapiraindar atxilotuek Ondarretako espetxean bizi izan zituzten pasarte ahaztezinak dakartzagu: gaueko "paseoak", legez kanpoko exekuzioak eta bi anaiei erailketak. Halaber, Joxek semeak libre jar zituzten ahaleginak jasoko dira.

Bosgarren atalean, Iruñea ondoko Ezkaba mendian, San Kristobal espetxean Salbadorrek eta Juan Josek izandako bizipen latzak agertzen dira. Infernuan bizitzea zer zen jakin zuten espetxe horretatik igarotako guztiek: gosea, hotza, tratu txarrak, irainak, gaixotasunak, heriotzak.

Seigarren atalerako intuizio bat ekarri nahi izan dut: hain zuzen ere, 1939an gerra ez zela amaitu. Garaileek erabat baldintzatu zituzten herri eta hiri guztien gizarte-antolaketa zein hiritarren bizitza.

Zazpigarrenean bertsolaritzaren inguruko gogoetak ekarri ditut. Behin eta berriro aldarrikatzen zuen Joxek beren bizitzan bertsoek zuten garrantzia; izan ere, bertsoez baliatu zen behin baino gehiagotan barneko emozioak azaleratzeko.

Amaitzeko, ikerlanean zehar sortu diren ondorio eta hausnarketa batzuk ekarri nahi izan ditut. Atal honetan laburbiltzen dira ikerlanaren zergatia, hasierako helburu eta hipotesien aplikazioa eta etorkizunerako azterbideak.

Azkenik, bibliografiari buruzkoak jaso ditut.

Sarrera lerro hauei amaiera eman aurretik, ezin ditut ahaztu ikerketa-ibilbidean bidaide izan ditudan lagunak. Espezialki, Patxi gogoratu nahi dut,

uste bainuen ikerlana bukatuta ikusiko zuela, baina ezin izan du. Orobat, Amorebieta-Etxanoko Udala eta Labayru Ikastegia aipatu behar ditut, haien laguntzarik gabe ez nukeen ikerlana bukatuko, eta bi erakunde horiekin batera Ines Gandarias, Andoni Agirrebeitia, Adolfo Arejita, Miren Ibarluzea eta Iñaki Sarriugarte, 2011ko deialdiko Santiago Onaindia bekaren epaimahaikideak. Ezin ditut ahaztu, bestalde, modu batean edo bestean lagundu didaten kideak: Jone Miren Hernandez, Mari Luz Esteban, Fernando Golvano, Santi Piquero eta Olatz Muñoz lankideak; eta Paco Etxeberria, Karlos eta Mikel Aizpuru, Idoia, Aitziber eta Xanti Zapirain adiskideak. Guztioi, eskerrik asko. Eta nola ez, Zuriñe eta Xabier, etxekoak, maite zaituztet.

2. Zapiraindarrak

Aitonak eman zidan bertsoa,
aitak jarri zuen mamia
Amak eman dit olerkariko
goxotasun berezia.
Bordaxarretik Martilun arte
hor dago nire kabia,
Hor jaio dira nire bertsoak
eta nire olerkia.

(Zapirain 2008)¹¹

2.1. Historiatik desagertu diren istorioak

Bizitza batzuk historiaren ibilbide luzean galdu dira. Eskuliburu, biografia, entziklopedia edo bestelako dokumentutan agertzen ez ziren bizitzak historiaren apaletatik ezabatu ziren. Hainbat gizakiren bizitzak hurbileko senide apur batzuen oroimenean iraun dute soil-soilik. Gizon eta emakume arrunten biografiak dira horiek, eta hutsunearen bidez jakin dezakegu gizarteak zer nolako jokaera izan duen pertsona konkretu batzuekiko, zeren bizitza bati buruz daturik ez izatea esanguratsua da oso (Terradas 1992)¹².

Gizarte-zientzietako diskurtsoak ahots pluraltasunez beterik daude, puzzleen zatiak balira bezala, eta aniztasun horretan biografia horiek guztiak interesgarriak dira; orduan, bizitza guztiek, gizakiarenak diren heinean, garrantzia dute. Ahanzturaren itsaso zabaletik bizirik irten diren biografia-zantzu

¹¹ <http://martillungosindikatua.blogspot.com.es/2008/08/beno-lagunsartu-dizut-txapa-piskat-eta.html>. 2012ko azaroaren 19an begiratu.

¹² TERRADAS, Ignasi (1992) *Eliza Kendall: Reflexiones sobre una antibiografía*. Barcelona, Universidad Autónoma de Barcelona.

horietan, pertsona zehatz batzuen informazioaz gain, ezagutza historikoa dugu, ez dira bakarrik euren buruaren ordezkariak. Gizabanakoen bizitza horiei buruz ditugun datu bakanek lagunduko digute garaia eta testuingurua ulertzen, eta horien arabera narrazio biografiko horien jarrerak eta jokaerak ulertuko ditugu. Azken finean, desagertu diren biografiek biltzen dituzte pertsona arrunten bizimodua, haien munduaren irudia, hainbaten hausnar-ketak, besteen sufrimendua eta poza; alegia, guztion justizia-egarría.

Biografia ahaztu horien ondoan badaude historiatik desagertu diren beste hainbat bizitza ere, historia eta gizartetik desagerrarazi egin dituztenak, hain zuzen. Urte askotan, biografia xehe horiek oroimenaren tiraderan gorde behar izan zituzten, isilpean, ezkutaturik; esaterako, Espainiako gerra zibileko garaituenak. Garaituek ezagutu zuten mundua suntsitu egin zen gerraren ondorioz. Konfiantzazko mundua, harremanak eta eraikitako balio-sistema buruaren gainera etorri zitzaizkien, askotan konturatzeko denborarik izan gabe. Eta galera pertsonalaren sentipena isiltasunean gorde behar izan zuten.

Hainbat pertsonari buruzko narrazio edo zantzu batzuek, baina, argia ikusi ahal izan zuten diktaduraren urteetan, eta erregimen errepresiboaren aurkako erresistentzia moduak eraiki zituzten, injustizia eta isiltasunaren aurka egiteko estrategiak baitziren (Beverley 2002)¹³. Diktadorearen erregimeneko politikoez gerrako garaituen oroitzapenen gaineko isiltasun zorrotza ezartzeko agindu zuten, erregimenaren aurka gutxieneko adierazpenak kontartzeko ere erabateko zentsura ezarri zuten, baina ez zuten kasu guztietan lortu.

Dena den, gaur egun pentsa dezakegu bizitza haiek oroimen eta historia-
ren itzalera loturik zeudela, mamuak bezala, beste garai batekoak direlako. Hala ere, bat egiten dut Paul Ricoeur filosofoaren gogoetarekin (1987)¹⁴. Pentsalariaren iritziz, gizabanako garaituen biografiek ez dizkigute ematen iraganari buruzko zenbait datu bakarrik, orainari ere lotuak dira, eta etorki-zunerako distirak balioetsi ditzakegu. Izan ere, oroimena iraganaren olgeta izateaz gain, orainaldia ulertzeko euste-puntu sendoa da.

Ikerketa honen helburua familia garaitu baten afera argitara ematea da, Errenteriako Bordaxar baserriko Zapirain Ezeiza familiarena hain zuzen.

¹³ BERVELEY, John eta ACHUGAR (2002) *La voz del otro: Testimonio, subalternidad y verdad narrativa*. Guatemala, Papiro.

¹⁴ RICOEUR, Paul (1987) *Tiempo y narración. Configuración del tiempo en el relato histórico*. México, Siglo XXI.

Haien bizitzei buruz dugun informazio urriak lagunduko digu, nik uste, gerra eta gerraondoko pasarteak eta testuinguru historiko, sozial eta kulturala hobeki ulertzen. Familia hau aitzakiazat hartuta, subjektibotasunaren helburu kognitiboa aldarrikatu nahi dut.

Memoriaren garaian bizi omen gara. Euskal Herriko gizartean asko hitz egiten da oroimenaz. Behin baino gehiagotan bultzatzen dituzte memoria jarduerak erakunde ofizialek edo bestelakoek: festa- eta oroitzapen-egunen ospakizunetan, oroimen lekuen antolaketan, kongresuetan, erakusketetan eta abarretan. Hala ere, memoria-saio horiek jendaurrekoak, gizartekoak edo kultura-oroiimenak izaten dira, eta memoriaren leherketa hori ez dago oroimen pertsonalarekin edo gizabanakoaren oroimenarekin lotuta (Burke 2011: 490)¹⁵

Familia honen testigantza tragikoak marka itzela utzi zidan denboraldi batez, badaude-eta zenbait istorio gure laruari erantsita geratzen direnak; esate baterako, existentzian zehar izan ditugun zenbait bizitza-pasarte, noizean behin entzun ditugun hainbat berri, zuzen-zuzenean ezagutu ditugun gertaera batzuk... Askotan ezin ditugu geure baitatik askatu. Gorputzari eta gogoari erantsi-erantsita eramaten ditugu, joan-etorriko bidaia egiten duten enarek bezala, ondoan ditugun bidaideak dira. Antzeko zerbait gertatu zitzaidan Joxe Zapirainen bertso batzuk irakurri nituenean, oso zaila egiten zitzaidan bertso horiek islatzen zuten tragedia ahaztea.

2.2. Laruari erantsita daramatzagun istorioak

Gogoan dut oraindik Zapirain-Ezeiza familiari buruz izan nuen lehenengo berria Felipe Barandiaran Irizarrek eman zidala. Felipe zen gure herriko apaiza, han genuen intelektual bakarrenetakoa. Besteak beste, teologia, filosofia, soziologia eta antropologia ikasiak zituen. Francoren diktadurak bultzaturik atzerrira jo behar izan zuenean, irakasle ibili zen nazioarteko zenbait unibertsitatetan (AEB, Kuba eta Frantzia). Euskal Herrira itzuli eta erretiroa hartu zuenean Pasai Donibanen geratu zen.

Felipek liburu bat eskuratu nahi zuen, argitaratu berria omen, ez zuen inon aurkitzen eta EHUKo bibliotekan begira nezan eskatu zidan. Enkargua Salvador Zapirainen *Espetxeko negarrak* izeneko liburua zen. Felipe Barandia-

¹⁵ BURKE, Peter (2011) "Historias y memorias: un enfoque comparativo" in *Isegoría*, 45 (489-499).

ranek eta Salvador Zapiirainek elkar ezagutzen zuten, gaztetan ikaskideak izan baitziren Gasteizko apaiztegian. Felipe, apaiz ordenatu zenean, Errenteriako parrokiari aritu zen, erbestealdira ihes egin behar izan zuen arte. Errenterian bizi zela, Felipek aukera izan zuen Zapiirain-Ezeiza familia-kideak ezagutzeko eta, halaber, sendi horrek gerra garaian jasan zuen gurutze-bideaz jabetzeko.

On Jose Miel Barandiaran osabak bezala, Felipek erretiroa hartu zuenean ez zuen alboratu ikerketetan aritzea. Pasai Donibaneko arrantzaleei buruzko antropologia ikerketa interesgarria¹⁶ idatzi ondoren, buru-belarri sartu zen euskal kultura tradizionalari buruzko beste ikerketa batean. Euskal mundu tradizionala zer zen, eta bere ezaugarriak zein ziren definitu nahi zuen. Haren ustez, aldaketa handirik gabe eta aurrerapenaren eragin kaltegarria saihestuz, euskal mundu tradizionalak bere burua erreproduzitzea lortu zuen, tradiziozko erkidegoa sendoa zen, partekatzen zuen balio-bilduma sendoa zelako. Eta balio-bilduma sendo horretan erlijioak zuen garrantzia behin eta berriro azpimarratzen zuen. Antropologiaren historian zehar garrantzi handirik eman ez bazieten ere, egitate erlijiosoek zentzua ematen zioten euskal unibertso tradizionalari, haren ustetan. Beste era batean esanda, ideia erlijiosoek antolatzen zuten euskal *ethosa* (euskaldunek bere burua izateko eta ulertzeko era) eta, era berean, xedatzen zituzten jendearen bizitza eta euskal kultura tradizionala. Zer esanik ez, tradiziozko euskal mundu horretan erlijioak indarra¹⁷ zuen. Jainkoa, apaizen bitartekaritzaren bidez, gizakien bizitzaz eta lur gainean gertatzen zenaz arduratzen zen. Eliza, beraz, identitatearen gakoa zen, eta laguntza psikiko eta soziala. Kristautasuna, ikuspegi teleologikoa eskaintzen zuenez bizitza ulertzeko, erreferentziatzko marka zen nolabait.

Barandiaranen ustez, euskal gizarte tradizionalaren azpiegitura ezagutu ahal izateko ikertzaileek ez zuten zertan jo Karl Marx-en materialismo dialektiko edo historikoa aztertzeraz, edo Emile Durkheim-en elkartasun organikoaren kontzeptura, edo Marvin Harris-en materialismo kulturalera; tradiziozko euskal munduaren ikertzaileak euskaldunen erlijio sentimenduetan

¹⁶ BARANDIARAN, Felipe (1982) *La comunidad de pescadores de bajura de Pasajes San Juan*. Ayer y Hoy. Estudio Antropológico. Oiarzun, Egilearen argitalpena.

¹⁷ Sandra Ott antropologo estatu batuarrak oso hausnarketa interesgarriak egin zituen euskaldunen indarraren inguruan. Begiratu OTT, Sandra (1993) "Indarra: Algunas reflexiones sobre un concepto vasco" in PITT-RIVERS J. eta PERISTIANY, J. (1993) *Honor y gracia*. Alianza Universidad, Madrid. (252-279).

jarri behar zuen arreta. *Ethos* kristauan oinarritzen da garai hartako euskaldunen mundu-ikuskerara. Jokabidea, araubidea, usadioa eta gizarte-ohiturak erlijio-antolamenduak ezartzen zituen hein handi batean.

Salbador Zapirainen liburuek oso ongi islatzen dute euskal unibertso tradizionala. Idazle horren lanetan euskaldunen *ethos*aren eta erlijioaren arteko lotura oso nabarmen agertzen da. Liburu horien azpian badago honako helburua: idazleak ezagutu zuen mundua desagertzen ari da abiadura handiz, eta egilearen egin beharra da mundu hori birsortzea, gutxienez oroimenean. Horregatik, euskal mundu tradizionala ezaugarritzeko, Barandiaranen ustez, Salbador Zapirainen nobelak erakustoki egokiak ziren.

Felipe Barandiaranek *Espetxeko Negarrak* izeneko liburua irakurtzeko harra piztu zidan, eta irakurtzeari ekin nion. Egia esan, lehenengo orrialdeetatik hunkigarria iruditu zitzaidan nobela, eta gogoan dut oilo-ipurdia jarri zitzaidala zenbait pasarte irakurtzean. Errenteriako Bordaxar baserriko lau anaiek pairatu atxiloteta, espetxealdia eta gerra-kontseilua kafkiarrak ziren une askotan, fikziozko amesgaiztoak ziruditen. Sendiak gerra eta zentzugabeko errepresioaren lazgarrikeriak jasan behar izan zituen. Kontaldian, Salbadorrek errepresio bortitzenaren adibideak ematen ditu argitara, bata bestearen segidan, eta kontaketa guztia ironia finez apaindua dago.

Idazleak oso ongi azaltzen du Ondarretako espetxeko giro itogarria, gaue-ro nola ateratzen zituzten zenbait preso heriotzaren ibilbidea eginarazteko. “Está usted liberado” ziren magiazko hitzak, eta presoak kamioietan sartu eta errepede-ertzetan edo hilerriren bateko hormaren kontra geratzen ziren zerraldo. Goizero, nabariak ziren espetxeko patioan loteria makabro horren hutsuneak. Errepresio urte haietan Gipuzkoan gertatutakoaren dokumentu garrantzitsuenetakoa da eta, beharbada, gaiaren inguruan euskaraz idatzi den testigantzarik hoberena. Nobelako pasarterik hunkigarriena da Jose Ramon eta Antonio anaien hilketa espetxeko hormen kontra. Maitasunez eta bihozminez jasotzen da urriko goiz batez gertatutako fusilamendua, egileak ziegatik tiro-hotsak entzun zitueneko uneak .

Zapirain Ezeiza sendiaren inguruan izan nuen bigarren erreferentzia Jose-rra Garziaren artikulu bat irakurtzean etorri zitzaidan. Idazki horretan Garziak bertso-laritzaren garapenaren ibilbide historiko argia egin zuen, bertso-laritzaren hastapen ezagun geroztiko gaur egungo garapena. Atal batean, Espainiako Gerra Zibilaren garaiaz eta ondotiko errepresio urteez mintzatzean, Garziak “oximoron” kontzeptua darabil; nolabaiteko kontrakotasuna adierazi nahi zuen, *contradictio in terminis*. Hau da, Garziaren ustez, errepresio-urte haietan derrigorrezko mututasuna hedatu zen Euskal Herrian, eta

isiltasuna guztiz kontrajarria zen bertsolaritzak behar zituen ahotsa, kanta eta doinuekin. Esan daiteke urte haietan euskaldunak mutu geratu zirela eta, orduan, derrigorrezko isilpeko bertsolaritza gauzatu zela.

Bertsolaritzaren aro mutu hari irudi bat jarri zion Garziak, Joxe Zapirain bertsolariarena, alegia. Irudi hartan, sukaldeko intimitatean, negar eta malako artean, bertsolariak hildako semei kantatzen zien. Borrero frankistek fusilatu zituzten semeak bizirik iraun ahal izan zuten aitzak kantatutako bertsoen bidez. Joserra Garziak eratu zuen eszena hura irudikatu nuen neure baitan, eta nekez aldendu nituen gogotik bi seme galdu zituen aita bertsolariaren negarra eta bertsoa.

Nola kanta zitekeen egoera animiko hartan? Zerk zeraman aita hura semen galerari bertsoen bidez aurre egitera? Joxeren historia tragikoa sukaldeko intimitatean irudikatzen nuen, eszena haiek itsatsiak geratu zitzaizkidan denbora luzez. Beharbada, noizik behin izaten ditugu inguruan antzeko istorioak, gainetik kentzeko zailak diren istorioak, ahazteko zailak direnak. Galdera asko eginarazi zizkidan buruak: Joxek nola transmititu zezakeen bi seme fusilatuen galerak uzten zion hutsunea? Nola kanta edo konta daiteke izugarrikeria? Hurbildu gaitzaizkioke izuaren alderdiari hizkuntzaren bidez? Nola liteke? Badirudi, horrelako egoeretan, pertsonen hizkuntza-gaitasunak ertz bat duela eta ertz horren ondoren amildegia dagoela eta, amildegia ondoren, derrigorrez, isiltasuna.

Jakinaren gainean gaude, gertaera batzuk oso zailak dira kontatzeko, kontaezinak ere badira. Historian zehar idazle eta artista askok aurre egin diote auzi horri; gogoan ditut, besteak beste: Franz Kafka, Primo Levi, Paul Celan zein Anna Ajmatova. Idazle horien testigantzak irakurtzean ohartzen gara zein zaila egiten zaigun hainbat bizipen buruz mintzatzea, ariketa literario garrantzaz gain, biluzte pertsonala eta mingarria baitakartza. Jose Azurmendik Filosofia eta Poesia entsegu trebean ohartarazten gaituen bezala, filosofoak (gizakiak) hitzik ez duenean poetari utzi behar dio txanda.

“...Filosofoak barrundatu edo igarri egiten duenari, poetak izena jartzen dio, errealtatea ematen dio. Poetak herriari bere egoera sentitzen irakasten dio eta munduarekin topo egiteko posibilitate berriak eraiki.” (Azurmendi 2011: 121)¹⁸

Halaber, zentzuzko hitzak aukeratu zituen Primo Levi-k (2002) sarraskitze-

¹⁸ AZURMENDI, Jose (2011) “Filosofia eta poesia: Platon eta Homero, Heidegger eta Hölderlin” in AZURMENDI, Jose (Arg) *Filosofia eta Poesia*. Donostia, Jakin. (101-148).

esparruetako infernua kontatzeko. Gune grisean bizirik jarraitu ahal izateko arrazoi bat aurkitu zuen, arrazoi bakarra beharbada: infernuan bizi, ikusi eta pairatu zuena kontatzea. Antzeko ideia azaldu zuen Victor Kenperer-ek (2003): badirudi egunkariko kronika xumeak idazteak lur jota geratzen salbatu zuela; hain zuzen, nazien gehiegikeriak egunkarixoan idazteak nola-baiteko duintasuna eman zion juduen bizitzari. Eta, idazle horiek bezala, beste hainbeste izen gogora ditzakegu. Izan ere, bizirautea gizaki orekin egin beharra litzateke, pertsonen gogoan eta borondatea baita. Baina pertsona batek ikusi, sufritu eta bizi duena kontatu ahal izateko bizirautea, beste biziraupen mota bat da (Calveiro 2001)¹⁹.

2.3. Zapirain sendia, bertsozale eta bertsolariak

Zapirain Ezeizatarrek Bordaxar baserrian izan zuten jaioleku eta bizitoki, Errenteriako mugen barnean. Errenteria udalerriko azken baserria zen XX. mendean hasieran, inguru horretan muga egiten zuten Errenteria, Pasaia, Altza eta Astigarragako lurrek, hain justu. Baserria San Marko eta Txoritokieta mendien artean dago, garai hartan Donostiara joateko erabiltzen zen bidearen ondo-ondoan. Hauxe zioen Salbadorrek baserriaren kokapenez:

“Oartzun’dik eta Errenteria’tik zetozen bideak, gure etxe aurrean egiten ziteken bat; eta hemendik konkorrere’n beera, Donostiara jexten uan (Zapirain 1984: 24).

Errenteriako mugen barnean bazen ere, herrigunea oso urrutik geratzen zitzairen. Gehienetan, Bordaxarrekoak Altzara joaten ziren, han baitzuten auzogune hurbilen eta irisgarriena. Beharbada horregatik abiatzen ziren Zapiraindarrok Altzako eliza, taberna eta dendetara fedea, hornidurak edo bizitza soziala egin beharra zutenean.

XIX. mendean eta XX. mendeko lehenengo herenean, Altza herrian bertsozaleen handia eta puntako bertsolariak zeuden. Herriko taberna, sagardotegi eta baserriak bertsolari eta bertsozaleen harrobi oparoak izan ziren. Hango bertsozaleen ospeak Altzako mugak gainditu zituen eta, sarritan, Euskal Herriko bazter guztietako bertsolariak inguruko sagardotegi eta tabernetan biltzen ziren. Haietako batzuk herriko beste bertsolariekin neurtzeko, edota lehia eta norgehiagokaren bila. Bertso saioak sarri egoten ziren,

¹⁹ CALVEIRO, Pilar (2001) *Desapariciones, memoria y desmemoria de los campos de concentración argentinos*. México, Taurus.

herriko plazan ez bazen, inguruko ostaturen batean. Parrandetarako xelebrea omen zen Altza; 1920an 25 taberna eta sagardotegi zeuden udalerrian, eta 2.000 biztanle. (Roquero 2005: 119)²⁰. Altzako inguruetakoko establezimenduetan, Xenpelar luxuzko bertsolari bisitaria izaten zen; lana egin ondoren, maiz joaten omen zen Altzako Mirazone sagardotegira (Zavala 1968: 78)²¹.

Inguruko beste baserriak bezala, Bordaxar baserria ere betidanik izan zen bertsozaleen eta bertsolarien topagunea, lau pareta haien artean jaio ziren Joxe Bixente, Juan Kruz eta Joxe Zapirain, hirurak bertsolaritzaren historiaren osagaiak. Etxeko sukaldean ez ziren falta hiruren bertsoak, ez eta semearen baten erantzunak ere. Juan Kruz eta Joxe anaien ospea laster zabaldu zen inguruko herrietan, Juan Kruzengana jende ugari joaten zen bertso-paperak jar zitzen eskatzera. *Oh Euzkadi!* izeneko literatur aldizkariko ale batean elkarriketatu zuten Salbador Zapirain, eta bertsolaritzari zion atxikimenduaz galdetuta, honela erantzun zuen:

“Nere aitona bertsolaria zen, osaba eta aita ere. Ni ere, eta iloba gaztea halakoa dugu baita. Gurean bertso giroa oso bizia izan da beti. Auzoen artean berdin, Txirrita eta... Etxean ez genuen besterik ikusten eta gaztaina jaten hasten ginenean, eta bertsotan.” (1981: 26)²²

Bertsozaletasun giro horretan, aipatzekoa da ere, Bordaxar baserriko beheko aldean urteetan etxekoek sagardotegia zabaldu zutela. Sagardo upe-lak inguruko baserriarren ezinbesteko topagune bihurtu ziren, eta auzoko baserriarrekin eta bestelako bertsozaleekin batera bertsoak gora eta behera aritzen ziren. Badirudi saio dezente entzun izan zirela baserriko beheko aldeko lau pareten artean.

“Gure etxe-barru ontan, sagardotegira zetozenetan, bertsoak itun betiko leloa. Bertsolari sonatu xamarrak asten zirenean, elizan baino ixil eta erneago egoten uan jendea entzuten”. (Ataño 1979: 77)²³

Ziur naiz Bordaxarreko kupeletako hitzorduetan gutxitan kale egin zuela Txirrita ospetsuak, Zapiraindarren laguna eta bizilaguna baitzen. Gurasoekin batera Altza auzuneko Txirrita baserrira joan zen bizitzera umetan, eta

²⁰ ROQUERO USSIA, Maria Rosa (2005) “Altza 1910-1940” *Altza.Hautsa Kenduz* 8 (117-134).

²¹ ZAVALA, Antonio (1968) *Alza'ko bertsolari zaarrak*. Auspoa. Tolosa.

²² OH EUZKADI! (1981) “Ataño, Xalbador Zapiraini, elkarrizketa” *OH EUZKADI!* 13 (25-28).

²³ ATAÑO (1979) *Txantxangarri Kantaria*. Tolosa, Auspoa.



Bordaxar baserria

zahartzaroan, berriz, etxez aldatu zen, baina ez auzoz. Altzako Gaztelume izeneko baserrira aldatu zen, arreba eta koinatuaren etxera, hain zuzen. Akaso, huts egiten ez zuten beste batzuk eskola zaharreko Errenteriako Zabaleta anaiak ziren, edota Saiburu baserriko hiru anaiak (Juan Joxe, Nikolas eta Anjel), edo Telleri-Txiki hurbileko baserriko semeak. Bertan ibili zen Gaztelume baserriko Saturnino ere –Txirrita handiaren koinatua– edota Andres Arrieta Altzako bertsolaria –Marrus ezizenez ezagutua– (Zavala 1962: 23)²⁴. 1919an, Maria Kontzeptzion Ezeiza, Joxe Zapirainen emaztea, gripeak jota zendu zenean, Bordaxar baserriko beheko sagardotegia itxi egin zuten, eta berriro ez zuten zabaldu.

Altzako tabernetan zein Bordaxarreko sagardotegian biltzen ziren haiek eskola zaharreko bertsolariak ziren, garai eta bizi-baldintza berezietatik sortuak. Eskola zaharreko bertsolarien bertso-eskola sagardotegi eta tabernak ziren, Zavalak zioen bezala “hor egiten zuten batxillerra; unibertsitea, berriz, plaza” (Zavala 1982: 12)²⁵.

²⁴ ZAVALA, Antonio (1962) *Txirrita (bizitza eta bat-bateko bertsoak)*. Tolosa, Auspoa.

²⁵ Zavala, Antonio (1982) *Lexoti bertsolaria*. Tolosa, Auspoa.

Esan bezala, Altzako²⁶ baserrietan bertsolari-harrobi eta topagune asko bazeuden ere, bertsolaritzaaren grinagatik lau baserri nabarmendu ziren beste topaguneen gainetik: Bordaxar, Saiburu, Gaztelume eta Txirrita. Altzako lau baserri haietan zegoen bertsolaritza maila izugarri altua zen eta bertako bertsozaletasun sutua, berriz, apartekoa. Horregatik, inguru horretako txokoetan entzute handiko bertso-bilguneak egokitzen ziren maiz. Dударik gabe, bertsolari-belaunaldi horretatik historiara igaro zen sortzailerik garrantzitsuen Jose Manuel Lujanbio, Txirrita, izan zen. Hernaniko Ereñozu auzoan jaio bazen ere, Altzara joan zen umetan gurasoekin batera, Txirrita baserrira, eta gurasoen Altzako baserritik hartu zuen izena.

Txirritaren ospeak inguruko mugak gainditu zituen eta leku askotatik deitzen zuten bere ateraldi eta hitz zorrotzak entzuteko. Beharbada, izen handia lortu zuen Txirritak bere bertsoekin, baina antzeko ospea irabazi zuten bere ibilerek ere, bertsolari alferrontzi eta parrandazale irudia geratu baita euskal memoria kolektiboan. Ataño *Txantxangorri kantaria* izeneko liburuan Txirrita bertsolariaren ibilera batzuk jaso zituen; Antonio Zavalak, berak idatzitako bertsolariaren biografietan, berriz, beste hainbeste kontu ekarri zituen. Kuriositatez, hango baserrietan zer nolako bertso-saioak egiten ziren jakin ahal izateko, honako pasadizo hau utzi zigun Antonio Zavalak (1968), Txirritari Altzako Saiburu baserrian gertatukoaz:

“Behin batez, Txirrita Saiburu baserrira etorrita, bi lengusu kantari egon ziren, eta amalau egunean ixildu gabe jardun omen ziran. Amabosgarrenean, Txirrita oso zaartua, baldartua baizegoan, gurdi gainean jarri eta Gazteluene’ra bera bizi zan baserrira, arrebaren etxera alegia, eraman zuten” (Zavala 1968: 10)²⁷

Bordaxar etxe koentzat bertsoa bizi ahal izateko beharrezko arnasa zen, eta bertsoan aritzea etxeko jolas arrunt eta naturala zuten. Gauez sukaldeko intimitatean, egunez baratzeko lanetan edo ukuiluko bakardadean behiak jaisten ari zirela ere, bertsoak kantatzen zituzten. Zirudienez, Joxe eta Juan Kruz Zapiain, edozein tokitara joaten zirela ere, bertsoan aritzen ziren. Kantua, neurri berean, bizitzari lotzeko euskarria zen. Juan Kruzek eta Joxek, alai edo goibel, beti eramaten zituzten bertsoak buruan eta mingainean, izan

²⁶ 1940ra arte Alzako herri independentea zen. Orduan erabaki zuten herriko agintariek Donostia udalerriaren barnean integratuko zirela.

²⁷ ZAVALA, Antonio (1968) *Iru anaï bertsolari: Juan Jose, Nikolas eta Anjel*. Auspoa, Tolosa.

inprobisatuak, izan bertso klasikoak edo izan beste bertsolari bati entzundakoak. Bordaxar baserrian hitz egiten baino trebeagoak omen ziren bertsoak kantatzen.

“Gure arnasa orixe uan: bertsoa. Gu bi anaiok bakarrik geundeken lekuan, batez ere beikontu ganbiltzanean, bertsoak itun gure jolasa. Zer entzun ta ikusi, umeak ura ikasi. Guk ez genin beste gauzik ikusi ta entzuten.

Iñungo errijaietara joaten bagiñan, bertsolariak bazter guzietan. Taberna txulo guztietan bertsolariak.” (Ataño 1979: 77)²⁸.

Edonola ere, bi Zapiraindar horien kasuan bertsoak inprobisatzea ez zen uztartzen bakar-bakarrik aisialdiko uneekin (herriko jai, oroitzapen ekitaldi eta antzeko uneak); bertsoan aritzea ez zen izaten zehazki olgeta, dibertimendu edo denbora-pasa. Juan Kruz eta Joxerentzat kantuan aritzea kasik bizimodu bat zen. Aurrez ikasitakoak zein une berean inprobisatuak, bertsoen kantuan aritzeak laguntza eskaintzen zien bi anaiok euren bizitzako abagune gehientsuenetan. Joxe Zapirainek semei nahiz lagunei esana omen zien, berak bertsoan ibili gabe ezin zuela bizi, emozioz itota aurkituko zuela heriotza, alegia. Joxeren aburuz bertsoak bizirik egoteko baliabideak ziren, sentimendu eta emozioak kanporatzeko, barneko pentsamenduari koherentzia emateko; azken finean, munduari aurre egiteko tresna egokiak ziren bertsoak.

Gerra Zibilaren osteko errepresioak deuseztatu egin nahi izan zituen euskal edo euskal kutsua zuten adierazpen guztiak. Besteak beste, euskaldunen hizkuntzaren aurkako jarrerak areagotu ziren, eta horiekin batera, euskal kulturarekin zerikusirik izan zezakeen edozein espresio galarazita geratu zen. Ondorioz, Espainiako agintari berriek jendaurreko bertso-saioak ere debekatu zituzten, baina ez zuten lortu bertsolariak erabat isilaraztea. Bertsolariak lagunen artean, taberna eta sagardotegietako ezkutuko txokoetan aritzen ziren bertsozale batzuen aurrean. Traba eta oztopo guztien gainetik, ezarritako debekua gainditzen zuten bakan batzuek, haien artean Joxek. Izan ere, edozein errejimen zapaltzailek ezinezkoa du pertsonen sentimendu eta barne-munduan debekua ezartzea.

Hala, Zapirain anaiak eskola zaharreko bertsolariak ziren, eskola zaharreko bertsolari eskolagabeak. Badirudi bi anaiok ez zekitelako idazten, eta ber-

²⁸ ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.

tsoak paperetan jartzeko beste pertsona bati diktatu behar zizkiotela. Joxe azken gerra karlistaren erdian jaio zen, eta Juan Kruzek bost urte zituen gatazkaren danbadak baserriaren inguruan lehertu zirenean. Karlisten eta liberalen arteko XIX. mendeko gerrek utzitako aztarnak luzaro iraun zuen Euskal Herri osoan, baita Zapiraindarren etxean eta Altzako biztanleen artean ere. Gertu-gertutik bizi izan zituzten alderdi haietan azken karlistadaren gorabeherak: San Marko eta Txoritokietako gotorlekuetatik jaurtitako kanoi-dadak, lehegailuen danbadak eta triskantzak, tropen mugimenduak, soldaduen erasoak eta tiroketak.

Bordaxar baserria bete-betea zen sartuta zurien eta beltzen arteko liskarretan. Bordaxar baserria leku estrategikoan zegoen, San Marko eta Txoritokieta gotorlekuen ibarbidearen erdian, Gipuzkoako hiribururako bidearen ondoan, Frantziako mugetatik hurbil. Frantzisko Apalategik, apaiz jesuita eta historialariak, *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak* (2005: 250) liburuan gerra karlisten inguruko hainbat testigantza jaso zituen. “Txoritokietako burrukan” izeneko atalean, Bordaxar baserriaren inguruan gertaturiko honako gerra-pasarte hau dakar:

“-Gu lubakietan.

-Batalloi osoarentzat lekurik al zan?

-Baita lau batalloirentzat ere. Astigarraga gainetik asi ta Txoritokieta azpitik S. Markos ere artzen zun lubaki luzeak.

-Ta bai al ziran, lubaki errenkada baten gañez, beste gorako lubakiak?

-Ez; errenkada bakarra. Etsai bildurrik ez zanean, gu Astigarragan patxaran, ta konpañia batek, eskuadra bi (konpañi erdia) lubakia zaitu, ta lubaki aurreko bazterratan ibitzeko bialtzen zitun. Askotan, gabez, S. Markosko “ronda” -rekin topo egiten genun.

Burruka alde artatik izango zala lenagotik jakin genun, ta batalloi osoa lubakian sartu ere. Gu Bordatxo dioten basarri inguruetan giñan; Astigarraga ezkerrean ta S. Markos gañean eskuira.” (Apalategui 2005: 250)²⁹

Bordaxar etxekoei karlisten armadaren eta gerrari liberalen artean egotea egokitu zitzairen urte batzuetan; garai hartan esaten zuten bezala, txuri eta beltzen tiro gurutzatuen erdi-erdian. Bordaxar baserria borrokaldiaren erdi-gunean baitzegoen, han sarritan babesten ziren alde bateko zein besteko soldaduak. Noiz edo behin, 60 soldadu baino gehiago babestu ziren Bordaxar baserriko teiltupean.

²⁹ APALATEGUI (2005) *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak*. Donostia, Auspoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

“Etxea gudariz bete zegoela etorri niñun ni mundura... Beltzak, Donostia, Altza-gain ta Errenderi’ko inguru ori guzia beren esku zeukateken. San Markos ta Txoritokieta, aurreko bi mendi legor oriek, berriz, txurien mende zeudeken... bi suren erdian baizegon gure etxea.” (Ataño 1979: 32)³⁰

Etxe ondoan zeuden liskar militarrek zirela eta, Juan Kruz eta Joxe ezin izan ziren herriko eskolara joan. Bi anaiak, eskolara joan gabe, ez zuten aukerarik izan idazten eta irakurtzen ikasteko. Inguruetako liskarra amaitu eta giroa apur bat lasaitu zenerako, Juan Kruz mutil koskortua zen; eta Joxe gazteagoa, baina ordurako anaiari laguntzen zion etxeko beharretan.

Dena den, badirudi Joxek ez zuela estimu handian garai hartako eskola zaharra. Hezkuntzaren inguruan eta eskolara joan beharrari buruz iritziak plazaratzeko honako bertso hau egin zuen:

Nere biotza naigabez zegok
Ezin burutuz inola,
egiyagatik iltzea ere
Etzidak neri ajola.
Bai al dakik gaur zertako duan
Jende berriyak eskola?
Sartu orduko izutzen ditek
Euskaldun aurra, ta nola!
Bi urterako, kastillanotu
Lengo euskaldun arbola.

Esan dudan bezala, bi anaiak idazten ez zekiten, eta beste batzuegana jo behar izaten zuten bertsoak papereratu ahal izateko. Bertsolariok bertsoak inprobisatzen zituzten bitartean, beste pertsona batek idatzi behar izaten zituzten haien hitz neurtuak. Juan Kruz Zapirainen kasuan Mikaelak, emazteak, jasotzen zituen. Joxeren kasuan, ordea, semeren batek, gehienetan Salbadorrek, edo hainbatetan, semea espetxeratu zutenean, Saturnino semearen andregai zenak, Aitzondo baserriko Pilarrek. Azken horrek, Joxeri jaso eta gorde zizkion bertsoak.

2.4. Sendiaren zenbait datu biografiko

Bertsolari eta bertsozale familia honi buruz hainbat idatzizko erreferentzia ditugu. Aipamen biografiko nagusi eta interesgarrienak Auspoa herri literatura saileko liburu-bilduman daude jasota. Besteak beste, nabarmentzekoak

³⁰ ATAÑO (1979) Txantxangorri kantaria. Tolosa, Auspoa.

dira Antonio Zavalak idatzitako *Zapirain anaiak* (1975)³¹ bertso-bilduma, edo Atañok –Salbador Zapirain– idatzitako *Txantxangorri Kantaria* (1979),³² aitararen bizitzaren inguruko biografia nobelatua. Bestalde, ahaztezinak dira Salbador Zapirain sinadurapean argitaratu ziren *Espetxeko negarrak* (1984a)³³ edo *Zigorpean* (1984b)³⁴ izeneko eleberriak. Halaber, interes handikoak dira Manuel Lekuonak ikerlanetan Juan Kruz Zapiraini buruz egin zituen aipamen biografikoak³⁵; eta Jesus Maria Leizaolak erbestean egindako *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca* entsegua (1965)³⁶. Badira, bestalde, han hemenka argitaratu diren aldizkari eta prentsa artikulua. Adibidez, Juan San Martinek 1986an Salbador Zapiraini buruz *Egan* literatura-aldizkarian argitaratu zuen literatur kritika³⁷. Mota horretakoak dira Zapirain anaiei buruz Errenteriako Oarso urtekarian argitaratu izan zirenak edota zenbait elkarrizketa, *Zeruko Argia* eta *Oh Euzkadi* aldizkarietan.

Bertsolaritza Zapirainen etxeko zaletasuna zen, eta etxekoen artean ereiten zuten atxikimendua; hala ere, senitarteko batzuk nabarmendu ziren inprobisazio lanetan; horietatik sortzaile ezagunenak hauexek izan ziren: Jose Bixente Zapirain Esain, Juan Kruz Zapirain Etxeberria eta Joxe Zapirain Aranburu anaiak, Salbador Zapirain Ezeiza –Ataño ezizenez ezagututa– eta, gaur egun, Xanti Zapirain. Belaunaldi bakoitzak izan zuen gutxienez ordez-kari bat.

2.4.1. Aitona, Joxe Bixente

Bertsolari eta bertsozale dinastia honen hastapenean Joxe Bixente Zapirain Esain dugu. Joxe Bixente Zapirain Errenterian jaio zen 1820ko martxoaren 26an. Juan Kruz Zapirain Etxeberria eta Joxe Zapirain Aranburu bertsolarien aita dugu. Haren lehenengo emaztearekin, Felipa Ramona Etxebe-

³¹ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934), Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.

³² ATAÑO (1979) *Txantxangorri Kantaria*. Tolosa, Auspoa.

³³ ZAPIRAIN, Salbador (1984a) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

³⁴ ZAPIRAIN, Salbador (1984b) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

³⁵ LEKUONA, Manuel (1929) “Prologo” in ZAPIRAIN, Juan Kruz eta LEKUONA, Manuel (1929) *Genoveba de Brabante por el “bertsolari” Juan Kruz de Zapirain*. Vitoria, Trabajos del laboratorio de Eusko Folklore.

³⁶ LEIZAOLA, Jesús María (1965) *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vascongada*. Buenos Aires, Ekin.

³⁷ SAN MARTIN, Juan (1986) “Salbador Zapirain –Ataño– Espetxeko negarrak” in *Egan*, 3-4, (210-213).

rriarekin, zortzi seme izan zituen, gazteena, Juan Kruz. Emaztea seme gaztea haur-egitean hil zen (Zavala 1975)³⁸. Handik hiru urtera, Jose Bixente berriro ezkondu zen, Josefa Aranburu Arizmendi emaztetzat hartuta. Bigarren ezkontzan hiru seme-alaba izan zituen, hiruetan zaharrena Joxe Zapirain Aranburu.

Joxe Bixente bertsozale amorratua zen, garai hartan ohi zenez, lagun koardrilan aritzen zen bertsotan ostatu eta sagardotegietan. Ilobak, *Txantxangorri Kantaria* izeneko eleberrian, aitaren ahotsa baliaturik, honela zioen aitona-ren zaletasunari buruz:

“Aita zana ere bertsolaria baizan, bere kideko lagunekin biltzen zanean, bertsoa beste konturik etzebilkiten aiek” (Ataño 1979: 77)

2.4.2. Juan Kruz, anaia nagusia

Juan Kruz Zapirain Etxeberria 1867an Errenteriako Bordaxar baserrian etorri zen mundura.

Salbador Zapirainek *Txantxagorri kantaria* (1979)³⁹ izeneko biografia nobelatuan kontatu zuenez, inguruko herrietako bertsozaleak Bordaxarrera hurbiltzen ziren gai askotako bertsoak eskatzera. Juan Kruzek enkargu haiek hartzen zituen, horrelako hamaika bertso-paper eginak zituen, baina gutxitan sinatzen zuen. Enkarguz egindako bertsoei sinadura jartzea ez zuen gogoko, hain zen apala eta lotsatia (Ataño 1979: 80)⁴⁰. Izaera herabetiak eraginda, ez zitzaion erraza egiten plazaz plaza bertsotan ibiltzea, Juan Kruz ez zen plaza gizona izan. Ongi moldatzen zen, ostera, bertsotan adiskide-talde txikietan. Lagunartean etxean bezala aritzen zen, lasai eta trebe. Horretaz gainera, beste eragozpen bat zeukan jendaurrean kantatzeko, oso ahots apal eta hilekoa zen, Zapiraindar guztiak bezala (Ataño 1979:80)⁴¹. Mende hasieran, gaurko aurrerapen teknologikorik ez eta, herrietako plazetan bertso-gintzan aritzeko eztarri onak behar zituzten bertsolariek.

Bere garaian sona handiko bertsoak sortu zituen; beharbada, ezagunena

³⁸ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiaik. Juan Kruz (1867-1934), Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.

³⁹ ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.

⁴⁰ Ibidem.

⁴¹ Ibidem.

“Brabanteko Genobeba bertso berritan” (1929)⁴² izeneko bertso-sorta da. Juan Kruzek Brabanteko Genobeba deunaren bizitza kontatu zuen 1.300 bertsoan. Bertsolariak inprobisatu egiten zituen bertsoak emazteak liburuaz gaztelaniaz irakurri bitartean. Gauero, afalondoan, emazteak Brabanteko Genobebaren bizitzari buruzko atal batzuk irakurtzen zituen eta, ondoren, Juan Kruzek bertsoak inprobisatzen zituen oheratu aurretik. Memorian gordetzen zituen sortutako bertsoak, eta biharamunean emazteari banan-banan kantatzen zizkion, koaderno batean idatz zitzaizkion.

Manuel Lekuonak honela kontatzen ditu Juan Kruzen sorkuntza eta emaztearen idazketa-lana:

“Gauza da, emazteak irakurri-alean, gure Juan Kruz’i pasadizu haiek bertsoan jartzeko gogoia sartu zitzaizkion. Eta esan-da-egin, gabero sutondoan irakurtzen zana, berak gero, oiean loak artu baino len, dana bertso biritan –puntu luzeko bertsoan– jartzen zuan, eta bigaramonean, lanera joan baino len, dana emazteari buruz kantatzen zion, eta emazteak dana paperean jartzen zuan (Zavalaren lanetik hartua 1975: 68)⁴³”

Hainbat argitalpen izan zituen bertso sorta luze horrek. Manuel Lekuonak zuzendu zuen argitalpen bat *Trabajos del laboratorio de Eusko Folklore* izeneko bilduman. Liburuaren atarikoak Oiartzungo apaiz jakintsuak jarri zion eta lerro horietan argitara eman zuen lehen aldiz Manuel Lekuonak bertsolariari buruz zuen ikuspegia (Lekuona 1995: 112)⁴⁴.

Entzute handikoak izan ziren Juan Kruzen beste zenbait bertso, esaterako “azkeneko gaba” izenburua zeramatenak. Emaztea, Mikaela, hil zitzaion gripearen ondorioz 1918an, azken semea jaio ondorengo egunean. Emazteari, hilzorian zela, jarritako bertso hunkigarriak ziren. Bertso sorta horretarako hiru ahapaldi aukeratu ditut:



Joxe Zapirain

⁴² ZAPIRAIN, Juan Kruz eta LEKUONA, Manuel (1929) *Genobeba de Brabante por el “bertsolari” Juan Kruz de Zapirain*. Vitoria, Trabajos del laboratorio de Eusko Folklore.

⁴³ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934), Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.

⁴⁴ LEKUONA, Juan Mari (1995) “Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan” in *Euskara*, 40 (109-122).

Ipoi txiki bat kontatuko det
gaba eguna aututa,
baju-bajutik atera nua
enago oso altu ta;
daukadalako nere laguna
kanpo santuan sartuta,
etzat biyotza kontsolatutzen
pentsamentu au artuta;
negar malkuak saltatzen zaizkit
despeira akordatuta...

Esan baitziran ara juatian
nitaz oroituko zala,
agindu nyon nola bizi zan
karta bat egin zezala.
banekiyela ura baño len
jakintsu asko jun zala:
lege zarreko profetak eta
Salomon ere an zala;
bañan oraindik iñorengandik
kartik etorri etzala...

Begiyak gora jaso zituen,
burua berriz makurtu;
azkeneko itzak: “Agur betiko,
gaizki eginak barkatu...”
aren anima nora joan zan
nik enezake juzkatu;
Bañan santuak eskatutako
ezer etziyon ukatu...
ezaguera ederrarekin
orra mundua bukatu.

(Zavala 1975: 151)

Behin baino gehiagotan, adiskide eta ezagunek “azken gaba” bertso horiek kanta zitzala eskatzen zioten. Juan Kruzek ez zuen gustuko ariketa: Mikaela emazteari egindako bertsoak besteen aurrean kantatzen zituenean emozioa ezin izaten zuen disimulatu, eta negarrari ematen zion. “Azken gaba” gogora etortzen zitzaion, eta harekin batera emazteak utzi zion hutsu-nea eta alarguntasunaren bakardadea.

Juan Kruz Zapirainen beste bertso batzuk ere gorde dira, horien artean “Ai gure antxineko guraso nobliak” edo “zure pasio santua”.

2.4.3. *Joxe, anaia gaztea*

Joxe Zapirain Aranburu, Joxe Bixente Zapirain eta Josefa Aranbururen semea, 1873an etorri zen mundura, Erreterriako Bordaxar baserrian.

Joxe Zapirainek izandako bertso ekoizpena oso ugaria da, bertso horietako banaka batzuk garaiko zenbait aldizkaritan argitaratu ziren, bai eta *Nire bizitzako bertso batzuek*⁴⁵ liburuan ere. Orokorrean, Joxek sortu zituen bertsoak oso herrikoiak eta entzute handikoak izan ziren. Nahiz eta gai ugari erabili bertsotan, sarri agertzen dira bizitzan zehar izandako bizipen triste eta zorigaitzokoak; esaterako, emaztearen edo semeen heriotzek utzi zioten hutsunea, gai errepikaria da.

Juan Kruz anaiari gertatu bezala, koinata hil eta urtebete beranduago, Joxe alargun geratu zen. Maria Kontzeptzion Ezeiza 1919an hil zen. Baserrian senitarteko guztiak gaixotu ziren Espainiako gripea izeneko izurriteaz. Emazteak, haurra izan berritan, ezin izan zuen gaixotasuna gainditu. Joxe bederatzi semerekin geratu zen baserrian, gazteenak hilabete eskas zuela.

Emaztearen omenez eta alarguntasunak utzi zizkion hutsune eta zorigaitzokoak adierazteko bertso-tara jo zuen Joxek; hemeretzi ahapalditako “Alarguna” izeneko bertso-sorta eta hamazazpiko “Emaztiaren eriotza” sortu zituen, esaterako.

Hona hemen hemeretzi ahapaldiko “Alarguna” sortako lauuko aukera:

2) ... Nere sentimenduak
biar ditut esan,
suerte txarrerako
mundu ontan izan:
gripek arrapatuta
emaztia il zan,
errezatutzen diyot
al dedana elizan,
beratzi semerekin
alargundu nitzan.

3) Semerikan zarrenak
ditu amalau urte,
ta gaztienak berriz
iru hilabete;
oiek gobernatutzen
lana badaukate,
nik emaztia illa,
ez det gutxi kalte,
prueba egin dutenak
sinistuko dute.

⁴⁵ ZAPIRAIN, Joseba (1950?) *Nere bizitzako bertso batzuek*. Erreterria, Makazaga moldiztegia. Begiratu daiteke esteka honen bidez <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/10322> (2012ko azaroaren 19an begiratu).

7) Ez diyot desiatzen
munduan iñori
neri gertatu zaidan
deskalabru ori;
errezatutzen dizkiat
Ama Birjiñari
egunian bi aldiz
zazpi abe mari,
arren pazientziya
emateko neri.

16) Ez izan gezurra dan
errezelorian:
begitik ezin kendu
negar-malkorikan;
ez daukat fiestaik eta
dibersiyorikan,
kasik gabian ez det
egiten lorikan,
iñundikan ez daukat
konsuelorikan.
(Zavala 1975: 199-205)⁴⁶



Joxe Zapirainen bertso-liburua

Eta aurreko gaiarekin jarraituta, hona hemen “Emaztiaren eriotza” izeneko bertso-sortatik hiru bertso:

- 1) Au bakardade penagarriya
lagunekin oituta,
gure Jainkuak elkarrengandik
orain berexi gaitu-ta!
arenganako amoriyua
ez daukat oso aztuta,
nik alegiñak egiten dizkat
denak merezi ditu-ta.
- 3) Au pentsatzian biyotza triste,
negar-malkuak begiyan,
enkargu asko eman zizkiran
mundu ontatik abiyan;
ta esan ziran: “Arkituko naiz
errezuaren premiyan,
al dezuna ondo erakutsiyaz
bizi zere⁴⁷ familiyan.

⁴⁶ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934), Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.

⁴⁷ Antonio Zavalaren liburuan agertzen da “zere”, beharbada “zure” egokiagoa litzateke.

15) “Nere emazte biotzekua,
pena ematen dirazu,
au azkeneko itzaldiya da
eta aditu biazu:
diferentzirik batere gabe
ez gera izan ni ta zu,
gaizki egin ta gaizki esanak
barkatzen al dizkidatzu.
(Zavala 1975: 208-209)⁴⁸

2.4.4. *Salbador, biloba*

Salbador Zapirain Ezeiza, Joxeren semea, 1912an jaio zen Bordaxarren.

Espainiako Gerra Zibilak markatu zuen Salbadorren bizitza. Helduarooan literatur ekoizpen luzea idatzi zuen, Hondarribiko monjeen etxean baratzeko lanak uzten zion denbora librean. Hamahiru urterekin apaizgaitegira joan zen, baina ez omen zuen bokazio nahikorik eta utzi egin zuen. Hamabost urte beranduago, espetxetik irtenda eta garaiko giroaz nazkatuta, fraide kaputxino sartu zen.

Nobelak eta narratioak argitaratzen hasi baino lehen, makina bat bertso idatzi eta argitara eman zituen Salbadorrek, batzuk jada aipatutako aitaren liburuan, beste batzuk *Zeruko Argia* aldizkarian. Bertso horiek argitaratzeko ezizenak erabili zituen: Ataña edo Txoritoki.

Nahiz eta, bertsoarako zaletasuna txikitatik izanik, hamar urterako bertsoak idazten hasia zen, Salbador idazle berantiarra izan zen. Hasieran “Ataña” ezizena erabili zuen, baina *Espetxeko negarrak* liburua argitara-



Salbador Zapirain

⁴⁸ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934), Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.

tzearekin batera erabaki zuen handik aurrera benetako izen eta abizenez sinatu behar zituela liburua.

Antonio Zavalaren babes eta laguntzaz, "Auspoa" argialetxean, aitaren bizitzari buruzko *Txantxangorri kantaria* kontakizun luzea plazaratu zuen 1979an. Arrakasta handia izan zuen. Geroztik, beste liburu batzuk eman zituen, erdi autobiografikoak, erdi fikziozkoak, guztiak Auspoa argialetxean. Harenak dira, besteak beste: *Txantxangorri kantaria* (1979), *Txori* (1981), *San Frantzisko-ren bizitza* (1981), *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean* (1984); *Eltzaorra* (1985), *Odolkutsua* (1986), *Maitasunaren lanak* (1988), *Etorbizuna* (1988), *Maite itzazute etsaiak* (1989), *Aztia usnari* (1990), *Azkeneko saskigillea* (1991), *Lotsaren iges* (1995), *Askatasun billa* (1996), *Gorrotoa ondareztat* (2000), *Jesusen bizitza* (2001) eta bi kontakizun liburu batean: *Markesgaiak eta Dirua Jainko* (2002).

Orokorrean, Salbadorren nobelak kostunbristak dira. Egituretan ahozko-tasunaren eragin zuzena ikus daiteke, badirudi oinarrian ahoz eta jendaurrean kontatzeko narrazioak direla. Egileak zerabiltzan esaldiak motzak eta zuzenak dira, estilo xumez idatziak. Salbadorrek berak ezagutu eta desagertzen ari zen munduaz ari zaigu idazlea. Bestalde, tragediarako joera du, beharbada bizi izan zuen bizitzak eraginda.

Salbadorrek Zapirain-Ezeiza familiaren tragedia trilogia batean azaldu zuen: Lehenik, *Txantxangorri kantaria* izeneko liburuan. Idazlan hori aitaren biografia nobelatua da, eta hor aitaren ikuspegitik kontatzen ditu bizitutako gertaera batzuk, horien artean gerrakoak. *Espetxeko negarrak* liburu autobiografikoan Ondarretako presondegian bizi izandako pasarteak ekartzen ditu: atxiloketa, gerra kontseilua, zigorrak eta bi anaien fusilamendua. Azkenik, *Zigorpean* izeneko liburu autobiografikoan, San Kristobal gotorlekuan emandako urteak nolakoak izan ziren azaltzen du.

Badirudi aipatu nobela autobiografikoak argitaratu baino lehen, hogeita hamar urte lehenago, idatziak zituela Salbadorrek. Koadernoan zertxobait idatzi eta hautsi, beste zertxobait idatzi eta erre; horrela aritu zen urteetan. Azkenean bi nobelak amaitu zituen, baina errejimen frankista indarrean zegoen eta diktadoreak botereari eutsi bitartean ezin zituen inolaz ere liburuok argitaratu. Aita zenak esaten omen zion bertsoz kantatu ezean leher-tu egingo zela. Bada, Salbador ere lehertzeko zorian egon zen, berak bizitakoa kontatu ezin zuenez.

2.4.5. Xanti, birbiloba

Xanti Zapirain Elizalde 1953an jaio zen Altzako Sindikatu baserrian. Juan Kruz Zapirain Ezeizaren semea da.

Xanti Zapirainek hainbat aldizkaritan idatzi ditu bertsoak. Familiari eta bizitzari buruz gordetako hainbat oroitzapen eta emozio (aitonak egiten zuen bezala,) bertsoak kantatuz plazaratu ditu. Eleberri bat idatzia du, *Bizi behar dugu* (2005).⁴⁹ Horrez gain, zenbait blogen egilea eta sustatzailea da.

Aitona Joxek bere garaian egin zuen bezala, Xanti Zapirainek ere bertsolaritza darabil barneko sentimenduak ateratzeko: “norbere burua salbatzeko modu bat”⁵⁰. Iparraldean bizi zela, GALen ekintzetatik burua babestuz, lau urte egon zen ezkutuan. Ezkutuan egon zen bitartean, emazteak gordeta zegoen etxe aurreko jolastokira eramaten zituen alabak, aita leihotik ikus zitzan. Besterik egin ezin zuenez, bertsoak idazten zituen, familia tradizioari eutsiz, egoerak sortzen zion ezintasuna gainditu nahian.

Familiako tradizio bertsozalea aitortzen du honako bertso honetan:

Aitonak eman zidan bertsoa,
aitak jarri zuen mamia
Amak eman dit olerkariko
goxotasun berezia
Bordaxarretik Martilun arte
hor dago nire kabia,
Hor jaio dira nire bertsoak
eta nire olerkia.⁵¹

⁴⁹ ZAPIRAIN, Xanti (2005) *Bizi behar dugu*. Tafalla, Txalaparta.

⁵⁰ BERTSOLARI (2001) “Xanti Zapirain, gordelekuan bertso jartzaile egin zen gizona” 41 (66-76).

⁵¹ <http://martillungosindikatu.blogspot.com.es/2008/08/beno-lagunsartu-dizut-txapa-piskat-eta.html>

(2012ko azaroaren 19an begiratua).

3. Gerraren oroitzapen mingarriak

“... badituk, guk artzen degun lekura atzetik automobillean datozenak. Oiek dituk gaiztoak, oiek beldurgarriak... Beren paperetan zekartek guzia idatzita: zein il bear dituzten, nori multa kendu bear dieten.” (Zapirain 1984: 58)⁵²

3.1. Altxamendua eta Gerra zibila

Gerraren hasierako egunak oso nahasiak izan ziren Gipuzkoan, gehienbat Donostia eta hiriburuaren inguruko herrietan. Hala ere, soldadu nazionalak oso egun gutxi behar izan zituzten sartu eta lurralde gehiena bereganatzeko. 1936ko urriaren erdirako Gipuzkoako udalerrri gehienak tropa nazionalen agintepean zeuden jadanik. Izan ere, Mola Jeneralaren agindupean, Nafarroatik abiatu ziren erasotzaile militarrek bi hilabete eskas behar izan zituzten lurraldea menderatu ahal izateko (Chueca 1997: 22)⁵³.

Afrikako matxinada lehertu zenean, errepublikazaleek Loiolako kuarteleko altxamendu militarra bertan behera utzi ahal izan zuten, eta Donostiak bi hilabetez errepublikari leiala izaten jarraitu zuen. Donostiako militarren altxamendu saiakerak arrakasta lortu ez zuenez, Nafarroako karlistak, Mola jeneralaren agindupean, Donostia konkistatzen saiatu ziren Tolosa eta Andoaingo udalerrietako mendietatik abiatuta. Halaber, Gipuzkoako iparraldean, Oiartzun eta Errenteriatik abiatuta, eraso gogorak pairatu zituzten gipuzkoarrek.

⁵² ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁵³ CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Luis (1997) *Espainiako Gerra zibila Euskal Herrian*. Donostia, Euskaldunen egunkaria.

Uztailean errepublikazale taldeek eta agintariak lurraldeko herrietan defenza-batzordeak eratu zituzten. Donostiako Batzordean alderdi ezkertiarrek nagusi ziren. Anarkistek Donostiako Komuna deitu zioten Gipuzkoako hiriburuan egokitu zen egoera hari, Frantziako hiriburuan 1871n gertaturiko *commune* gogora ekarrita (Chiapuso 1977)⁵⁴.

Loiolako kuartelen errendizioaren ondoren, lurraldeko alderdirik ahulena Errenterialdea zen. Esan bezala, abuztu osoan Oiartzungo bailararen inguruko mendiko bideetan Francoren aldekoen mugimenduak ikusgarriak ziren eta, tropa horien mugimenduak galarazteko, tiroketa eta erasoaldi gogorrek gertatu ziren. 1936ko abuztuaren bukaeran, nafar erreketean erasoak zapuzteko, errepublikazaleek Errenteriako Agustinak auzoko lurrak bonbardatu zituzten San Markoko gotorlekutik, frankisten aurrera egitea deuseztatu nahian.

Irailaren 4an, Beorlegi koronelaren zutabea, ejertzitoaren tanke eta hegazkinen laguntzaz, Irungo hirigunean sartu zen (BARRUSO 2003: 32)⁵⁵. Bi aldeen egoera animikoa erabat irauli zen matxinoek Irun hiria hartu zutenean. Soldadu nazionalak Errenteriara eta Oiartzuna errepidez joan ahal izan ziren, eta bi herrigune horietara arriskuz hurbildu ziren. Errepublikazaleek, berriz, ezintasunez ikusi zuten nola erortzen ziren frankisten aurkako babesak, esfortzu handiz eraiki zituztenak.

Frantziako muga kontrolpean zuelarik, Mola jeneralaren hurrengo helburua Gipuzkoako hiriburua hartzea zen.

Irailaren 12an Astigarragako Santiago Mendi gaina hartu zuten txapelgorriek, eta errepublikazaleek, inguratuta geratzeko beldurrez, San Marko eta Txoritokietako gotorlekuak abandonatu zituzten; azkenik, Errenteria defendatzeko azken saiakerak ezerezean geratu ziren.

Bigarren karlistaldian gertatu zen bezala, Zapirain Ezeiza familiaren base-rria gatazka-lekuaren erdian zegoen berriro ere, bi kilometro ingurura baitzeuden San Marko eta Txoritokieta gotorlekuak. Beraz, etxeko ataritik ikusi ahal zituzten alde bateko eta besteko soldaduen ibilerak.

Apenas bi hilabeteko erasoaldiaren ondoren, 1936ko irailaren 13an, goizean goiz, Mola Jeneralaren guda-taldeak sartu ziren Errenterian eta Pasaian.

⁵⁴ CHIAPUSO, Manuel (1977) *Los anarquistas y la Guerra de Euskadi. La Comuna de San Sebastián*. Donostia, Txertoa.

⁵⁵ BARRUSO BARES, Pedro. *Destrucción de una ciudad y construcción del nuevo estado. Irún en el primer franquismo (1936-1945)*. Irún: Ayuntamiento de Irún, 2003.

Beorlegi Koronelaren zutabeak honela jakinarazi zien eraso agintari matxinatuei, Errenteria eta Pasaiaiko herri-guneetan sartu zirenean:

“A primera hora de la mañana se tiene noticia de que la población de Rentería está vacía. En vista de esto se organiza, con toda rapidez, una columna a las ordenes del Comandante Becerra, constituida por las compañías que guarnecen el frente de Oyarzun. Esta columna ocupa sin resistencia Rentería y Pasajes” (Barrusotik hartua 1993: 65)⁵⁶

Igandean bertan, goizean, armada frankistaren zutabe karlista batek Hernaniko herrigunea hartu zuen. Bitartean, Donostialdea bailarako herrietako gerra egoera ikusita, Donostiako portuan gizon eta emakume ugari baporeetan itsasontziratu ziren leku seguruen bila; beste batzuek, ordea, kamioiak erabili zituzten ihesaldian. Azken horiek Orioko errepidea hartu zuten, Bizkai alderantz ihes egiteko.

Ilunabarrean ejertzito nazionalak Tolosa eta Hernaniko errepidetik sartu ziren Donostian, militar altxatuen eta zaleen etengabeko prozesioan.

Hurrengo egunean, agorrikak amairu, sartu itun Donostia'n...Oiarzun'dik eta Errenteri'tik zetozen bideak, gure etxe aurrean egiten ziteken bat; eta emendik, Konkorrere'n beera, Donostiara jexten uan.” (Zapirain, 1984: 24)⁵⁷

Gipuzkoako hiriburuaren defentsaren borrokan zebiltzan azken gudari eta errepublikazaleak itsasoratu bezain azkar, Mirakruz gainetik lehen talde erreketea, Ureta kapitainaren agindupeko Lakar tertzioko artaxoarren osatua, Donostiako erdigunera sartu zen (Chueca 1997: 23)⁵⁸. Erreketek Errenteria eta Pasaia zeharkatzen zuen errepidea hartuta joan ziren Donostiara eragozpen handirik gabe. Ordu batzuk beranduago, arratsaldeko hiruretan, hiriburura iritsi ziren Irundik zetozen Beorlegi komandantearen agindupekoak eta Esparzaren artilleroak.

Pedro Barruso (1993)⁵⁹ historialari gipuzkoarraren arabera, hiru epe nagusitan laburbil daitezke nazionalak Oiartzun bailarako herrietan sartu arte gerrak izandako gertaera aipagarrienak:

⁵⁶ BARRUSO BARES, Pedro (1993) “La guerra civil en Rentería (Julio-Septiembre de 1936)” *Bilduma* 7 (47-73).

⁵⁷ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁵⁸ CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Luis (1997) *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*. Donostia, Euskaldunen egunkaria.

⁵⁹ BARRUSO BARES, Pedro (1993) “La guerra civil en Rentería (Julio-Septiembre de 1936)” *Bilduma* 7 (47-73).

1. Estatu kolpea eman zuten astean gertatu ziren lehenengo mugimenduak. Nafarroatik abiatu ziren soldadu matxinatuak Irungo muga kontrolpean hartzeko. Errepidez Irunera hurbildu ezin zirenez, errepublikazaleek Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen zuen Endarlatsako zubia txikitu baitzuten, mendiz iristeko lehenengo saioak egin zituzten.
2. Uztailaren 23tik abuztuaren 5erako hamabostaldian Beorlegi Komandantearen soldaduek aurrera egin zuten. Irungo Ergoien-San Martzial mendien ingurutik abiatu ziren Iparraldeko mugarantz. Hurrengo helburu militarra lurraldeko hiriburua hartzea zen.
3. Abuztuaren 5etik irailaren 13rako denbora tartean matxinatuen erasoak ugaritu ziren, Irun eta Hondarribia menpean hartu eta gero. Babesleku errepublikarrei eraso zieten (San Marko eta Txoritokieta gotorlekuak). Ondoren Errenteria eta Pasaian sartu ziren, eta Donostiara sartzeko bidea libre ukan zuten.

Frankistek hartutako eremuen kontrola aztertzeko, nahitaezko erreferentzia da matxinatuek ezarri zuten errepresioa edo izua. Hasierako uneetan herri hartuetako bizilagunak izutu eta kontrolpean jarri zituzten, arriskuak izan zitezkeen elementuak atxilotu edo fusilatu, balizko disidentzia saioak gogorki suntsitzeko asmotan. Horrez gain, herritarrenganako presio sistematikoa, aurkarien ondasunen konfiskazioak, bazterketa soziala eta balio tradizionaletan eta garaileen memorian oinarritutako hezkuntza eta bizimodu hedarazi zituzten bazterrik bazter.

Halaber, uztailaren 28an, estatu kolpea eman eta egun gutxitara, gerra egoera ezarri zuten matxinatuek. Dekretu haren bitartez, gertakari guztiak epai militarren eskuetan jarri zituzten. Beraz, lurralde hartuetan agintari berrien indarkeria eta ankerkeria ez ziren amaitu ondorengo egun, hilabete eta urteetan. Aizitik, areagotu egin zen errepresioa. Epaketarik gabeko fusilamenduak, bereizi gabeko purgak, mendeku mozorrotuak, neurrigabeko isunak, zentzurik gabeko atxilotetak eta antzeko ankerkeriak hedatu ziren lurralde okupatuetan.

Koldo Mitxelenak, filologo errenteriarra, bere larruan ezagutu zuen lehenengo egunetako errepresioa eta, elkarrizketa batean, honako zehaztasunak eman zituen ikusi zuenari buruz: Sartu bezain pronto, indar faxistek Errenteriako 8 bizilagun fusilatu zituzten, horietatik 3 alderdi sozialistakoak eta gainontzeko besteak abertzaleak. Halaber, lehenengo egunetan atxilotu ugari eta talde politikoen ondasun guztiak konfiskatuak izan ziren. Gero, konfiskatutako ondasun haiek enkantean jarri zituzten (Barruso 1993)⁶⁰.

⁶⁰ BARRUSO BARES, Pedro (1993) "La guerra civil en Rentería (Julio-Septiembre de 1936)" *Bilduma* 7 (47-73).

Erreterian bezala, inguruko herrietan ere atxilotu ugari egon ziren. Donostian, adibidez, Ondarreta eta Zapatari izeneko espetxeak, Boulevardeko Falangeren egoitza, Prim kaleko zaharren egoitza eta Kursaal aretoa atxilotuz bete zituzten. Bizpahiru mila gipuzkoar igaro ziren atxiloketa-gune haietatik (Egaña 2009)⁶¹. 1936ko azken hilabeteetan atxiloketak areagotu egin ziren, kasu gehienetan frankistek ezarritako isunak ez ordaintzeagatik (Aizpurua 2007: 121)⁶²

3.2. Atxiloketa, gurutze-bide sinestezina

Zapiraindarren etxe aurretik igaro ziren Nafarroako tertzioko erreketek Gipuzkoako hiriburura bidean. Txapelgorri haietako batzuk baserriko atarira sartu ziren, egarria etxeko iturriko ur freskoaz kentze aldera. Edatera hurbildu zen erreketek euskaldun batek honela ohartarazi zituen etxeoak:

“... badituk, guk artzen degun lekura atzetik automobillean datozenak. Oiek dituk gaiztoak, oiek beldurgarriak... Beren paperetan zekartek guzia idatzita: zein il bear dituzten, nori multa kendu bear dieten.” (Zapirain 1984: 58)⁶³

Irailaren 14an, Bordaxar baserriko sukaldean, aita zazpi semeekin bazkaltzen ari zen bitartean, etxe atarian oihu, birao eta zalaparta ugari entzun ziren: bezperan bertatik igarotako erreketek eta guardia zibilak ziren. San Markoko gotorlekuan finkatuak ziren jadanik bizilagun berriak.

Baserriko sukalderaino sartu ziren txapelgorri eta txapeloker armatuak, oihuka eta mehatxuka. Etxeko gela guztiak goitik behera miatu zituzten; sukaldeko mahaia eta armairua irauli, geletako mesanotxeak txikitu eta ukui-lua hankaz gora jarri zuten. Etxean zerbait susmagarria aurkitu behar zuten. Bordaxarreko teilatu azpian Zapirain familiaren batasuna eta arima babestu ziren belaunaldiz belaunaldi, aitonaren aitona-amonak etxe horretan bizi izan ziren, Loiolako Inazio Paristik zetorrela etxeko bidean Bordaxarren ostatu hartu zuela zioten (Zapirain 1979)⁶⁴. Gipuzkoako patrioiak zerbaitengatik aukeratuko zuen teilatu hura. Orain kanpotar batzuk, armak erabilia, etxeko armonia bortxatzen ari ziren.

⁶¹ EGAÑA, Iñaki (2009) *Los crímenes de Franco en Euskal Herria (1936-1940)* Tafalla, Txalaparta.

⁶² AIZPURUA, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

⁶³ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁶⁴ ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.



San Markoko gotorlekua

Ehizarako hiru eskopeta zahar herdoildu, hamarka kartutxo, perdigoiak eta 2.000 pezeta izan ziren etxean aurkitu zuten guztia. Armak agintarien esku jarri ez izana izan zen lehenengo akusazioa (Aizpuru 2007: 119)⁶⁵. Atzemaniko ondasun subertsiboa ez zitzairen nahikoa iruditu matxinoei, beste zerbait aurkituko zuten ongi miatuz gero. Badaezpada, atxilotutako Zapiraindarrak San Marko gotorlekura eraman zituzten gatibu.

Susmo guztien arabera, bizilagun batek salatu omen zituen Bordaxarrekoak, horregatik azaldu ziren militarrek etxean arratsalde hartan. Zapiraindarrak abertzaleak eta euskaltzaleak ziren, baina inork ezin zituen lerrokatu alderdi batean edo bestean, euren mundua zen familia, baserriko lana, eta kezka edo jakin-min politikoak ez ziren kentzen denbora asko. Dena den, indar frankisten pentsaeraren arabera, altxamendu nazionalaren alde ez zeudenak etsaiak ziren; beraz, zigorra merezi zuten.

Zapiraindarrak atxilotzeko etxean atzemandako armak erabili zituzten argudiotzat lehenengo momentuan. Geroago akusazioa korapilatu egin zen:

⁶⁵ AIZPURU, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

bi anaia zaharrenak Euzko Jaurlaritzaren zerbitzuan lerrokatu omen ziren eta Bilbora joanak ziren gudarostean parte-hartzeko. San Marko gotorlekuan atxiloturik zeudela, erreketek batek esan zien bi anaia zaharren erabakiak familia osoa kondenatzen zuela, frankisten esku zeudela eta ez zirela libratuko.

Familian ezin zuten sinetsi gertatzen ari zitzaiena: bat-batean, konturatu orduko, borrokaren zurrunbiloaren erdi-erdian zeuden. Garaiko abertzale gipuzkoar askok bezala, Zapiraindarrei ez zitzaien bururatu arazorik izango zutenik, ez zuten ezer txarririk egin eta. Horregatik, nahiz eta agintari berriak izan, buruhauste handirik ez zutela izango pentsatu zuten. Zentzu bertsuan, Gipuzkoako herri askotan, familia abertzale ugari etxeetan geratu ziren frankistak iritsi zirenean. Usteak erdi ustel, eta abertzaleak ziren atxilotu eta erre-presaliatu asko, errepublika garaiko une zailenetan elizak eta apaizak babes-ten ibilitakoak (Aizpuru 2007).⁶⁶

Juan de Iturraldek *La Guerra de Franco, los vascos y la iglesia* (1978) izeneko liburuan garai hartako abertzale batzuen jokaeraren zenbait adibide jaso zituen. Martin Lekuona oiartzuar apaizarena izan zen azpimarratzeko moduko bat. Manuel Lekuonaren anaia Errenteriako apaiza zen, nabarmena eskal sindikalismo katolikoan. Molaren ejertzittoa Errenterian sartu zenean, herriko bizilagun batek aholkatu zion hobe zuela Bizkai aldera ihes egitea, baina Martin Lekuonak erantzun omen zion ez zuela horretarako beharrik, gehienez isunen bat edo beste jarriko ziotela, baina berak jarraitu behar zuela (Iturralde 1978: 361)⁶⁷. Urriaren bukaeran atxilotu eta azaroaren 4an Ondarretara eraman zuten. Han lau egunez egon zen preso eta bosgarrenean, gaueko txango batean, Galarretan, Hernani ondoan, fusilatu zuten.

“Anai bat aurretik, zaldi sokatik zuela; beste gañerakoak atzetik. Gu aita eta zazpi anai, beste auzoko bi gazte, pusilladunen aurrean eraman gaitziken” (Zapirain 1984: 58)

Joxe zaharrarekin hasi ziren galdeketak, behin baino gehiagotan saiatu ziren galdetzaileak seme zaharrei buruz informazioa lortzen, afera harekin eta atzemandako eskopetekin erotu nahi zuten. Hala ere, Joxek ezin zien militarrei informazio ugari eskaini. Alde batetik, bi seme zaharren egonlekua

⁶⁶ AIZPURU, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

⁶⁷ ITURRALDE, Juan (1978) *La guerra de Franco, los vascos y la iglesia II. Cómo pudo seguir y triunfar la guerra*. Donostia, Egileak argitaratua.

ezagutzen ez zuelako eta, bestetik, zailtasun handiegiak zituelako gaztelaniaz zer esaten zuten ulertzeko, are gehiago gaztelaniaz zer edo zer adierazteko. Joxerekin alferrik ari zirela konturatzean, libre utzi zuten.

Zapirain zaharra oinez itzuli zen etxera. Baserri maitea hutsik, gela guztiak hankaz gora, zakurrak etxe bueltan eta baratzean dozena erdi bat oilo barreiatu zituen zain. Horiek izan ziren erreketen lapurretatik salbu geratu ziren apurrak. Gau osoan lo egin gabeko nekeaz, Joxe ohera sartu zen. Etzanda egon zen gogaikarri, alde batetik bestera, zer egin ez zekiela; guardia zibilak, erreketek, soldaduak eta semeen patua buruan zituen, jira biraka. Gaua ere loak hartu ezinik igaro zuen, leihotik eguzkiak logela noiz argituko zuen itxaroten.

Askatasuna berreskuratu arren, Joxek bizipen paradoxiko eta kontraesan-korrek zituen bere baitan: etxean zen, baina une hartan nahiago zuen semeekin batera atxilotuta egon. Joxek bere bizitzan zehar sufrimendu asko bizi izan zituen (gerra karlistak, emaztearen heriotza...), baina atxiloketaren esperientzia marka sakona uzten ari zitzaion bihotzean. Zauri sakona eragiten zion semeak artean bahitzaileen eskuetan zeudela pentsatzeak. Atxiloketak Joxeren barneko oreka mugiarazi zuen.

Familia osoa injustizia larria ari zen pairatzen eta ezin zuen inorengana jo, ezin zion Joxek poliziarri deitu, ezin zuen jasandako bidegabekeria epaitegietan salatu, ezin zuen inon babesa eskatu, guztiz babesgabe zegoen. Etxean zeuden babes, segurtasun, konfiantza eta amodiozko harremanak oldarka suntsitu zituzten, kontratu sozialaren oinarrien aurkako erasoaldi masiboa izan zen (Robben 2006: 11).⁶⁸ Errealitate berri haren kodeak ezezagunak ziren, eta sinestunek Jainkoarengan bakar-bakarrik izan zezaketen itxaropen apurra.

Lehenengo eguzki printzekin batera, Joxe ohetik altxatu zen. Sukaldeko harraskan aurpegia garbitu eta hiru egunetako bizarra kendu ondoren, Errenteriara jaitsi zen. Gau luzean pentsatu zuen zer egin zezakeen, semeak libre jar zitzaizkion. Herrian bizi zen Juan Jose iloba-apaizarengana zuzentzea otu zitzaion. Arrebaren semea oso ezaguna zen herrian, karlisten jarraitzaile amorratua, eta Joxek bazekien matxinatuekin harreman errazak zituela –irailaren 15ean, herriko udalbatza berria osatu zutenean, Juan Jose zinegotzi

⁶⁸ ROBBEN, Antonius G. C. M. (2006) "El asalto a la Confianza Básica: Desaparición, protesta y reentierros en Argentina" in *Cuadernos de Antropología* 24 (11-49).

izendatu zuten– (Barruso 1993)⁶⁹. Laguntza eskatu behar zion, semeen askatasuna lortzeko pertsonarik egokiena bera zen: familiakoa, apaiza eta karlista.

Ilobak ez zion erantzun Joxek espero zuen bezala, ez zion kasurik eman, Joxeren laguntza-erreguari jaramonik egin gabe, purrustaka erantzun zion. Juan Jose ilobak erakutsi zituen hoztasunak eta gizagabetasunak beste urradura bat eragin zioten bihotzean osabari. Joxek arrebaren etxetik alde egin zuen erremindua, etsita, zuen esperantza urria zartatuta.

Garai hartako euskaldun asko bezala, Joxe sinestuna zen, euskaldun fededunaren eredu. Baserriko lanek uzten zioten jai guztietan elizara joaten zen zintzoki, herriko parrokoak oso ongi ezagutzen zuen Zapirain sendiaren kristautasuna, eta estimu handitan zuten familia herriko elizgizonek. Ilobarekin egindako saioa zela eta, etsita, Errenteriako parroko zaharrarengana jo zuen, semeak askatzeko laguntza edo bestelako zerbait lor zezakeelako ustean.

Begietan malkoak zituela eskatu zion parrokoari esku har zezan, baina apaiz zaharrak ez zion arretarik jarri laguntza-erreguari. Joxeren larrialdiko erreguaren aurrean parrokoaren erantzuna hauxe izan zen: “lasai, lasai, Joxe, utzizu Jainkoari behar den lana egiten, bera baita guztiahalduna”. Horretaz gainera, herriko parrokoak azaldu zion atxilotuak kristau onen eskuetan zeudela, harrotasunez eta duintasunez nazionales kristauen ikurra zeramatela, eta atxilotzen zituzten gatibuak oso ongi zaintzen zituztela, ez miliziano errepublikazale bihozgabeek bezala.

Joxek ezin zuen apaizaren erretolika entzun, mina egiten zioten parrokoaren hitzek. Horregatik, Errenteriako herriko plaza gurutzatu eta udaletxera abiatu zen. Herriko matxinatuen artean bazituen ezagun batzuk. Juan Jose ilobarekin batera Bordaxarrera joanak ziren askotan Errenteriako karlisten buruzagiak. Haiengana jo beharko zuen laguntza eske, semeak aska zitzaten. Hori eta beste hamaika gehiago egiteko prest zegoen.

Jakina, txapelgorriz beterik zegoen eraikina, eskailera, atondo, areto eta bulego guztiak hartuak zituzten militarrek. Eskailera eta korridoretan barrena, zibil bakan batzuk, eta haiek, Joxe bezala, handik eta hemendik zebiltzan atxilotu eta desagertutako senitartekoei buruzko informazio bila. Udaletxean ezagunik ez zuen topatu, inork ez zion jaramonik egin, inork ez zion galderarik egin eta Joxek, etsita, etxerako bidea hartu zuen. Joxeren buru zaha-

⁶⁹ BARRUSO, Pedro (1993) “La guerra civil en Rentería (Julio-Septiembre de 1936)” *Bilduma* 7 (47-73).

rraren baitan gero eta kezka handiagoa zebilen, sabelean piztu zitzaion zurrunbiloa ezin zuen maneiatu, seme atxilotuen zorigaitza zama itzela zen, eta nekez eraman zezakeen.

Itzulerako bidea inoiz baino neketsuagoa iruditu zitzaion. Baserrian moka-
du bat jan zuen, eta etxeko beharrei ekin zien. Arratsalde erdian, etxe aurre-
ko bidean ahots batzuk entzun zituen, ezagunak omen ziren, zakurrek ez
baitzuten zaunkarik egin. “Aita!, aita!” esaten zutela iruditu zitzaion, eta ata-
rira irten zen; hiru seme gazteenak ziren, Bordaxarren zeuden berriro ere.

“Bazkalondoan, sega pikatzen ari nintzela, etorri itun iru seme gaztee-
nak, oso triste gaiñera. San Markos'tik Errenderia'ra eraman eta eguartea
an igaro ondoren, lau Donostia'ra ta beste irurak etxera biali zituztela.”
(Ataño 1979: 223)⁷⁰

Begi nekatuek negar malkoei eutsi ezinik, besarkatu zuten elkar. Semeek
kontatu zioten oso latzak izan zirela San Marko gotorlekuko ziegetan pasa-
tutako bi egunak, anaien artean ez zutela harremanik izan, ezin ziotela elka-
rri ezer esan, ez eta animo izpirik eman ere. Joxeri, berriz, hitz solte batzuk
zerizkion: “nire semiak, nire semiak...”. Berriro ere, zentzurik gabeko aba-
gunea bizi behar izan zuen, ez zuen ulertzen zergatik hiru seme askatu zituz-
ten eta beste laurak, besteak bezain seme errugabeak, frankisten ziegetan
zeuden.

Etxera itzuli ziren semeek atxiloturik jarraitzen zuten anaien patuari
buruz zituzten berriak ez omen ziren batere onak: entzun omen zuten Jose
Ramon, Antonio, Salvador eta Juan Jose Donostiako Ondarreta izeneko
espetxera eraman behar zituztela, eta beharbada han zeuden ordurako. Bazi-
rudien etxean atzemandako perdigoi-poltsa eta hiru eskopeta zaharreatatik
gerra kontseilu guztiz sumarioan epaituko zituztela. Honela entzun omen
zuen semeetako batek.

“... Lau zarrenak eskatu omen zizkin, baña izenez deitu eta laugarrena-
ren lekuan bosgarrena aurrera biali. Ori zeñen lana zan jakiteko, buruaus-
te andirik ez nin ibili. Oso oker ez banago, nere illoba maitearen lana uan
ori” (Ataño 1979: 224)⁷¹.

Lurak, aita eta hiru seme, mahaiaren inguruan eseri ziren zerbait afal-
tzeko. Joxe, gauero afalostean egin ohi zuen bezala, gau hartan ere, bertso-

⁷⁰ ATAÑO (1979) *Txantxangorri Kantaria*. Tolosa, Auspoa.

⁷¹ *Ibidem*.

tan aritu zen. Gau hartako bertsoa ez zitzaion jario besteetan bezala. Joxek, tristuraz beterik, burua erabat nahastuta zuen eta eztarria, berriz, urratuta. Sei seme etxetik falta izanak eragiten zizkion larritasuna eta egonezina ezin zituen gogotik kendu. Sukaldearen inguruan eta bihotz barruan sumatzen zuen hutsunea oso bortitza zen, eta zuloa gero eta handiago egiten ari zitzaion.

Une hartan, barnean zituen kezka eta buruhauste desatseginak exortzizatu nahi zituen Joxek. Hobekien zekien moduan egin zuen, bertso batzuk inprobisatuz:

Sentimendu asko dauzkat nerekin
orain kontatu biarrak
Ez dakit nola zuzenduko'iran
Egin dituzten okerrak;
Pazientzitik ez naiz atera
Jaungoikoari eskerrak,
Leku askotan jarri dituzte
Tristura eta negarrak,
Len amar lagun giñan etxian
Ta orain iru bakarrak.

4. Infernuaren atarian

Nire begiak itzultzen ditut
poz pixar bat artu nairik,
bañan alperrik, ez det ikusten
inon arpegi alairik
(Zapirain 1984: 145)⁷²

4.1. Gorrota ezazu delitua eta erruki ezazu delitugilea⁷³

Biharamunean, goizeko lehen orduetan, auzoko bizilagun bat Bordaxarrera hurbildu zen. Donostiako Ondarreta izeneko espetxean zaintzaile-lanean aritutakoa zen hura. Auzokideak Joxeri jakinarazi zion lau semeak Ondarretako espetxera eramán zituztela. Besteak beste, auzokideak baieztatu zion bezperan seme askatu berriek aipatu ziotena; hots, Gerra Kontseilu guztiz sumarioan epaitu behar zituztela laurak. Auzokideak gaineratu zuen ez zekizkiela zehatz-mehatz akusazioaren zioak, baina laster etxera etorriko zirela. Beharbada ez zuen Joxe gehiago larritu nahi.

Zapiraindar lau anaien akusazioaz eta atxiloketaren inguruan gertutakoaz, honako hau zehaztu zuen Errenteriako komandante militarrek, Gipuzkoako hiriburuko agintariei bidalitako gutunean:

“Tengo el honor de remitir a V. S. en calidad de detenidos a los cuatro hermanos del margen; el primero de ellos extremista, y los demás nacionalistas militantes, en cuyo caserío de “Bordaza”, cerca del fuerte de San Marcos se encontraron once escopetas de dos cañones y dos de un cañon, ocho sacos de pólvora, un cerrojo de fusil pequeño, seis cajas de pistones,

⁷² ZAPIRAIN, Salvador (1944) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁷³ Esaldi hori Ondarreta espetxeko ateburuan idatzita zegoen.

veinticinco cartuchos cargados, cincuenta id. vacíos y mil ciento cincuenta y cinco pesetas.

Los efectos de armamento quedan depositados en el depósito de armamentos de Rentería y el dinero en la depositaría de dicho ayuntamiento para responder de las responsabilidades civiles y materiales derivadas de esta familia en el Frente Popular, pues que tiene otros dos hermanos combatientes en las milicias rojas.

Dicho armamento y metálico lo ha intervenido y me lo remite el Capitán Villanova que guarnece el fuerte de San Marcos.

Rentería, 15 de septiembre de 1936.

El Comandante Militar, Francisco Becuse".⁷⁴

Agintari militar frankistek Gipuzkoako Ondarreta espetxean sartu zituzten lehenengo presoak lau Zapiraindar anaiak izan ziren. Agian, lau anaiok ez zuten eragozpen handirik izan Ondarretatik ihes egin ahal izateko; baina presondegian geratu ziren. Alde batetik, gerra-giro hartan norabiderik gabeko ihesa arriskutsua izan zitekeen; bestetik, errugabeak ziren; azkenik, etxe-koen aurka har zezaketen mendekuak ihes egiteko erabakia zapuztu zien.

Espetxean igarotako lehenengo egunetan pasadizo ugari eta bitxiak bizi izan zituzten zapiraindarrek. Ondarreta espetxeko egoera penagarria zen, agintari frankista berriek gizartearen alderdi anitzetan jarri behar zuten arre-ta, eta espetxea ez zen izan lehenengo mailako beharra. Espetxea erabat hutsik zegoen, ziegetan lau pareta besterik ez, lo egiteko koltxoirik gabe, mahai-rik eta aulkirik bakar bat ere ez. Espetxe xeblebre hartan abandonatu zituzten. Lau presoak zaintzeko kartzelari bakarra zegoen. Lau pareta haien artean igaro zituzten lehenengo egunetan ez zuten ezertxo ere jan. Laugarren egu-nean zaindaria bere patrikatik erosi zien ogi pare bat, eta ogia izan zen egun batzuetarako elikagaia.

Handik aste betera gatibu gehiago eraman zituzten. Gipuzkoako herri guz-tietako gizonezkoak heltzen ziren egunero, gazte, heldu eta zahartuak, eta atxilotu haiekin batera kartzelari gehiago ere bai. Azken haien artean erre-keteak, falangistak, guardia zibilak eta borondatezkoak zeuden.

Auzokidearen aholkuei kasu eginda, Joxe Ondarreta espetxera abiatu zen igandean, lau seme presoak ikustera. Itxaronaldi luze baten ondoren, aita-semeak elkarrekin egon ahal izan ziren, gela ziztrin eta zikin batean. Hasie-

⁷⁴ Epaiketa gutziz sumarioko bigarren orrialdean agertzen den gutuna.

rako emozioak gaindituta, hitz batzuk trukatu ahal izan zituzten burdin hesiaren artetik.

Joxe Zapirain hitz errazeko gizona zen, bere trebetasuna ezaguna zen Errenterian, Altzan eta inguruetan. Ordukoan, ostera, seme gatibuen aurrean hitz bakan batzuk lotzea izugarri kosta zitzaion. Bisitaldia amaituta, joateko unea iritsitakoan, Joxek lasai egoteko esan zien semeei, kartzelatik irtenarazteko ahal zuena egingo zuela, eta itxaropena gorde behar zutela. Berriro elkartuko zirela Bordaxarreko atarian, amets gaizto bat besterik ez zela, eta ametsak laster izango zuela amaiera. Handik gutxira gozo egongo zirela etxean, alai ibiliko zirela etxe inguruko mendietan, guztiz libre.



Ondarretako hondartza, atzean, espetxea.

Lehenengo egunetako gabeziez gain, gaiztotu egin zen Ondarretako giroa egun gutxitan. Preso andanak ateratzen zituzten gauero espetxeko atetik. “Está usted liberado, preparese” agintzen zieten, baina espetxeko ateak gurutzatu bezain pronto kamioitzarretan sartzen zituzten eta Hernaniko hilerrira, Astigarragako edo Oiartzungo mendietara edo Berako harrobira eramaten zituzten gauez, bazter ilun batean gupidarik gabe fusilatzeke. *Liberazio* haiek gau guztietako menua izaten ziren. Goizero nabarmentzen zuten espetxeko patioan zorigaiztoko liberatuen hutsunea, goizero falta izaten zen baten bat.

“Arratsean ere atera zizkiteken iltzera... An igaro nitun beste bi illabe-
teetan, eguneroko ogia uan ori.” (Zapirain 1984: 143)⁷⁵

Horrelako egoeretan ohikoa izaten denez, epaiketarik gabeko heriotza-
zigorra bizkar gainean eramaten zuten gatibuek. Ondorioz, gero eta naba-
riagoak ziren presoan artean larritasuna eta kezka, heriotza eguneroko ogia
baitzen. Halako gau batean akabatu zuten Jose Ariztimuino “Aitzol” (1896-
1936). Euskaingintzan nabarmendutako apaiz tolosarra Galerna itsasontzian
harrapatu eta Ondarreta espetxean sartu zuten urriaren 15ean. Bi gau gero-
ago, espetxetik *askatu* zuten, Hernaniko hilerrira eraman eta hormaren kon-
tra fusilatu.

Badirudi jokaera hori oso hedatuta zegoela Espainiako espetxeetan. Bel-
durra ohikoa zen, Eulalio Ferrek kontatzen zuenez:

Yo estaba en un grupo de 80 condenados a muerte. Cada noche saca-
ban a cuatro o cinco, con lo que la crueldad de la espera era más terrorí-
fica. Además, los carceleros, al leer la relación de los elegidos, lo hacían
lentamente, con el más refinado sadismo. Leían primero el nombre. Si era
un José, imaginaros el estado de ánimo de todos los que llevaban ese nom-
bre. Con la misma lentitud se leía el primer apellido. Cuando era un Pérez,
un Rodríguez o un Solana, se acumulaba aún más la desesperación. Algu-
nos daban el paso adelante, resignados, antes de escuchar el segundo ape-
llido. (Cate-Arries 2012: 100)⁷⁶

Gauero, iluntzean, beldurra hedatzen zen presoan gorputz osoan barrena.
Beldur-egoera hura gaitzat hartuta, Salvador Zapirainek lirismoz beteriko
honako bertso hau sortu zuen:

Gure barruak ez du artu
Ez bazkari, ez aparirik,
Sartu ezker ez degu izan
Lasaituko gaitun jairik.
Emen ez dago gure biotzak
Atsegintzen ditun gairik,
nire begiak itzultzen ditut
poz pixar bat artu nairik,

⁷⁵ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁷⁶ Testigantza hau liburu honetatik hartua da: CATE-ARRIES, Francie (2012) *Culturas del exilio español entre las alambradas*. Barcelona, Anthropos.

bañan alperrik, ez det ikusten
inon arpegi alairik
(Zapirain 1984: 145)⁷⁷

4.2. Gerra kontseilu guztiz sumarioa

Ondarretan gatibu zeuden zapiraindarrei ez zitzaien egokitu gaueko irtenaldi haien loteria makabroa, baina ozta-ozta libratu ziren. Gau batean, Salbadorri esan zioten esaldi madarikatua, “Esta usted liberado, preparese”, eta ziegatik atera zuten beste preso-talde batekin batera. Baina espetxeko sarrean irteteko prest zegoela, zerbitzu-burua konturatu zen Salbador fusilatzeran eraman nahi zutela, eta besteengandik apartatuz honela esan zuen: “Hau ez, gerra kontseiluaren epaiketaren zain dago eta”. Berritro ziegara eraman zuten. Ziegako atea itxi zion zaindariak, irribarrez, belarrira esan zion beste gau batean tokatuko zitzaiola.

Irailaren bukaeran Ondarretako espetxean militar zahar batek egizizkien lehenengo galdeketak, banan banakoak. Etxean harrapatutako eskopeitez eta kartuxoez gain, Errenteriako Campsa erregai biltegian zaintza lanak egitea leporatu zieten lauri. Badirudi Irun nazionalen eskuetan erori zenezan, anarkista-talde batek su eman nahi izan ziola erregai-biltegiari, eta jeltzaleak ez zeudela ados ekintza harekin. Gau eta egun pare batez, inguruetakozenbait pertsona Campsa biltegia zaintzen egon ziren. Jose Ramonek eta Antoniok onartu zuten zaintza lan haietan eskopeta banarekin aritu zirela, eta Salbadorrek eta Juan Josek, berriz, makila banarekin izan zirela.

Garai hartan, Pasai Antxoko parrokoa zenak, Gelasio Aranburuk, honela azaldu zion Jose Migel Barandiarani ejertzito frankista eskualdean sartu zenezan gertatu zena. Aranbururen testigantza honetan jasotzen da Campsa enpresaren inguruan gertatutakoa:

El peligro más grande para Pasajes y sus contornos constituían los depósitos de la CAMPSA. A raíz de la toma de Irún, se procuró llevar a Bilbao, en un barco, toda la gasolina posible; con todo quedaron 400.000 litros de gasolina y 9 millones de litros de gas-oil. Los rojos querían prender fuego a los depósitos para que ardieran los dos Pasajes y se hiciera asfixiante el aire en San Sebastián, Rentería y aún más lejos (según cálculos de los ingenieros de la CAMPSA). Los nacionalistas se opusieron a ello, acordonaron

⁷⁷ ZAPIRAIN, Salbador (1944) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

el lugar donde estaban los depósitos y permanecieron firmes día y noche hasta el momento en que aparecieron los réquetes.

El día 12 de septiembre, proximamente a las 6 de la tarde, se dio la orden de retirada, y para las doce de la noche habían desfilado ya por Pasajes, en dirección a San Sebastián, todos los milicianos que operaban en Jaizkibel y Gaintzurizketa. Por precaución se quedaron todavía los nacionalistas custodiando la CAMPSA y la experiencia demostró cuán acertada era esta providencia, porque, hasta tres veces vinieron de San Sebastián los rojos en la madrugada y mañana del día 13 a incendiar los depósitos de gasolina. La última intentona fue a las 7 de la mañana. Porfiaron con insistencia; pero, ante la resistencia de los nacionalistas, se retiraron.

Los réquetes hicieron su entrada, próximamente, a las nueve de la mañana y hasta que sus boinas rojas aparecieron en el alto llamado de capuchinos, estuvieron firmes los nacionalistas en sus puestos, con evidente riesgo de ser cogidos por ellos. (Portugal 2007: 117)⁷⁸

Agintari militarrek zehaztu zuten epaiketaren hitzordua, baina egun batzuk atzeratu behar izan zuten epaiketa eguna, akusatuek gartzelaniaz ulerzteko eta erantzuteko zailtasunak zituztelako eta interpretea jarri zieten, Celestino Arzamendi, Mikeleteen kaboa.

Azkenik, 1936ko urriaren 18an hasi zen gerra kontseilua, Donostiako Loiola Kuartelean. Eraikineko epaiketa-geletan zaintzan aritzen zirenak Gipuzkoako soldaduak ziren gehienbat. Aretoaren sarreran guardia egiten zapiraindarren lehengusu bat zegoen (Aizpuru 2007: 139)⁷⁹.

Agindutako orduan, Saldaña Komandante militarrek eman zion hasiera gerra-kontseiluari. Lau anaiek dena aurka zuten. Justizia militarren arabera, akusatuek aukera izaten zuten euren alde egingo zuen lege-gizon militarra izendatzeko eta laurok bat proposatu zuten. Hark ezezkoa eman zuen. Epaimahaikideek beste militar bi izendatu zituzten, haiek ere errefusatu egin zuten akusatuen alde egitea. Azkenean, beste hirugarren bat izendatu zuten eta hark, derrigortuta, onartu egin zuen akusatuen babesean aritzea. Defentsako abokatuak bere burua aurkeztu zuen bezero berrien aurrean, epaiketa hasi baino bost minutu lehenago, defentsa lana antolatu gabe.

Epaiketa-aretoan epailea, fiskala, defentsako abokatuak, mikeleteen kaboa, bi lekuko eta epaiketa ikusteko joandako donostiar batzuk zeuden. Ikuskizun

⁷⁸ PORTUGAL, Xabier (2007) *Pasaia 1931-1939. La memoria de los vencidos*. Pasaia, Pasaiako Udala.

⁷⁹ AIZPURU, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

lotsagarria izan zen, antzerki makabroa. Zigorrei ezarri zieten publizitatea izan zen errejimene frankistaren berezitasuna. Isunak eta bestelako zigorrak egunkarietan agertzen ziren, eta gerra kontseiluak zein fusilamenduak ikusi egin zitezkeen: edozein herritar joan zitezkeen epaiketak edota exekuzioak ikustera.

Ohi zuen ironiaz, Salvador Zapiirainek honela azaldu zuen gerra-kontseiluan bizi izandakoa:

“Fiskala batetik, babeslea bestetik, gure bi lekukoak larri, gu bezain urduri. Gu, berriz, aulki txiki banatan exerita. Atzean berriz, Pilatos aurrean jaunaren aurka aritu zen bezalako jendea: erabat etsai ta aberats jendea (Zapiirain 1984: 121)⁸⁰

Akusatuena aurkako karguak entzun ondoren, zapiiraindarrek hitza izan zuten adierazpen batzuk egiteko. Horiek amaituta, aretoko presidentek, Saldaña Komandanteak, laurak prozesatu zituen eta epaiaren zain geratu ziren.

1936ko urriaren 21etik 22ra arteko gauean komunikatu zitzaizkien zapiiraindarrei Burgosetik ekarritako sententziaren berrespena: Jose Ramon eta Antoniorentzat heriotza-zigorra eta Juan Jose eta Salvadorrentzat bizi arteko espetxe-zigorra. Heriotza-zigorra hurrengo goizean exekutatu zen, espetxe-ko patioetan.

1936ko urriaren 22an Donostiako Ondarreta espetxetik honela idatzi zioten Eugenio Saldañari, Epaiare instruktore komandanteari:

“Tengo el honor de acusar a V.S. recibo de su atenta orden fecha 21 de los corrientes en la que manifiesta la sentencia de muerte recaída contra los procesados por el delito de Rebelión militar Antonio Zapiirain Eceiza y José Ramón Zapiirain Eceiza; debiendo participar a su respetable autoridad que la ejecución de dicha Sentencia tuvo lugar a las seis y media de la mañana del día de hoy en el recinto de esta Prisión, significando a V.S que dichos individuos ingresaron en capilla con la antelación necesaria y le fueron prestados cuantos auxilios necesitaron.

Dios guarde a V.S. muchos años.

San Sebastián 22 de octubre de 1936”⁸¹

⁸⁰ ZAPIIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

⁸¹ Sumarioaren 48. orrialdea.

4.3. Joxek jakin zuen Antonio eta Juan Jose semeak hil zituztela

Epaiketa izan eta handik egun batzuetara, Joxe Errenteriara jaitsi zen berriro. Norbaitek lagundu behar zion, semeak errugabeak baitziren. Jainkoa lagun, amets gaizto hura guztia argituko zen eta azkenean justizia egin egingo zen itxaropena zuen Joxek. Etxetik irten baino lehen, baserriko atarian gizonezko bat agertu zitzaion; Ondarretan presoak laguntzen ibiltzen zen apaiz-jesuita bat zen.

“Urrengo egunean, bazkal ondoan, etorri uan azken orduan lagundu zien jesuita, il aurretik aiek egin zituzten eskutitz banarekin...”. (Ataño 1979: 233)⁸²

Ondarretako espetxean bost jesulagun aritu ziren presoen laguntza-lanetan (Aizpuru eta all 2007: 131)⁸³. Badirudi, zenbait kasutan, Ondarretako apaizek bitartekaritza lana egin zutela presoen eta kanpoko senitartekoen artean, eta noizbehinka presoek gutunak kartzelatik atera zituztela kartzelako zaindarien eskuetatik pasa gabe (Aizpuru eta all 2007: 132).⁸⁴ Huraxe izan zen Antonio Zapirainen gutunaren kasua.

Joxeri hurbildu zitzaion apaiza, eta azaldu zion gerra-kontseilua amaitu zela eta epaileek hartua zutela erabakia: Antonio eta Jose Ramon heriotzazigorra ezarri zieten, Salvador eta Juan Jose, ostera, biziarteko espetxealdia.

Egiten zenez, goizeko seietan Antonio eta Jose Ramon fusilatu zituzten Ondarreta espetxearen barnean. Gaua apaizaren laguntzarekin igaro zuten. Lasai eta duin, heriotzarako prestatu zituzten arimak.

Joxe, berria entzun zuenean, zerua gainera eroriko balitzaio bezala geratu zen, hitzik esan ezinik. Sukaldera sartu, beste semeek zoritxarra azaldu eta mahaian eseri zen. Ezin zuen ulertu gertatu zena, ezin zuen sinetsi. Ondoan zeukan semeari papera eta boligrafoa har zitzala eskatu zion; berriro ere hitz errazez komunikatu ezin zuena bertsoan adierazi nahi zuen. Halaber, barneko emozioa azalduz, fusilatutako Jose Ramon eta Antonio errugabeak omendu nahi zituen. Ezin zuen hitz arruntekin barneko samina azaldu, eta hitz errimadunak lotzen hasi zen:

⁸² ATAÑO (1979) *Txantxangorri Kantaria*. Tolosa, Auspoa.

⁸³ AIZPURU, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

⁸⁴ Ibidem

Atentziyua izan zazute
nik esandako itzakín:
nere biotzik ezta poztutzen
dirua eta gauzakín,
eztakigu noiz jarriko geran
kontsuelo eta pozakín;
bi seme illak, beste bi preso,
beste bi non dan ez jakín,
milagro ezta ni egotia
kuidado eta kezakín.

Adierazi biar dizutet
esango dizutet zínñez,
tristura ontatik ínola ere
apartatu al bagínñez;
atentziyua izan zazute
errezo asko eginez;
bi seme illak, beste bi preso
beste bi non dan jakín ez,
nire biotza tristuran dago
ezin sendaturik minez.

Milagru ezta pena aundiya
izatia biotzian,
negar malkuak saltatzen zaizkit
inoiz gogoratzián;
ezeren mantxik eta batere
kulpa gabiak il zian,
beste bi preso Ondarretatik
San Kristobala joan zian,
zer kontatu izango dute
elkarrengana biltzian.

Orra zer lana ekarri diran
nire semien paltiak,
ta ortatikan izandu ditut
familiarako kaltiak;
ai, penosuak izandu dira
pasa ditudan urtiak,
kastigu oiek izandu dira
gogorrek eta fuertiak,
emen izango al ditut arren
beste munduko partiak!

(Zavala 1975: 272)⁸⁵

Hildako eta kartzelaratutako semeei egindako bertso haien bidez, Joxek laburbildu egin zituen Euskal Herria une hartan jasaten ari zen sufrimendu eta oinazea. Bertsoarako aukeratu zuen orainaldiaren erabilerak balio atemporala ezarri zion konposizioari. Erlojuaren orratzak gelditu egin ziren, une hartantxe denbora ez-denbora bihurtu zen.

Orokorrean, eraıldakoen familiakideen testigantzetan agertzen diren lehenengo sentimenduak hauexek dira: oinazea, beldurra, suntsipenaren ideia, ez-sinetsia eta inpotentzia. Horregatik, shock egoerak izaten dira lehenengo erantzunak. Era horretako bizipen garrantzek amesgaiztoaren itxura hartzen dute, zeren izugarrikeriak zaildu egiten du gertatua ulertzea. Ezin da ulertu, ezta egiazkoa dela sinetsi ere, ezin da onartu. Joxe Zapirain, berriro

⁸⁵ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934). Joxe (1873-1957)*. Tolosa, Auspoa.



Ondarretako espetxetik presoak irteten.

ere, emaztea hil zitzaionean legez, bertsoez baliatu zen barnean zuen sufrimendua arintzeko. Joxeren mundua erabat aldatu zen bi semeen fusilamenduarekin, ezin uler zezakeen gertatutakoa, ezin sinets zezakeen bi semeren hilketa.

Une hartan denboran atzera egin nahi zuen Joxek; zerbait egiten saiatu nahi zuen gertakizunak aldatzeko, ahal zena egin nahi zuen semeen patua aldarazteko. Hala ere, zoritxarrez, atzera egitea ezinezkoa zela konturatu zen. Momentu oro areagotzen zitzaizkion Joxeri errua eta inpotenziaren sentazioa.

Aitari eta senitartekoei ez zieten utzi hildakoen aldeko hileta-elizkizunak egiten, ez zizkieten gorpuak eman. Nolabait, eraildako haien aldeko oroimenik ñimiñoena ere ezabatu nahi izan zuten. Badirudi horrelako kasuetan sufrimendua ez datorrela heriotzak eraginda soilik, sufrimendua areagotu egiten baita hileta-errituak egitea ukatzen denean. Hildako bat dagozkion errituen bidez lurperatzen ez denean, haren mamua bizidunen artean ibiltzen da. Etxekoan dolua garatzea oztopatzen du guztiz, eta senitartekoak erotu egin daitezke.

Joxek bertsoa sortu zuen seme fusilatuek derrigorrez ezarrita zuten isiltasuna hausteko, seme hildakoek ahoskatu ezin zituzten berbak kantuarren

bidez ozenki aireratu zituen aitak. Jorge Semprún (1997)⁸⁶ idazleak zioen bezala, kasu honetan hildakoen oroitzapenari lekua egin nahi zion aitak bertsoen bidez. Joxek bizitzan zehar galerak izan zituen (gurasoak, anaiak, emaztea), baina berri-berria zuen azken galera hark, bi semeren bizitza ezabatu izanak, bizitza-proiektua erraustu zion. Izan ere, oinazea areagotu egingen da beldurraren eta inpotenziaren eraginez. Noizetik noizera, heriotza ezkutatu egin behar izaten da bizi direnak babesteko, baina orduko hartan, senitartekoak desagerrarazirik eragindako samina familia osoaren gainean erori zen.

Desagertu eta fusilatutakoen etxekoek kontraesan latzari egin behar izaten zioten aurre: alde batetik, agintari berriek hildakoei edo atxilotutakoei buruz hedatu zuten irudi maltzurra zegoen eta, bestetik, familiak berak haiei buruz zeukatena. Hortxe, bada, lehia: garaileek zabaldu zuten oroitzapen publikoaren eta oroitzapen pribatuaren artekoa. Etxean, duintasuna eta osotasuna eman nahi zizkieten desagertutakoei; agintariek, ostera, egindako sarraskia justifikatu nahi zuten, hildakoen gain erruduntasuna jarrita.

“... Amabiak... Ordu ori jo zueneko bat-batean pixtu iyun espetxeko argiak... Goizeko seiretan, orma bitarteko il zizkitiken, espetxeko patioan bertan...”. (Zapirain 1984: 179)⁸⁷

Beharbada, Joxek are emozio sakonagoa sentitu zuen jesulagunak emandako gutuna ireki zuenean. Semeak fusilatu zituztela jakin izanak ahaztarazi egin zion Antonioren kartazala patrikan gordeta zuela. Kartazal barneko papera atera, eta seme bati eman zion ozenki irakur ziezaion. Paperean bertso batzuk zeuden idatzita, Jose Ramonek, semerik zaharrenak, lerro batzuk utzi zituen. Aitaren ohituraz baliatu zen heriotzari aurre egiteko, eta honela esan zion agur familiari:

Nere aita eta anai maiteak,
gu hola hiltzea naiko zuan
gure jaingo maiteak,
zuei ere dicha on bat dizutela eman
Virgiña gracias beteak.

⁸⁶ SEMPRUN, Jorge (1997) *La escritura y la vida*. Barcelona, Tusquets.

⁸⁷ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

Gure odolarekin garbi ditzala
gure munduko kalteak,
agur esaten dizuet
nere aita ta munduko lagunak
bukatu dira kontutako egunak.
Munduan ez dira danontzako olako portunak
emengoa utzi ta zeruan
eitera noa ezagunak.

Nire azkeneko agur ederra, Aita, Juan Joxe, Saturni-
no, Joakin, Salbador, Juan Kruz, Manuel, Joxe Mari.
Gorantziak, zerurarte. Ondo bizi eta catolico onak
bezala, euskotar zintzoak bezala gure ama elizaren
alde egin
(Aizpuru 2006: 140)⁸⁸

Antoniok heriotza-unearen aurrean paper batean bertso batzuk idatzi zituen. Azken gau luze haren emozioak bertsoen bidez gairitu nahi izan zituen. Bertsolariak bertso-saioetan egiten duten bezala, kantuz erantzun nahi izan zion epaileek ezarritako heriotza-zigorrari. Une larri hartan bertsoak salbamenduzko euskarri bilakatu ziren berriro ere. Antoniok, kantua-
ren bidez, etorkizunerako testigantza geroan utzi nahi izan zuen, munduan jakin zedin euskaldun errugabeak hil behar zituztela eta, era berean, zabal zitezzen Zapirainen etxean zeuzkaten balioak: fedea, euskara eta etxekoen maitasuna.

Urgentziaz idatzitako hitz horietan argi daiteke Bordaxar baserrikoengan erlijioak zuen garrantzia. Salbamendurako eta bizi ahal izateko zergatia erlijioan aurkitu zuten, euren identitatearen gakoa eta laguntza sozial eta psiki-
koa zen. Izan ere, eliza katolikoak, historiaren ikuspegi teleologikoa erakus-
ten zenez, bizia, kultura eta inguruan zuten mundua ulertzeko erreferentzia markoa eskaintzen zien. Zapiraindarrek ezagutu zuten erlijioak indarra zue-
la (Ott 1993: 266),⁸⁹ oso limurtzailea zela. Fedean aritzen ziren gogo bizian,

⁸⁸ Liburu batean, *Txantxangorri kantaria* izenekoan, Salbadorrek gertakizun horren deskribapen hunkigarri bat eman zuen. Hil baino ordubete lehenago idatzitako lerro batzuk utzi zituzten semeek –Jose Ramonek, semerik zaharrenak, dirudienez–, agur gisa (Zapirain 1979: 234-235). AIZPURU, Mikel eta BESTEAK (2007) *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun, Alberdania.

⁸⁹ OTT, Sandra (1993) “Indarra. Algunas reflexiones sobre un concepto vasco”, in PITT-RIVERS, Julian eta PERISTIANY, Jhon (1993 [1992] *Honor y gracia*. Alianza Editorial. Madrid (252-279).

apaizaren errespetuak eta sakramentuen begiruneak osatzen zituzten pentsamendu erlijiosoaren hiru zutabeak. Jainkoaren indarra zen hirugarrena, eta denen artean garrantzitsuena, gehien konbentzitzen zuena. Dena den, Jainkoaren ontasuna gorabehera, sinestunak izanda ere, zapiraindarrek ezin zuten ulertu Jainkoak nola onartzen zuen Jose Ramon eta Antonioren patua, errugabeak zirela inork baino hobeki baitzekien “Goikoak”.

Behin baino gehiagotan aipatu dut bertsoa izaten zela aitaren babesleku ohi-koena, baina baliabide horrek, zenbait unetan, bere mugak ere baditu. Hainbatetan, Joxe Zapirainek duintasuna isilpean gorde behar izan zuen. Edonola ere, Joxek bazekien emozio batzuk agertzea zein zaila izaten zen. Adibidez, ondoko bertsoan, emaztearen eta semeen heriotzek utzi zioten hutsunea gaitzat hartu zuelarik, “danak eziñ kontatu ondo mingañoak” aipatzen du, hitzen bidez adierazteko zailtasunak eta ezinak nabarmentzen ditu, alegia:

Lepotik gora duzkit
ajiak egiñoak;
belarri gorrak eta
ikusitako ezinak;
ortzak ere nigandik
dira alegiñoak,
oiek bezala igual
jun ziran agiñoak;
eztarri zikiñoak
ta itzegin eziñoak;
danak eziñ kontatu
ondo mingañoak.

Halakoetan infernuak eta infernuko indarrek dena hartzen zuten, isiltasuna ahotsa baino ozenago entzuten zen.

“Goizeko seiretan, orma bitarteko, il zizkitek, espetxeko patioan bertan. Lenengo, oiua itun. Ondoren, tiro-otsak. Azkenik, karraxiak. Lau tiro banakako. Gero, ixilunea.

Beren sasoirik onenean, ogei ta zortzi ta ogeita bederatzi urterekin, joan itun erru gabeko nere bi anaiak. Aiek bukatu zizkitek mundu ontako eginkizunak. Etzitek geiago oñazerik izango. Aiek ez baziran txuxen betiko atsedenera joan, ez dituk asko joango.” (Zapirain 1984: 177-178)⁹⁰

⁹⁰ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Espetxeko negarrak*. Tolosa, Auspoa.

Urte batzuk geroago, 1950ean, Franco diktadorearen zentzura zorrotzaz trufatuz, Joxek hartu zuen Antonioren lekua, eta semeak heriotza-kaperan zela idatzi zuen bertsoa oinarri hartuta, aitak bertso berria sortu eta argitaratu zuen.⁹¹ Ondoko bertso hauek Joxek idatzi zituen, eta semeen ahotan irudikatu zituen fusilamendu ordua noiz iritsiko zain zeudela. Aitak bereganatu egiten ditu Jose Ramonek eta Antoniok izan zitzaizketen beldur eta nahiak:

Errurik gabe iltzera guaz,
aita ta anaia maiteak,
gazte gerala utzi bearra
dana naigabez beteak;
gure odolak garbi dirala
egin ditugun kalteak,
Agur, ez digu kalte egingo
garbi gerala joateak.
Agur, Juan Joxe ta Saturnino,
Joakin eta Xalbador,
Juan Kruz, Manuel ta Joxe Mari,
geratzen zaretenak or;
ate ondoan dira etsaiak,
gure ordua badator;
gutzaz biotzez maitakor.

Agur betiko, osaba, izeba
eta lengusu kutunak,
agur biotzez adiskide ta
maite nitun ezagunak!
Uste gabeen bukatu dira
Nere munduko egunak,
emengo partez orain zeruan
egingo ditut lagunak.

Ez gorrotorik izan inori,
izan alkarrekin lagun;
izan zazute beti euskotar
eta benetan euskaldun;
eliza maite, kristau bezala
bide zuzenetik jardun,
orain berexten geranok berriz
alkar ikusi dezagun.

(Ataño, 1979: 234-235)⁹²

⁹¹ ZAPIRAIN, Joseba (1950) *Nere bizitzako bertso batzuek*. Errenteria, Makazaga irakorla.

⁹² ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.

5. Infernua batetik beste okerrago batera

Infernua det izena,
atsedenik ez, zigorra beti,
kezka gaixtoen eztena;
ortz-karraskada, izu-ikara,
pozik ez dagon barrena,
onuntz zatozen orrek uztazu
atean itxaropena.
(Zapirain 1985: 49)⁹³

5.1. San Kristobal gotorleku gogaikarria

Epaille militarrek agindutakoa bete zuten, Ondarretako patioko hormaren kontra Antonio eta Jose Ramon fusilatu zituzten. Salbadorrek eta Juan Josek zorte hobea izan zuten, bizi arteko espetxealdia ezarri baitzieten. Espetxeratuak ahal izan zuten bezala egin zioten aurre patu berriari, lau paretaren artean itzali behar zuten gaztetasuna. Dena den, ez ziren Donostiako espetxean denbora luzez egon, behin zigor-epaia jakinda beste presondegi ziu-rrago batera eraman behar baitzituzten.

Eguberri egunean, goizaldean, Ondarretako harresietatik atera eta San Kristobaleko espetxera eraman zituzten Juan Jose eta Salbador, Nafarroako hiriburutik kilometro gutxira, Ezkaba mendira. Presondegi hartan infernua bazela jakin zuten, eta leku ahaztezin hartan konplitu beharko zituzten garai-
leek ezarritako zigorra eta sufrimenduak.

⁹³ ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

“Goizean, amaikak baño len atera giñun Donostia’tik. Illun bistan giaziken. Jakina, eguna ere motxa zala. Orduantxe zieken eguzkia ezkutatzera urrungo mendi atzean” (Zapirain 1985: 44)⁹⁴



San Kristobal Espetxea, Ezkaba mendian

Matxinatuen estatu-kolpearekin, San Kristobaleko gotorlekuak berriro hartu zuen errepresioaren protagonismoa. Urte pare bat aurretik, Errepublikara garaietan, Asturiaseko iraultzan atzemandako langileekin bete baitziren lehenengoz Ezkaba mendiko ziega hezeak. 1936ko estatu-kolpearen ondorengo lehenengo hilabeteetan Nafarroan atxilotutako pertsonak sartu zituzten. Haietako batzuk, Ondarretan gertatzen zen legez, gaueko paseo makabroetara aterarazi zituzten eta, epaiketarik gabe bertako mendi magaletan fusilatu ondoren, bertan presaka egindako hobietan lurperatu zituzten.

Azaroaren lehenengo egunetik aurrera beste lurralde batzuetako preso kondenatuak eraman zituzten bertara, eta bi hilabeteetan espetxea bete egin

⁹⁴ ZAPIRAIN, Salvador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

zen. Urtebete geroago, 1937an, 2.300 preso zeuden gotorlekuaren harresien barnean, 200 soldadurentzat egindako galeria meharrean (Alforja eta Sierra 2005: 19)⁹⁵. Hainbat ikerketaren arabera, espetxea zabalik egon zen bederatzita urteetan, 5.000 pertsonak baino gehiagok urteak eman zituzten San Kristobal gotorlekuan (Alforja y Sierra 2005: 19, 54)⁹⁶.

Atxilotuen bizimodua arbitrariotasunez, gehiegikeriaz, ankerkeriaz eta izuz beteta zegoen. Gotorlekuan preso gehiegi zeuden, eta espazioaren gabeziak gain, jipoiak, hotzak, hezetasunak, goseak eta garbitasunik ezak presoek osasun-egoera erabat okerragotu zuten. Indarkeriazko eraiketak ez ezik, hotza, gosea eta gaixotasunak izan ziren hildako preso askoren heriotzaren zergatia. 1937ko urtarrilaren 1etik 1945eko uztailaren 6an presondegia itxi zuten arte, 305 preso hil ziren gotorlekuan. Marka makabro horren zergatia gotorlekuaren beraren berezitasunetan eta atxilotuei emandako tratu txarretan aurki liteke.

Aipatu dugun bezala, gerra bukatuta gotorlekuak presondegia izaten jarraitu zuen 1945. urtera arte. Azken urteetan, baina, espetxea ospitale bihurtu zuten, bereziki tuberkulosia zuten presoak sartzeko, mendiaren puntan eraikitako zegoelako. Ez da zaila pentsatzea lekuaren bizi baldintzak zirela eta ziegak ilun eta hezetasunez beteak, preso erri haietako askok heriotza bertan aurkitu zutela. Hori dela eta, gotorlekuaren inguruan hilerria eraiki zuten, eta gaixotasunek hildako 131 preso lurperatu zituzten bertan, denak 1941 eta 1944 urte tartean hildakoak. Zendutako bakoitzari botila bat jarri zioten ondoan, eta botilaren barruan, papertxo batean idatzita, hildakoaren izen-abizenak. Leku iraingarri horri botilen hilerria deitu izan zaio.

“Sarrerako zubi bat zeukaken, jaso eta jexten zana. Bañan zubiaren sarreran burnizko ate andi bat, eta bere gañean: Fuerte de San Cristobal.”
(Zapirain 1985: 47)⁹⁷

Juan Jose eta Salvador, Ondarretako beste bi lagunekin batera, San Kristobalera iritsi zirenean, espetxea erdi hutsik zegoen, eta bigarren galerian sartu zituzten laurak. Gotorlekuak hiru mailatan zituen banatuta ziegak. Okerrenak lurrazpiko ziegak ziren, urez betetzen ziren euria egiten zuenean eta ez zuten argi naturalik; hezetasun eta lizun-usaina gogaikarria zen. Ziega

⁹⁵ ALFORJA, Felix eta SIERRA, Iñaki (2005) *Fuerte de San Cristobal, 1938, la gran fuga de las cárceles franquistas*. Iruñea, Pamiela.

⁹⁶ Ibidem.

⁹⁷ ZAPIRAIN, Salvador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

haietako gatibuek patioa zuten arnasa hartzeko espazio bakarra. Haietan eta erdiko solairukoetan preso politiko kondenatuak zeuden eta goikoan, berriz, epaiaren zain zeudenak.

Espetxean gehienak preso-politiko kondenatuak ziren, baina bazegoen preso arrunten talde bat ere. Haiek barneko lan batzuk egiten zituzten eta espetxeko uniformea eraman behar zuten, kaki kolorekoa. Preso kondenatu eta arruntez gain falangisten preso-talde bat ere bazegoen, Francok agindutako falangisten eta tradizionalisten batasunaren aurka agertu ziren militante falangista batzuk alegia. Azken preso haiek osatzen zuten espetxeko talde pribilegiatuena, hain zuzen (Carratala 2007: 164)⁹⁸. Honela gogoratu zituen Salbadorrek “Horiek guri-guriak ikusten nizkin gizenak, garbi eta ondo jantziak” (Zapirain 1985: 65).⁹⁹

Bazeuden bigarren mailako beste preso batzuk:

“guri-guri zeudenak, baina zikin jantziak, eta hirugarrenak zizare baino argalagoak eta txerri baino zikinagoak... Gure ondotik igarotzen itun errañu batzuk bezala, arin-arin. Oñ-otsik ere etzitzaieken entzuten. Etzeukateken ortarako ere kargik. Luxe, mee ta xerrallak, txitxareak txutik ziruditeken. Egurrez egindako gurutze jantziak. Ez sabel, ez ipurdi. Aurpegiko ezurrak zorrotz, larrua ebaki zorian...” (Zapirain 1985: 65)¹⁰⁰.

Han zeuden guztiek 100 metro luze eta 20 metro zabal inguruko patio mehar bakarra zuten. Presoen eguneroko bizimodua patio horren inguruan iragaten zen. Espazio ireki bakarra izateaz gain, presoen pilaketa espazio itogarria ere bazen.

“San Kristobal’ko patio onek bere eskubia ere ormaz itxia zeukak. Ormik txikienak ere badizkik amabost bat metrotik gora. Lauki bat dek, baña luzera askoz gutxieneko luzera, zabaleran ogeitik gora ez dizkik izango. Azpian arri urdin beltza, altzairua bera baño ere gogorragoa”. (Zapirain 1985: 71)¹⁰¹

⁹⁸ CARRATALA, Ernesto (2007) *Memorias de un piojo republicano*. Iruñea, Pamiela.

⁹⁹ ZAPIRAIN, Salvador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

¹⁰⁰ Ibidem.

¹⁰¹ Ibidem.

5.2. *Lasciate ogne speranza*

“Ate aren goiengan, *San Cristóbal* en lekuan, ez uan gaizki etorriko, Dante’k inpernuko sarreran ikusi zuen bertso ura: Jaungoikoaren zigorra naiz ni,

inpernua det izena,
atsedenik ez, zigorra beti,
kezka gaixtoen eztena;
ortz-karraskada, izu-ikara,
pozik ez dagon barrena,
onuntz zatozen orrek uztazu
atean itxaropena.

Orretxen antza artu nioken nik San Kristobal’ko sarrerari: goitik beera, zulora, inpernu bereko sarrera.” (Zapirain 1985: 49)¹⁰²



Espepxeko hormetan jarri zuten idazkuna.

¹⁰² Ibidem.

Salbadorrek Ezkaba mendiko espetxeari infernua deitu zion, “nik San Kristobal’i inpernu txiki baten antza artu izan ziot” (Zapirain 1985: 81)¹⁰³. Presondegiak infernuaren antza hartu zuen presoek begietan eta frankismoaren sarraskien ikurra beste guztion begien aurrean. Presoek sufrimenduaren mingostasuna agertzeko, itxaropenik gabeko leku hori izendatzeko, basakeriaren eredu adierazteko, Dante Alighieriren *Divina Commedia* poema aipatzen du Salbadorrek. Horregatik, literaturaren lerro ospetsuak ekartzen dizkigu Zapirainek gogora, hain zuzen, “*Lasciate ogne speranza, voi ch’intrate*” direlako hitzak, Danteren infernuko atean irakurtzen zirenak (Zapirain 1985: 49)¹⁰⁴. “Lasciate ogni speranza”, ahaztu ezazu itxaropena dagoenik, ahaztu ezazu izan zarena, infernua da ezartzen dizuten iragana, munduaren beste aldea (Valcarcel 2010: 52).¹⁰⁵

“- Ara non zegoken gure inpernua- esan nieken. Bat-batera begiratu zieten aiek ere atzera.

Itzera onuntz ekartzea parregarria bazan, bizitzera ekartzea ez al deko oraindik parragarriagoa izango?” (Zapirain 1985: 45)¹⁰⁶

Zigorpean izeneko nobela autobiografikoan, Salbadorrek gogora ekarri zituen infernuan igarotako urteak, eta zorrotasunez islatu zituen hango pasarteak. Esaterako, gotorlekuko zuzendariak, “hartza” ezizendunak, eta Muñoz abizeneko administrariak presoek osasunaren kontura aberasteko sare maltzurra osatu zutenekoa.

Espetxeko zuzendariaren aginduz gatibuen otorduak murriztu zituzten, egoera pentsaezinerara iristeraino. Horretaz gain, espetxe barruko ekonomatoa lotsagabeko gehiegikeriaz ustiatzen zuten espetxeko zuzendariak eta administrariak. Presoek berek osatu behar zuten otorduen urritasuna ekonomatoan erositako produktuekin (txokolatea, sardinzarrak, ogia edo antzeko produktuak). Hortik ateratzen zen dirutzak bi horien patrikak zituen helmuga. Hain handiak izan ziren egin zituzten gehiegikeriak, ezen batzuetan saldu ezinezko produktuak saltzen ziren; hala nola, alpargataz beteriko ogitartekoak. Ogia oso ongi saltzen zela ikusten zutenek, ogitarteko bereziak saltzea otu zitzaizkien, alpargataz edota sandaliaz betetakoak, adibidez. Hala,

¹⁰³ Ibidem.

¹⁰⁴ Ibidem.

¹⁰⁵ VALCARCEL, Amelia (2010) *La memoria y el perdón*. Herder. Barcelona.

¹⁰⁶ ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

ogia nahi zuenak, dena eskuratu behar zuen ezinbestean eta, irteera ematen zieten stockean izanik, ongi saltzen ez ziren produktuei (Carratala 2007: 166)¹⁰⁷. Salbadorrek ongi asmatu zuen espetxeko ekonomatoari izena jarzzen: “tragaperras”. Otorduen eskasiari eta ekonomatoko gehiegikeria guztiari etxetik fardelak jasotzeko debekua gehitu behar zitzaion.

Egun batean, Guardia Zibilek espetxeko zuzendaria harrapatu zuten Frantziako mugan, zilarrezko eta urrezko txanpon kopuru handia atzerrira eramanez nahian, eta Iruñeko espetxean giltzaperatu zuten. Zer esanik ez, harrapatutako ondasunak lotura zuzena zuten espetxean egindako lapurretekin (Zapirain 1985: 161).¹⁰⁸

Aurreko gutzia gutxi balitz bezala, espetxeko zaindarien probokazioek eta debekuek areagotzen zuten infernu hartako bizimodua, eguneroko ogia baitziren. Gatibuek patiora irten behar zuten goizean goiz eta zaindarien aurrean formatu. Tente egon behar zuten, hala goizean bandera altxatu behar zutelako nola ilunabarrean, Espainia berriaren bandera hori-gorria berriro jaitsi behar zutelako. Derrigorrezko lan horiezaz gain, egunean zehar, bestelako arrazoi berezirik gabe formazioa egitera deitzen zieten, zaindarien nahi arbitrarioen arabera. Halaber, eguneko beste une batzuetan faxisten agurra egitera behartzen zituzten gatibuak: zaindarien aurrean besoa jasoarazten zieten, edo matxinatuen abestiak eta leloak ozenki kantarazten. Ereserkiak fundamentuz kantatzen ez zituen edo banderari behar adinako begirunea erakusten ez ziona, bazkaririk gabe geratzen zen.

Goizero ¡*Firmes!* jarrarazi, garaileen abestiak entzun eta kantarazi, eta “Gora Franco” ozenki esan beharrak gatibuei ezarri nahi zieten umilazioaren zantzuak ziren. Horrela, preso garaituei erakutsi nahi zieten beren duintasuna eta borondatea zaintzaileen eskuetan zeudela, eta edozein pertsonari zor zaion gizatasuna ezabatuta geratzen zela lau horma heze eta hotz haien artean. San Kristobal gotorlekuak ordezkatu zuen munduko errealitatetik at zegoen ordena. Kanpoko mundutik erabat isolaturik zeuden presoak eta gotorlekuaren barnean gertatzen zenak infernuko unibertsoa osatzen zuten (Gonzalez Garcia 2010: 457)¹⁰⁹.

Espetxeko agintari frankistek indiziplina jarrera edota araudiari aurre egiteko presoek saiakera oro deuseztatu nahi zuten. Zigorraren bitartez gogo-

¹⁰⁷ CARRATALA, Ernesto (2007) *Memorias de un piojo republicano*. Pamplona, Iruña.

¹⁰⁸ ZAPIRAIN, Salvador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

¹⁰⁹ GONZALEZ GARCIA, Moises (2010) *Filosofía y dolor*. Madrid, Tecnus.

rarazten zieten barnekoei ez zutela beste irtenbiderik, babesik gabeko giza-banakoak zirela eta, horregatik, men egin behar zutela (Le Breton 1999: 234)¹¹⁰. Zigorren bidez errejimen berriaren zerbitzariak presoen jarrera zehaztu nahi zuten, eta jarreraren gaineko mendekotasunaren bitartez, garaituen pentsaera okerrak zuzendu nahi zituzten.

Salbadorrek ez zuen inoiz ulertu sufriarazi zieten infernua. Hala ere, ulergaitza izan arren, fedeak Jainkoaren nahia onartzera behartu zuen

“Jainkoaren bideak ezkutuak omen dituk eta Aren naiera burua makurtu bear. Borondate ortara umiltzen danari, suprikizunak berdin etorriko zaizkiok; baña bazekik zergatik daraman bere gurutz-bidea. Iñori txarrik egin ez, egiteko asmorik ere ez, eta ainbesteko zigorrak jasan bear! Ez dek uler errexa, baña egia. Au irakurtzen duanak, ikasiko dik gure gurutzbidearen berri.” (Zapirain 1985: 38)¹¹¹

5.3. Hablen en Cristiano!

Joxe Zapirainek jakin zuenean semeak Ondarretatik eramanak izan zirela, okerrera pentsatu zuen. Ez zen fio Ondarretan esan ziotenarekin eta bere begiekin ikusi behar zituen bizirik bi semeak; horregatik San Kristobalera joatea erabaki zuen. Auzoko bizilagun baten bitartez, Nafarroara joateko baimena lortu zuen, eta Donostiako iloba batek lagundu zion San Kristobal gotorlekurako bidaian.

Baimenak gora eta behera, urteberri egunean joan zen Joxe Iruñera. Mintzaleku zikin eta txikian, San Kristobalera irteerako bidaia azaldu zion Salbadorrek aitari, eta bihozminez kontatu zion nola fusilatu zituzten Antonio eta Jose Ramon.

Gau batean ziegetatik atera zituzten bi anaiak, kaperara eraman eta goizeko seiak aldera, Salbadorrek oihu eta zaratak sumatu zituztenean, tiro hots lehor batzuk entzun ziren. Jose Ramon eta Antonio Ondarreta espetxeko harresiaren kontra fusilatu zituzten, gupidarik gabe. Anaiak ez zuten aukerarik izan elkar agurtzeko.

Emozioz beteriko solasaldian zeudela, zaintzaile batek isilarazteko agindu zien:

¹¹⁰ LE BRETON, David (1999) *Antropología del dolor*. Barcelona, Six Barral.

¹¹¹ ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.



San Kristobal espetxeko presoak

“Hablen ustedes en cristiano. O, si no, márchense de aquí.. izan ziren haren hitz zakarrak... Donostia'n uzten ziguteken eta gu euskaraz asi giñun. Bestela nola itzezin bear genioken aitari, besterik etzekiken-ta?” (Zapirain 1985: 78)¹¹²

Espetxe barnean ezin zuten erabili “euskaldunen hizkuntza zikin hori”, debekatu egin baitzuten hizkuntza ez-kristau haren erabilera. Joxe aita eta Juan Jose anaia mutu geratu ziren. Biek zituzten arazoak gaztelania ulertzeko, baina gaztelaniaz zertxobait azaltzea erabat ezinezkoa egiten zitzairen. Iloba ongi moldatzen zen gaztelaniaz eta Salbadorrekin batera aritu zen kontu kontari; elkarren artean mintzatzen ziren bitartean, Joxek semei begira iragan zuen bisita.

Salbadorrek, aitaren begietan tristura ikusi zuen, gaztelaniaz elkar ulertu ezinik, papertxo batean bertso batzuk idatzi zituen eta aitari helarazi zizkion. Modu horretan, berriro ere hitz neurtuen bidez, aitak egiten eta ulertzen zuen bezala, laburtu ahal izan zion kartzelako egunerokotasuna: harresien

¹¹² ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

barnean bizi zituzten gabeziak edo nola igarotzen zituzten giltzapeko egun luzeak:

Ez gurutze ta ez apaiz joan zan
beste askoren antzera
abertzalea ta bizkaitarra
kristau zintzoa zan bera
oraingo kristau berri auentzat
gu erejeak bai gera
gure Jainkoak artu dezala
betiko atsedenera.

Ez dezu aita sinistuko zuk
baña egi borobilla
amaika aiton egon zitzayon
txutik eziñik otzilla
inbiri pixar bat biotzean
begira, triste ixilla
kajan zijoan aren lekuan
bera ez izana illa.

Bazkal ordua etorri zan ta
turuta otsa, arrantxo
eroskor baitzun mende, presuok
sartu giñan mantxomantxo
eguberriak, otordu on bat
nai, aspilla nion jaso
ur epelaren azpian zeuden
egoskor iru garbantzo.

Arratsaldean berriro ere
orma gañean pasian
otordu on bat egin da gero
aberatsaren klasian
bazkariaren antzekoa zan
aparia arratsian
lenteja gordin batzuk ikusi
nitun igari pertzian.

Aspertu nintzan ara onera
joan etorrian ibiltzen
lo egiteko asmoan, noizbait
asi ere mantan biltzen
agure xar bat aldamenen
oñazetan eta iltzen
Que me muera, que me muera oyu
ta oyu etzan ixiltzen.

Ori zan aurtan nere eguberri
otza, gosea ta laño
Jesus aurtxoa etorriko zan
gizonen artera baño
bere maitasun pozik etzaigu
sartu gauden lekuraño
demoniñoen leizera aita
ez da batere estraño
(Bertso 1994: 53)¹¹³

Salbadorrek bertsoekiko zaletasunarekin jarraitu zuen eta etxekoei azal-
tzen zien bertsoen bidez espetxeko eguneroko bizimodua. Eguberri tristeak
izeneko bertso sortan. Bertsoen bidez espetxeko pasarteak eta bizimoduak
kontatu zizkien berriro.

¹¹³ BERTSO (1994) *Bertso berriak gerra ostean jarriak*. Andoain, Bertsolari liburuak.

Gabonak, urte guzian ez da
ospatzen alako jairik.
Bazkari on bat agindu zigun
anayak gu poztu nairik
goiz, Ondarretan atean jota
etzun arkitu anairik
trenean pasa gendun eguna
gose paseak, baraurik.

Oraindik illun atera giñan
nora ez jakin, goizean
gure lagunak triste utzirik
Donostiko espetxean
illuntzerako otzak dardaraz
San Kristobalko leizean
gabon tristeak ziran guretzat
ez goxogoak etxean.

Ez dakitenak jakin dezaten
astera noa kontari
emengo berri eman bai diyot
bakarrik dagon aitari
eguberritan bizi gerata
etsai maltzurak zaindari
San Kristobalko arzulu ontan
negarra bada ugari.

Egun sentia baño lenago
leyo txulotik begira
lau lagun maite guardi aurrean
ixilik atera dira
gogor egiten zuten gaixoak
baña joka bultza, tira
noizbait eraman dituzte laurak
espetxeko atarira.

Lau lagun dira joan zaizkigunak
iltzeko elur artera
ayen artean aita haar bat
bi semerekin batera

nora zoazen ondo zekiten
ta entzuten nai atera
modu orretan zalla da jartzen
jaunaren borondatera.

Gorrotoz, beren aurrean artu
ayek ziran erasoak
joka eraman dituzte andik
laurak iltzera gaixoak
denak larri ta izu, kanpora
erru gabeko usoak
ez gera esku txarretan eror
san Kristobalko presoak.

Bere semeak eusten zioten
aitari eror etzedin
bi seme ayen aita zan, beste
pekaturik etzun egin
gauza zaneko lana ta lana
larogei urte berekin
gorrotoaren mende gabiltza
emen ez dago atsegin.

Ayek artara joaten ikusiz
nork ez du artuko pena?
Elur artean kulparik gabe
besteren eskuz azkena
aspaldi ontan ori jokoa
naparrak ari dutena
jayo berri zan maitasunari
egin zioten omena.

Egun sentian elurra txuri
inguruko arkaitzean
ormatutako arnas jario
lañu itxia leizean
jeiki berrian begiratuaz
kanpo aldera goizean
elur gañera eundoko jela
egin digu arratsean.

Tellatupera zintzilik daude
eundoko jela ziriak
an gabiltzanon buru gañera
ezpata gisa jarriak
gose ta otzak illunpe ontan
preso gaudenon larriak
sarrera onik ez digu egin
aurtengo eguberriak.

Egun sentian mezetarako
dilinka ezkillen otsa
izan ere gaur eguberriak
maitasunaren jayotza
baña emen zerk poztu lezake
preso gaxuon biotza
aingeru kantu orde
goizean gorrotoaren abotsa.

Sinismen beroberoa nuen
gaur asi naiz naiko nasten
kulparik gabe modu onetan
gure bizia garrazten
gauza berriak ari gera gu
San Kristobalen ikasten

Apaiz txiki bat falanjekoa
ikusi nuen zegola
erdi jantzian bere alba ta
lepotik txintxil estola
silla txar baten gañean utziz
bere gerriko pixtola
bere atzean geundenon gatik
etzion asko ajola.

Itzaldi goxo bat egin zigun
apaiz falanje petralla
Españiako on eta txarrak
pisuan jarri zirala
txarrak behera ta onak gora
omen ziran bereala
odol geyago ixuri gabe
pake biderik etzala.

Andik atera orduko, jela
beltz artan pasian gero
patio dena lañuz itxia
ortxe amar bajo zero
txistua ere ormatzen zigun
asko ibilli ezker
nolabait gure gorputz oztua
jarriko al gendun bero.

An gabiltzala turuta otsa
ortxe amaikak aldera
kaja zatar bat bizkar gañean
lau gizon pausoz batera
Illa zekarten denon aurretik
eraman zuten atera
lotuta zegon lekutik joan zan
bere askatasunera.
(Bertso 1994: 55)¹¹⁴

¹¹⁴ Ibidem.

5.4. Ezkaba menditik behera. San Kristobal presondegiko ihesaldia

Bordaxar baserrian Joxe eta hiru semeak ahal izan zuten moduan ohiko bizimodura itzuli ziren: mendi, baratze eta baserriko lanetara. Semeen heriotza jakin zutenean hutsunearen sentipena oso bizia izan zen. Gero hutsunea behin betikoa bilakatu zen. Eguneroko bizitzaren eremu guztietan agertzen zen senitartekoen gabezia, eta horrela bizi-funtzionamendua desgituratzen zuen. Joxek jarraitzen zuen bertsotan, eta hauxe egin zion Salbadori, adibidez:

Agur seme

Zorioneko zeraden arte
ezta paltako lagunik,
eztira, erle mandoen gixa,
losintxar eta lagunik.
Ekaitz gaiztoak asten badira,
eta zerua illunik,
orduan seme, zure ondora,
ezta etorko kutunik,
ezta beñere iraunkor izan
diruaren maitasunik.

Zure lagunak ikusi nairik,
joan nintzan etxe txurira,
Eztakit nundik, baña aberats
moduan bizi baitira.

Gogo txarretik bederen artu
ninduten beren erdira;
zure goraintzik eman orduko,
neri begira begira,
–eske al zatoz?– esan zidaten
lotsik gabe arpegira.

–Enator eske, erantzun nien,
eztet nai besteren gauzik,
neretzat eskas dedanetikan
bialtzen dietet pozik.

Enator onuntz beste ezertara,
nere semean goraintzik

beraren naia ala dalako
zuei eskeintzera baizik,
lagun maite bat orla uzteko
ez al dezute biotzik?

Ain errez aztu dezute beraz
amar urteko jarduna,
aukera zeukan garai aietan
orduan zuen kutuna.
Maite dun dana galduz erori
danean, ezta laguna,
zer kendurik eztezutenean
bakar utzita, urruna...
eskale batzuen martxa da ori;
ori ezta maitasuna!

Minbera da gure Jainkoak
bial dizun erasua,
etzendun gelditzerikan uste
ain bakar, seme gaxua!
Etzaite mindu joan zaizulako
lengo lagun saill osua,
Jesus'i ori egin zioten,
orla da mundu lausua,
agor baizaie ura zerion
beren iturri gozua.

Bijoaz seme, bijoaz urrun,
guretzat obe joatia,

probatu dezu lagun txar batek
egin lezaken kaltia.

Negu ondoren baletozkigu
berriro, seme maitia,
zabal dauzkate gure biotz ta
etxe ontako atia,
Pozik emango geniekegu
barkazioan pakia.

Argituko du; jaso biotza.
gaitzak eztu luzatuko,
barka itzazu gaizki egiñak
ta etzaizu damutuko.

Lagun urkoei ondo egiña
Jainkoak eztu aztuko;
ematen degun baso ura-re
alperrik ezta galduko,
gure lagunak bezela iñoiz
ezkaitu arek salduko.

Bañan alare danak eztira
oraindik kutsutu txarrez,
ba-dira, seme, aztu gabeak
lengo beren lagun zarrez.
Bakardadera datozkit noiznai
errukiz, erdi negarrez,
–Ar zazu, Joxe, semientzako–
maitasunaren indarrez,
beretzat eskas dun pixarretik
zerbait eskeñi bearrez.

Eme-zulotik atera gabe,
beti lanaren mendeko,
bakardadean nunbait beldurrez
daude ate au jotzeko.
Ainbeste giñan! orain ain bakar
mundu ontan bizitzeko,
gure mai xarran orduan zazpi
aulki utsik ikusteko,

eta jakinki batzuk geiago
eztiradela beteko.

Maitasun gendun dana galduta
biotz gaxoak naigabe,
zu lotuta, ni erdi lotuan,
etxea bera giltzape.
Arzulo ortatik bear dezuna
eskatu kupirik gabe,
ai, aita xar au gauza dan arte,
goseak ilko bada-re,
seme maitea, egingo zaitut
bear dezunaren jabe.

Ezkiñan sortu betiko nunbait;
deituko gaitu azkenak,
emengo goraberetan, seme,
izan gaitezen zuzenak.
Jaunak bereak gaitun ezkerro
ba-dakizki gure penak;
banan banaka, bere aurrera,
biltzen geranean denak,
zorioneko orduan orain
negar egiten dutenak:

Agur biotzez, seme maitea;
galdu nun sendi osua,
bederatzitik zazpiren palta,
au bai dala erasua!
Kabi utsari begira dago
tristerik aita gaxua,
amaika aldiz egin bearra
eman nai eztan pausua,
miru beltzaren atzaparretan
eztabil ondo usua.
(Zapirain 1966: 6)

Hala ere, bizitzak aurrera egiten zuen, eta etxeko animaliek eta baratzeak lana eskatzen zuten. Baserriko beharretan zeudela, 1938ko maiatzean, Joxek mugimendu susmagarriak sumatu zituen baserriaren ondoan. Berriro ere zerbait ari zen gertatzen etxearen inguruan. Astebete ondoren jakin zuten San Kristobaleko gotorlekutik, haren semeak zeuden espetxetik, preso talde batek ihes egin zuela:

“Milla bederatzi eun da ogei ta emezortziko maiatzaren ogei ta bian, presoak andik iges egin zutelako, etxe-inguru au guzia eiztariz bete ziguteken, motel. Auzoetako agure zar, anka-okar, begi-bakar, tallik gabeko, soldadurazko gauza etziran danak, etxe inguru oetan ziteken billera. Emengo ataka, langa, bide-gurutze nijoan lekura nijoala, beti eiztariren batekin topo egin bear. San Kristobal’dik iges egin bazuten, semeak etxe aldera joko zutela ta aiek arrapatu nairik jarritako sarea uan guzi ori.

Maiatzean bizi gerala ez al dakizue eta eizean ez dala zillegi?” (Ataño 1979: 240-41)¹¹⁵

Zapiraindarraren etxean hala konturatu ziren ezohiko zerbait gertatzen ari zela. Ihesaren berria *Diario de Navarra* egunkarian agertu zen, hura gertatu eta astebete beranduago. Argitaratu zen oharra guztiz nahasia zen eta aipatzen zen presondegi batean –non zehaztu gabe–, ihesaldia izan zela. Ihesaldi hartan, iheslarien kopurua zehaztu gabe, hiltzaileek eta bortxatzaileek hanka egin zutela zioten. Agintari frankistek ihesaren informazioa ezkutatu nahi izan zuten, espetxe-politikari ez ziolako mesederik egiten, baina hura gertatu eta denbora gutxira nazioarteko komunikabide idatzietan oihartzuna izan zuen ihesaldiak. *Diario de Navarraren* informazioa salbu, diktadurako 40 urteotan ez zen berriro agertu San Kristobal gotorlekuko ihesari buruzko beste berririk Espainiako komunikabideetan.

1938ko maiatzaren 22an izan zen ihesaldia. Une hartan presondegiaren barnean 2.487 atxilotu zeuden. Ihesaldian 795 presok alde egin zuten, planik gabe, gaizki jantziak, elikatu gabe, armarik gabe eta arrapaladan (Sierra eta Alforja 2005)¹¹⁶. Parte hartu zutenen kopurua kontuan hartuta, munduan inoiz gertatu den ihes handienetariko bat izan zen, baina hurrengo egunean eta asteetan 795 iheslarietatik 585 harrapatu zituzten bizirik, beste 187 inguruko mendi eta bideetan erail zituzten. Azkenean, hiru presok soilik

¹¹⁵ ATAÑO (1979) *Txantxangorri Kantaria*. Tolosa, Auspoa.

¹¹⁶ ALFORJA, Felix eta SIERRA, Iñaki (2005) *Fuerte de San Cristóbal, 1938, la gran fuga de las cárceles franquistas*. Iruñea, Pamiela.

muga zeharkatu, askatasuna lortu eta bizia salbatu zuten. Bizirik harrapatutakoen 16 iheslari buruzagitzat jo eta epaitu zituzten. Haietako 14ri heriotzazigorra ezarri zieten eta beste biei biziarteko zigorra. Urte hartako irailaren 8an, Iruñeko Ziudadelan fusilatu zituzten hamalauak. Adibide ona da infernu horretan nola jokutzen zen jakiteko.

“1938’an Maiatzaren 22’an, illunabarra. Zortziak igaro berria... Aparia eman eta oraindik bukatu gabea genin... tiro-otsak entzun genizkin.

“Bitarte ortan, etzekit nola, Zendoia Uzkudun’en illobak eta nik salletik iges egin genin... Bazekit zubitik atera nintzala. Ango ateeran ikusi nizkin bi edo iru illak; eta beste bat, alderik-alde balazo batek zulatua, ezin hillik... Ori dena ikusi ondoren, txutxenean barrura joan niñun, Jainkoarengatik ez ateratzeko esatera... (Zapirain 1985: 130-31)¹¹⁷

Salbadorrek zalantza izugarria zerabilen buruan, infernu hartatik alde egin nahi zuen, oso ahul ikusten zuen bere burua, ez zuen indarririk ezertarako. Aldi berean, baina, bihotzak alde egiteko esaten zion. Salbadorrek espe-
txeko kanpoko atea zeharkatu zuen, kalera irten zen. Han ikusi zuen zaindari baten gorpua, tirokatua. Hura ikusita, Salbadorrek arrisku handia sumatu zuen, zaindariak etortzen zirenean zer gertatuko zen imajinaezina zen, edo-
zer gauza gerta zitekeen zaindari frankista haien eskutik.

Kanpoaldean, harkaitz baten gainean igota, ihesaldiaren buruzagietako bat ikusi zuen, pistola eskuan. Zuzenean galdetu zion ea aukerarik ikusten zuen handik bizirik irteteko, edo Frantziako muga zeharkatzeko posibilitate-
rik ikusten ote zuen. Eta hark ere zuzen erantzun zion, handik ihes egiteko aukera gutxi zegoela. Beharbada, prestatutako lana ez zen ongi irten; haien asmoa zen kartzelari guztiak gordetzea, gutxienez biharamunera arte, horrela handik alde egiteko egun bat izango zuten. Lagundiaren korneta, zerbait gertatzen ari zela konturatu eta errepidean behera joan zen ziztu bizian. Iheslariak ezin izan zuten harrapatu. Ziur aski, hiriburuko agintariei eman zien ihesaldiaren berri.

¹¹⁷ ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

6. Gerraosteko giroa

“Bost urte inpernu berean igaro dizkiagu, ta emen ere
espetxean bizi gaituk”
(Zapirain 1984: 70)¹¹⁸

6.1. Gerra ez zen 1939an amaitu

Gerraren beldur eta izuen ostean, gerraondoa ez zen bigunagoa izan, gehien bat lurralde izendatu zirenetan. Gerraondoko lehenengo urteetan frankismoak errepresio sistematiko eta orokorra hedatu zuen edozein euskal sinboloren kontra. Eskola eta kalea hizkuntzaren errepresioaren eremu bilakatu ziren. Eremu publikoetan euskara erabiltzeko ezintasunak ezarri zuen euskararen kondena publikoa, eta hizkuntza etxeko eremu eta bizitza familiarerako geratu zen. Etxe giroko eta familiaren arteko erabilera izan zen euskarak zuen babesleku ia bakarra. Beharbada, diktaduraren errepresioak ezin izan zuen iritsi hizkuntzaren transmisiora, baina familia askotan euskararen transmisio hori etenda geratu zen. Errepresioarekiko beldurrak bere eragina izan zuen.

Erregimen berria estatu-kolpe batez ezarri zen; hau da, legalitate eta legitimitatearen aurka. Biak, legalitatea eta legitimitatea, lortu behar zituen. Errepublikara garaiko legedia bertan behera utzita, lege- eta erakunde-ordenamendu berriaren bidez ezarri zuen legalitatea. Eta legitimitatea eskuratzeke, berriz, doktrina berria ezarri zuten, bizitzaren alderdi guztietara hedatu zena: oroimen ahanzturaren politika. Horrela, Weber (1967)¹¹⁹ soziologoari jarraituta, legitimitatea da eskubide zehatz bat aldarrikatzea, eta aldarrika-

¹¹⁸ ZAPIRAIN, Salvador (1984) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

¹¹⁹ WEBER, Max (1967) *El político y el científico*. Madrid, Alianza Editorial.

pen horretan ulertu behar da nola taldeek bilatzen duten legitimitatea beste aurkariaren kontra.



Joxe Zapiain bost semerekin

Hain zuzen ere, erregimenaren ideologoen estatu-kolpearen beharra aldarrikatu zuten. Altxamendua ezinbesteko zela Espainiaren barneko ordena mantentzeko, gorrion menpean Espainiako hondamendia zetorrela, errepublikazaleak deabru guztien ordezkariak zirela eta horien artean, gaiztoenak, euskaldunak. Isiltasuna erregimenaren sortzetikoa zela barneratu zen. Isiltasuna sartu zen bizitza pribatuan eta pertsonen arteko harremanetan. Gizarte zibilaren bazter guztietara hedatu zen.

Gerra zibila ez zen 1939an amaitu, diktadorea etengabe agertzen zen albistei, egunkari, zigilu, argazki, iragarki eta testu-liburuetan. Ondorioz, gerran garaitutakoen marjinazioak, bazterketak eta beldurrak urteetan iraun zuten. Erregimen diktatorialak errepresio-mekanismo bortitzak ezarri zituen, eta errepresioak neurri gabeko beldurra hedatu zuen.

Errepresioarekin batera, erregimenak populazio zibilaren jardura kolaborazionistak bultzatu zituen, eta gerraosteko giroa oso susmagarria bilakatu zen. Aurkari politikoen gaineko kriminalizazio-prozesua kartzeletako zigorra baino haratago zihoan. Garaiotan, kontrolik gabeko izua, elkar akusatzea eta

bidegabekeriak bideratu ziren. Urte haietan, erregimenak gogortu egin zuen garaituen egunerokotasuna, garaituen oroimena adierazteko benetako zailtasunak izan ziren diktadorea hil arte (Ferrandiz 2005)¹²⁰.

Antolaketa frankista ordenarekin tematu zen. Kartzeletatik kanpo, kale, lantegi eta eskoletan militarren eredia zen nagusi. Ordena eta kontrola arrakastaz burutzeko, agintariak hainbat tresna erabili zituzten: udala, Falangeko herriko buruzagitza, kleroa, polizia, guardia zibila edo kolaborazionistak. Erakunde ofizialek pertsona susmagarrien jarrera politikoaz zein sozialaz informatu beharra zuten txostenen bidez. Eguneroko bizitzaren alderdi guztiak kontrolpean jarri nahiak errezelo eta akusatze giro itogarria sortu zuen gizartean, frankisten aldekoek ere hainbatetan pairatu izan zutena.

Matxinatuen erregimenak baldintzatu zituen jendartearen antolaketa eta hiritarren eguneroko bizitza. Errepublikaren eta euskal autonomiaren sinbolo, oroigarri, leku-izen eta egutegiko ospakizunak erabat ezabatzeko araudiak ezarri zituzten. Errepublika eta autonomiaren ikurren orde frankismoaren iruditegiarekin lotutako beste oroigarri batzuk jarri zituzten. Hargatik, gizartean mugarri batzuk ezarri zituzten: kolpista nabarmenduen, borroka lekuen eta daten oroigarriak, besteak beste. Finean, Espainia berria sortu zela adierazi nahi zuten.

Gerraostean penagarria zen euskal munduaren egoera, existitzen ez zen mundua zen. Joxe Azurmendiren hitzetan (1977: 41) “herri mutua da Euskal Herria. Azken urteotan batez ere, gerraz gerozkoan”. Hau da, gerrako kainoi hotsak isilduta, hamar urte igaro behar izan ziren Salvatore Mitxelenaren poema erlijiosoa argitaratzeko. Gerra bukatu eta hamarkada bat geroago hasi zen euskal kulturaren errekupeazio ahula. Isiltasun urte haietan, eliz eraikinetan, komentu, seminario eta horrelakoetan landu ziren euskara eta euskal literatura, isilpean betiere (Tejerina 1999)¹²¹.

Beharbada, horrexegatik erabili zuen Salvadorrek “inpernu” metafora. Behin baino gehiagotan agertzen da metafora hori espetxe zein kaleko giro itogarria azaltzeko.

¹²⁰ FERRANDIZ, Francisco (2005) “La memoria de los vencidos en la guerra civil” in VALCUENCE DEL RIO, José M^a, NOROTZKY, Susana (2005) *Las políticas de memoria en los sistemas democráticos: Poder, cultura y mercado*. Sevilla, Fundación del Monte.

¹²¹ TEJERINA, Benjamín (1999) “El poder de los símbolos, identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco” in *Revista Española de Investigaciones Sociológicas* 88 (75-105).

“Neretzat inpernua ez dek besterik: jainkoaren eskutik utzia, inori eze-
ren onik opa ez dioten deabruaren mende. Emengo kankallu batzun an-
tzera, oien atsegiña zigortzea uan (Zapirain 1985: 83)¹²²

Halaber, Joxek *Inpernua* izenburua jarri zion bertso-sorta bati. Gorago ere aipatu den bezala, errepresioa eguneroko ogia zen gerraosteko urteetan. San Kristobal espetxeko ihesaldia gertatu eta egun gutxira, Guardia Zibilak Joxe-
ren biloba atxilotu zuen, Donostiako Antigua auzoan. Badirudi Donostiako
eliza batera sartu zela meza entzutera jakin gabe elizkizuna gudarien aldekoa
zela. Guardia Zibilak elizan bildu ziren guztiak atxilotu eta Infernu izeneko
auzogunean zegoen atxiloketa-zentrora eramán zituen, Donostiako Antigua
auzoan.

Bertso-sorta honetan, Joxek auzoaren izena erabili zuen, infernua, urte
haitakoko egoera errepresiboa irudikatzeko.

Dozenaerdi bat bertso
biar ditut jarri
denbora pasatzeko
entreenigarri,
lenguan funziyo bat
zutelako jarri
eta zer gertatu zan
esango det sarri:
erakutsiko digute
inpernuko berri.

Entendimentutikan
nagola sanua
ango pasadizua
esatera nua;
beñere etzait aztuko
orduko lan ua;
Elizatik artuta
Preso inpernura;
arren, libra gaitzazu,
Aita Eternua.

Ango pasadizua
nua esatera...
eta sinistatzia
posible ote da?
Borondatez joan giñan
meza entzutera
barrenen ginen denak
kanpora atera
gero preso eramán
kartzela batera.

Zer esatera nuan
au goguan jaso.
Eta jende guztiya
beldurtu zan oso,
esan dan funziyo ori
izan dala kaso;
lagun asko giñaden
seme ta guraso;
elizan giñan danak
inpernura preso.

¹²² ZAPIRAIN, Salbador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

Kontatu bihar ditut
orduko kasuak,
aztu gabiak dauzkit
goguan jasuak.
Guziyak arrapatu
gaitu erasuak,
katolikuak eta
relijiosuak,
alare ez gaitu erre,
inpernuko suak.

Oyek egin dituzte
orrelako lanak,
presidiyuan sartu
elizara juanak,
nola emakumiak
igual gizonak
berexi gabetandik
gaixto eta onak
artu aurrian eta
inpernura denak.

Batzuek izututa
bestiak beldurtu,
eta jendia zuten
oso gogor artu.
Memoria ona daukat
naiz pixka bat zartu,
oyen aziyua inork
ez lezake partu
bizirikan gaudela
inpernura sartu.

Nunbait guziyak igual
genduen merezi,
gaixtorik eta onik
ezuten berexi;
alako funziyoric
nik ez det ikusi;
batzuek eskapatu
ziyoten igesi;
jakiña inpernuan
etsaya nagusi.
(Zavala 1975: 322)¹²³

6.2. Libre al gara?

San Sebastián 9 de abril de 1940

Examinadas por la Comisión de Examen de Penas de Guipúzcoa, no procede proponer conmutación de pena en lo que se refiere a Antonio y José Ramón Zapirain Eceiza, por haber sido ejecutada la pena de muerte impuesta a los mismos. En cuanto a los condenados Salvador y Juan José Zapirain Eceiza, a quienes les fué impuesta la pena de veinticinco años de prisión mayor, esta Comisión eleva a la Superioridad propuesta de conmutación de las indicadas penas por las de tres años de prisión menor como comprendidos en el Grupo VI del anexo de la O.C. de veinticinco de Enero de 1940.¹²⁴

¹²³ ZAVALA, Antonio (1975) *Zapirain anaiak. Juan Kruz (1867-1934). Joxe (1873-1957)* Tolosa, Auspoa.

¹²⁴ Sumariotik hartua, 77 orrialdea.

Zigorak aztertzeke Gipuzkoako batzordearen erabakia Espainiako Gobernu Kontseilura bidali zen. Hiru urte igaro ondoren, 1943ko maiatzaren 3an, Espainiako Ejertzitoko ministroak sinatu zuen Salvador eta Juan Jose Zapi-rainen askatasuna.

“Gu, gauza ziran traste pixarrak artu ta lagunak agurtuz, irten giñun espetxe txiki batetik aundiagora” (Zapirain 1985: 189)¹²⁵

Urduñako presondegiko atea gurutzatzean, biei bizipen traumatikoak pilatu zitzaizkien (famiaren atxiloketa, anaien fusilamendua, ezagututako espetxeak, izandako gabeziak, lagunaren desagertzea...). Askatasunaren itxaropenak aurre egin behar zion errealitate gordinari, Francoren erregimen errepresiboak errealitatea ziprizzintzen zuen.

Hala ere, Zapirain anaiak pozik zapaldu zuten berriro kalea, poza erabatekoa izan ez arren. Hainbatetan bezala, gogoan zeramatzaten Antonio eta Jose Ramon anaiak, baita burdina artean utzitako hainbat lagun ere. Espetxekeko bizipenak bihotzaren barnean zeramatzaten, bazirudien oroitzapen traumatikoak denbora-markoaren gainetik eraikitzen ari zirela. Gogorapenak euren baitan gorde zituzten. Salvadorrek zein Juan Josek ezin zituzten hainbat oroitzapen atzean utzi. Agian, hori izan zitekeen oroimen traumatikoaren ezaugarrietako bat (Alvarez Fernandez 2007: 100)¹²⁶.

Garai hartan espetxetik irtendako pertsona askorentzat, askatasuna bizipen paradoxiko eta kontraesankorra izan zen. Presondegi barneko esperientzia gairiditzeko zailtasunak zituzten, eta are zailagoa gertatu zitzaizen esperientzia hori kanpoko munduarekin uztartzena. Kasu askotan, kalera irtetea esperientzia traumatikoa izan zen, eta trauma horren intentsitatea eta iraupena bizitza normalean integratzeko aukeren arabera izan zen.

Bi anaiak Bordaxar baserrira heldu ziren azkenean, atzean utzita atxiloketa, bi anaien gorpuak, lau urteko infernua eta etsipen mingotsa.

“San Martzial arratsaldean –igande uan–... Donosti’tik erreka erreka igota... San Kristobaleko nere semeak itun. Laxterka joan giñun, alkar besarkatuz. Gurekin uan Telleri’ko Joxe ere (Ataño 1979. 267)¹²⁷

¹²⁵ ZAPIRAIN, Salvador (1985) *Zigorpean*. Tolosa, Auspoa.

¹²⁶ ALVAREZ FERNÁNDEZ, Jose Ignacio (2007) *Memoria y Trauma en los testimonios de la represión franquista*. Barcelona, Anthropos.

¹²⁷ ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.

Presondegitik kanpoko bizitza ez zitzairen erraza suertatu bi anaiei. Alde batetik, soldatapeko lanean aritzeko zailtasunak; bestetik, bizilagun eta auzokide batzuen gainekiko errezeloak. Erregimen handi-mandien harrotasuna eta inpunitatea bazter guztietara zabaldu zen. Errepresioaren aurpegiak anitzak ziren: larderia, hertsadura eta irainak. Edozein tokitan jazotzen ziren horiek, baita igandeko mezetan ere. Altzako parrokoak, Felix Amianok, elizako pulpitutik iraintzen zituen zapiraindarrak auzokideen aurrean.

Sonatua izan zen apaiz haren sermoi bat, Altzako historian geratu den sermoia. Indar nazionalak Bilbora sartu zirenean meza ospatu zuen parrokoak, eta sermoian esan zuen txerrien odolak euskaldunenak baino askoz balio handiagoa zuela. Txerrien odola odolkiak egiteko erabil zezakete, Bilbon hildako euskaldunen odola, ordea, ezta hestekiak egiteko, ez eta simaurtzarako ere (Zapirain, M. 2001: 54)¹²⁸. Amiano jaunak sermoia euskara dotorean egin zuen.



Salbador Zapirain

Joxe Zapirain ez zen libratzen parrokoaren irainez; behin baino gehiagotan, Joxe izaten zen apaiz haren hizketa-gaia. Pulpitutik aditzera ematen zien eliztarrei kontuz ibiltzeko Joxe Zapirainekin. Joxe zen semeen hilketaren arduradun bakarra, hark erakutsi zien semeei aberzaleatasuna zer zen. Horregatik, Joxeren gainera erori behar zuen Jainkoaren mendekurik gogorrenak. Hura zen semeen heriotzaren arduraduna.

Altzako parrokoak oso azkar ahaztu zuen nazionalistek eman zioten babes. Amianoren atzetik talde anarkista bat zebilen, eta altzatar batzuek babes eskaini zioten, Altzako jeltzaleak haien artean. Gau batean, parrokoaren etxea anarkistaz inguraturik zegoela, Felix Amianok jeltzaleen laguntzari esker egin zuen ihes (Barandiaran 2005: 94)¹²⁹. Laguntzaileen artean Joxeren seme zaharrena zegoen.

¹²⁸ ZAPIRAIN, Manuel (2001) "Alta lenago zer zan" *Alta. Hautsa Kenduz* 6 (51-57).

¹²⁹ BARANDIARAN, Jose Migel (2005) *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por D. José Miguel de Barandiaran*. Milafranga, Bidasoa Edition.

Lanik eta ilusiorik gabe, fraideekin bake apurra lortuko zuelakoan, Salbador kaputxinoekin joan eta komentuan sartu zen. Han, *ora et labora*, baratza lantzen eta idazten igaro zituen urteak. Hala ere, fraide-etxean ere sumatu zuen erregimenaren itzala, ez zuen bere burua lasai ikusten. Fraideen komunitateko buruek pertsona arriskutsua zela uste zuten. Lagun gutxik ezagutzen zuten Salbadorren iragana, gutxi batzuekin hitz egin zezakeen espetxe-ko esperientziaz, edo familaren zorigaiztoez. Kide zehatzekin partekatu zituen espetxean bizi izandako zoritxarreko pasarteak.

7. Bertsoak: oroimena eta emozioaren gordailua

“Gure arnasa orixe uan: bertsoa”.
(Ataño 1979: 77)¹³⁰

7.1. Bertsolariak, tradiziozko euskal komunikatzaileak

Euskaldunok erabili dugun komunikabide nagusia bertsoa izan da, horrela zioen Joserra Garziak artikulu batean (2008)¹³¹. Euskalerritar gehienak euskaraz aritzen ziren bitartean, gutxiengo alfabetatuak erdarara –gaztelaniara zein frantsesera– jotzen zuen bere idazkietan (Eizagirre 2007: 11)¹³². Ziur aski, idatziaren ekoizpen urriak bideratu zuen ahozketasunaren arrakasta eta, bide batez, herri xehearen ahotsa izan zedin erraztu zion bertsolariari (Davila 1995: 261)¹³³.

Badirudi bertsolariak erkidego eta kulturaren erreferente esanguratsuak izan direla. Baina, erreferente sinbolikoak izateaz gain, herriko berri-emaileen papera egitea suertatu zaie edo, Antonio Zavalak zioen moduan, “bertsolariak kronista eta periodistak izan dira” (Zavala 1983: 12)¹³⁴.

Izan ere, bertsolariak bizitza sozialaren alderdi ugari kantatu diote. Sarritan, eguneroko kontuak hartu dituzte bertsoen ardatz moduan. Horrela, begien aurrean gertatzen ziren jazoerak hartu dituzte: auzo-lagunen arteko tirabirak, herri-kiroletako demak, nagusien eta menpekoen arteko harrema-

¹³⁰ ATAÑO (1979) *Txantxangorri kantaria*. Tolosa, Auspoa.

¹³¹ GARZIA, Joserra (2008) “Baina bihotzak dio...” in *Bertsolari* 70 zk (24-59).

¹³² EIZAGIRRE, Ana (2007) *Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

¹³³ DAVILA, Pauli (1995) *Lengua, escuela y cultura*. Leioa, Euskal Herriko unibertsitatea.

¹³⁴ ZAVALA, Antonio (1983) *Kuba'ko gerra*. Tolosa, Auspoa.

nak, gertakari tamalgarriak, ezbeharrak, natur hondamendiak eta beste hainbat. Halaber, betidanik erabili izan dira bertsoak propaganda eta gorazarreak egiteko. Hor ditugu, besteak beste, hildakoen oroimenaren aldekoak edo hainbaten merituak azpimarratzen dituztenak.

Alabaina, egitate historikoekin loturiko bertso ugari aurki daitezke. Bertsoetarako erabili diren gertakizun historikoen artean nabarmen ditzakegu, hainbatik hainbatean, honako hauek: Frantziako iraultza, Napoleonen gerrak, Konbentzioko gerra, Kubakoa, Espainiako gerra zibila edota I. eta II. Mundu gerrak. Euskaldunen gogoan gordetzen dira oraindik gerraren inguruan bi bertsolari klasikoren bertsoak: Juan Frantzisko Petrikorenak, Xenpe-larrek, I. Mundu gerrari buruz kantatu zituen bertso-kronikak, edota Joxe Manuel Lujambiok, Txirritak, I. Mundu gerraren eta Kubako gerraren inguruan sortu zituen bertso sortak.

Halaxe, Espainiako gerra zibilaren garaiko borrokak, harekin lotutako gertaerek eta bakearen eta askatasunaren aldeko aldarriek lekua izan zuten urte haietako bertsolaritzan. 1936an, Eusko Jaurlaritzak sortutako *Eguna* egunkarian bertsolari askok izan zuten lekua. Bertsolari haien artean hauek nabarmendu behar dira: Basarri, Aterrene, Erriko eta Erluetxe. Fronteko gudariak animatu zituzten hitz neurtuen bidez guztiek ere (Altzibar 1977: 55)¹³⁵. Adibide gisa, hona hemen Basarri bertsolariaren bertso-sorta bat. Erreferentziako txapeldunak, Basarrik, *Eldu da ordua* bertso-sortaren bitartez aberriaren aldeko borrokan parte har zezaten animatu nahi zituen euskaldunak:

Gorroto beltzez josirik dator
etsai txar amorratua
bera da gure erri apañak
grña gaiztoz apurtua.
Ainbat aurtxo ta giza emakume
betiko lurperatua.
Jeiki euskoak! Zutiñik denok!
Eldu da gure ordua!

Gure erri zar au ondatzeko
oiek dakarten gogua:
gu euskotarrok irentsitzea
amets etengabekua,
gaur gure jokerari begira
jarria dago mundua.
Jaiki euskoak! Zutiñik denok!
Eldu da gure ordua!

¹³⁵ ALTZIBAR, Xabier (1977) "Etxagerrateak sorturiko Eguna, lehen Euskal egunkaria" in *Oihernart* 14 (47-56).

Edesti bikain garbia degu
anai maiteok, lengua,
nolanai ezin utziko degu
ezeraztuta galdua...
Gora biotzak! Eman arpegi,
jaso dezagun burua!
Jeiki euskoak! Zutiñik denok!
Eldu da gure ordua!

Gauza bat euki bear genuke
oso gogoan artua,
gure erriaren etorkizuna
orain dala agertzekua.
Ez dezagula galtzera utzi
irabaz leiken kojua:
il edo bizi, gudari denok,
eldu da gure ordua!
(Tapia 2006)¹³³

7.2. Zapiraindarren bertsozaletasuna

Bigarren atalean esan bezala, Zapirain familiako haurrideek etxean ikasi zituzten bertsoarako sekretu eta teknikak. Baserrian zein adiskideen harremanen artean ikasi zituen Joxe Bixente Zapirain aitonak; modu berean ikasi zituzten Juan Kruz eta Joxe Zapirain anaiek; eta horrela trebatu ziren Salbador Zapirain eta besteak.

Beharbada, gaurko bertso-eskolak sortu arte, bertotan ikasteko modu bakarra etxekoen eta lagunen ahozko transmisioaren bitartekoa izaten zen. Bertsozaleak hainbat bertso-sortaren kantuan trebatzen ziren, edo beste batzuek sortutakoa errepikatzen. Pentsa daiteke munduko hainbat lurraldetako inprobisatzaileek modu berean ikasten zutela. Ziur aski, antzekotasunak egon daitezke ahozko generoetan trebatzeko orduan. Orobat, bertsoak lantzeko modurik hedatuena etxekoen arteko transmisioa izan zitekeen (Barandiaran Amarika 2000)¹³⁶. Zapiraindarrek, beste bertsolari dinastiek bezalatsu, ongi jakin zuten etxekoen artean bertsoarako zaletasuna transmititzen. Horrela eraiki zituzten zaletasuna, doinuak, arau formalak eta bertsoarako ezagutza eta teknikak. Euskal Herrian ugariak izan dira zeregin horretan nabarmendu beharreko beste hainbat bertsolari, hala nola Otaño, Enbeita eta Elizegi.

Gaur egun bertsoaritzak berekin dakar jendaurreko interpretazioa. Beraz, bertsoaritzak ezinbesteko lotura du *performancæ*ekin eta jendaurreko ikuskizunarekin. Zapiraindarrak, aldiz, ez ziren nabarmendu jendaurreko

¹³⁶ BARANDIARAN AMARIKA, Asier (2000) "La fórmula en el bertsolarismo de los Enbeita" in *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*. 84 (239-264).

bertsogintzarengatik. Juan Kruzek eta Joxek oso gutxitan kantatu zuten jendaurrean, eta oso une zehatzetan jardun zuten hala. Anaiak nahiago zuten inprobisaziorako eremu intimoak (Larrañaga 1997)¹³⁷, herriko plazetatik aldenduak: elizak, lagunen etxeak edo inguruko tabernak. Horrenbestez, esan daiteke zapiraindarrena lagunarteko bertsolaritza izan zela.

Beraz, zapiraindarrak ez ziren plaza gizonak izan. Zavalak zioen bezala, ahotsean zuten tonu txikia izan zitekeen arrazoietakoa bat, “aboz txikia zuten” (Uria 1983: 30)¹³⁸, ez ziren plazako bertsolariak. Horren harira, ez da betetzen Gorka Aulestia proposatutakoa: plaza gizona bertsolari ona da, eskarmentua duena, musikarako entzumen ona duena, baina batez ere, jendaurrean bere ahotsa aktibatzen jakin duena (Aulestia 1990)¹³⁹. Jendarteko jardunerako ahotsa garrantzitsua da, gogorazteko eta esangura sinbolikoa sortzeko ahalmen handia du ahotsak. Orduan, inprobisatzaileak, jendaurreko kantuan ahotsa erabili behar du, performance eraginkorra izan dadin.

7.3. Zapiraindarrak: gerra zibila eta bertsoak

Zapirain-Ezeiza familiaren oroimen haragitua bi osagaien inguruan egituratzen da, eta honakoak dira: bertsotarako zaletasuna batetik eta gerrak utziriko oroitzapenak bestetik. Lehenengoa, senitartekoen bertsotarako eta bertsolaritzarekiko zaletasuna, tradizio familiarrari jarraituta, bidaide izan zuten bizitza osoan. Bigarrena, berriz, Espainiako gerra zibilak haiengan laga zituen oinatz odoltsu eta mingarriek bideratu zutena, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko uztarketa izan zen (Del Valle 2000: 249)¹⁴⁰.

Dena dela, oroimen familiarraren osagaiak, elkarrekin gurutzatu ziren familiaren senitarteko bakoitzean eta belaunaldiz belaunaldi transmititu izan dira. Bi osagaiak, bizitza-erreferente esanguratsuak balira bezala, moldatu zituzten Zapirain-Ezeizatarren oroimena, jakintza, bizipen eta erabakiak hartzeko ahalmena.

Arrasto batzuk ezabatu ezin diren bezala, Zapirainen etxean ezin dira ezabatu gerrari eta errepresioari lotutako bizipen, irudi eta oroitzapenak. Gogorapen mingarri horiek, emozio bizitara bilduak, irudimenaz eta oroimenaz

¹³⁷ LARRAÑAGA ODRIOZOLA, Carmen (1997) “Del bertsolarismo silenciado” in *Jentilbaratza* 6 (57-73).

¹³⁸ URÍA, Iñaki (1983) “Pasatako denak gogoan” in *Argia* 981 zk (29-31).

¹³⁹ AULESTIA, Gorka (1990) *Bertsolarismo*. Diputación Foral de Bizkaia. Bilbo.

¹⁴⁰ DEL VALLE, Teresa (2000) *Perspectivas feministas desde la Antropología Social*. Barcelona, Ariel.

osatutako oreak dira. Jakin badakigu gizakion oroimena selektiboa dela, ezin dugula dena gogoan gorde baina, ahanzt daiteke Espainiako gerra zibilean eta gerraondokoa senitartekoek bizi izan zuten tragedia? Eta ahaztu badaitteke ere, ez ote du, ahanztura urraturik, arrastorik utziko?

Bizitzan izandako esperientziez gain, gizakion oroimenean txertatzen dira memoria-lekuak, ametsak, itxaropenak, objektuak eta bizipen traumatikoak (Prat 2008: 159)¹⁴¹. Oroimenaren bizitzan zeharreko osagai horiek gorputzean giltzatzen dira, prozesu horren bidez oroimena haragitzen dela esan daiteke (Del Valle 1999)¹⁴². Ideia horrek gogora dakar Pierre Bourdieuren kontzeptu bat: “habitus”. Oroimenean geureganatzen eta barneratzen ditugun osagaien bitartez joaten gara eraikitzen geure eskema kognitibo eta sortzaileak, gure habitusa. Hau da, mundua hautematea eta munduan partaide izatea ahalbidetuko duen mekanismoa (Prat 2008: 159)¹⁴³. Beraz, oroimenaren osagaiek gorputzean aurkitzen dute ezkutalekua, eta gorputzean bertan grabatzen dute informazio inkontzientea: beharrak, ametsak, emozioak eta izuak. Denboraren poderioz oroitzapen horiek, gorputzean babesa lortu dutenek, esanahi eta zentzua har ditzakete, espazio- eta denbora-egituren bitartez (Del Valle 1999: 213)¹⁴⁴

Gorputzean iltzaturik gorde ditugun oroimenaren arrasto horiek existenziaren funtsezko gertaeretan agertzen dira, iragana-oraina-etorkizuna ardatz artikulatzaile gisa ezagutzera ematen dira. Moldatutako esperientziek estuki dihardute elkarlanean gure identitatearekin, gure nortasuna moldatzen dute sentimenduen edo hautemateen bitartez. Halaber, aipatutako oroimen haragituak etorkizunerako itxaropenak, desioak eta ametsak sortzeko ahalmena du. Sarritan, oraina azaldu ahal izateko, iragana agertzen zaigu, fikziozko materiala balitz bezala.

¹⁴¹ PRAT, Joan. “Antropología de la memoria en la obra de Teresa del Valle”. *Ankulegi*, 12, 2008, 151-165.

¹⁴² Teresa del Vallek kronotopoen azterketa proposatzen du estrategia metodologiko gisa. Kronotopok oroimenaren ardatz esanguratsuak dira, dinamismorako eta sintesirako duten ahalmenaz baliaturik, gizakiaren bizitzan hartzen dute parte, gizakion errealitateari eta munduari buruz dugun esanahia bideratzeko.

DEL VALLE, Teresa (1999) “Procesos de la memoria: Cronotopos genéricos”. *Áreas: Revista de Ciencias Sociales* 19 (211-225).

¹⁴³ PRAT, Joan. “Antropología de la memoria en la obra de Teresa del Valle”. *Ankulegi*, 12, 2008, 151-165.

¹⁴⁴ DEL VALLE, Teresa (1999) “Procesos de la memoria: Cronotopos genéricos”. *Áreas: Revista de Ciencias Sociales* 19 (211-225).

Orain arte esan denaren arabera, Zapirain-Ezeiza familiaren oroimen prozesuak ez du bakar-bakarrik iragana gorde, zeren oroimenak egituratzen du oraina. Hein handi batean, gizakiok iraganeko erreferentzietan oinarritzen bagara ere, etorkizuna proiektatzeko oroimena ezinbestekoa da. Beraz, esan daiteke oroimenak zeregin ugari dituela: iragana interpretatzen du, identitatea sortzeko funtsezko osagarriak biltzen ditu, bizitzari eta ekintzari zilegitasuna ematen die. Horregatik, esan daiteke oroimenean gordetakoek norbanakoen zein familiaren balioak eta ikuskerak sortzen dituztela (Conner-ton, 1989)¹⁴⁵. Oroimena ez da soilik mundua erreproduzitzeko gogoak duen dispositiboa, baizik eta mundua interpretatzeko gizakiok erabiltzen dugun tresna kognozitibo interesgarrietakoa (Arostegui 2004: 16)¹⁴⁶.

7.4. Emozioetatik irtendako bertsoa

Bertsolaritza beste mundu bat zela definitzean, Manuel Lekuonak (1983)¹⁴⁷ gaineratu zuen bertsolariari era dialektikoan arrazoieta aritzea gustatzen zitzaiola. Amurizaren (1981)¹⁴⁸ aburuz, bertsolaritza dibertimendua da, ariketa bat, kirola, hitzekin eta hizkuntzarekin jolasean aritzen da bertsolaria. Gaur egun hedatuta dago pentsaera transmititzeko eta komunikatzeko bide bat dela. Ildo horretatik, Gartzia, Sarasua eta Egañaren *Bat bateko bertsolaritza, gakoak eta azterbideak* (2002)¹⁴⁹ liburua dugu. Ikuspuntu teoriko horrek erretorikaren generoan sartzen du bertsolaritza. Bertsolarien diskurtsoak arau zehatz batzuen menpe garatzen dira, betiere komunikazioarekin lotuak, eta neurriaren, errimaren eta doinuaren bitartez. Jone Miren Hernandez (2011) irakasleak zioen bezala, bertsolaritza definitzeko erabili zen eskema teoriko hark albo batean utzi zuen emozioa, baztertu egin zuen bertsolarien emozioen mundua.

Gutxitan aipatzen da emozioa bertsolaritzari buruzko ikerketetan, baina bertsolaritza kulturaren molde adierazkorra da, mundu emozionalaren bitar-

¹⁴⁵ CONNERTON, Paul. *How societies remember*. London: Cambridge University Press, 1989.

¹⁴⁶ AROSTEGUI, Julio. "Retos de la memoria y trabajos de la historia" *Pasado y Memoria. Revista de Historia contemporánea*, 3, 2004, 5-51.

¹⁴⁷ LEKUONA, Manuel (1978) "La poesía popular vasca. Itzaldia. Eusko Ikaskuntzaren batzarran, Bergarako udaletxean, 1930" in LEKUONA, Manuel *Idazlan-guztiak. 1 Ahozko literatura*. Tolosa, Librería Técnica de Difusión.

¹⁴⁸ AMURIZA, Xabier (1981) *Hitzaren kirol nazionala*. Gizaburuaga, Hika mika.

¹⁴⁹ GARCIA, Joserra; SARASUA, Jon eta EGAÑA, Andoni (2002) *Bat-bateko bertsolaritza; gakoak eta azterbideak*. Donostia, Bertsozale elkarte.

tez bizipenak sortzen dituen (Hernandez 2011)¹⁵⁰. Bertsolaritza, beraz, ez da soilik tresna komunikatibo bat, euskaldunen begien aurrean gertatutakoa kontatzen duena. Bertsoak eta emozioak, Goffman-ek (2006)¹⁵¹ esango lukeen bezala, zenbait errealiteren marko interpretatzailea osatzen dute; finean, enmarkatze metodologikorako (Batenson 1972)¹⁵² tresnak oso ahultsuak dira.

Asun Garikanoren (2009)¹⁵³ *Far Westeko Euskal Herria* liburua adibidetzat erabili zuen Jone Miren Hernandezek bertsolarien emozioaren indarra azaltzeko. Liburu horretan erakusten da herriminaren emozioa transmititzeko euskaldunek bertsolaritza erabili zutela sarritan. Urrutira joandako euskaldunak bertsoen bitartez harremanetan sartzen ziren euskal lurretan utzitako lagun eta senitartekoeekin. Beharbada, herrimina sentimendu unibertsala da, gizaki guztiok sufritzen dugun mina izan daiteke, eta euskaldunak sentimendu hori bideratzeko bertsoez baliatu ziren. Joxe Zapirainen kasuan bezala, Amerikara joandakoek, modu arruntez edo hitz lauez azaldu ezin zutena bertsoen bidez egiten zuten.

Esan dugun bezala, Joxe Zapirain bertsoez baliatu zen barneko sentimenduak eta emozioak uxatzeko. Horixe bera egin zuen Juan Kruz Zapirainek alargundu zenean, Mikaela emazte hil berriari, bertso bihotz-erdiragarriak eskaini zizkionean. Haren anaiak, Joxe Zapirainek trantze bera ezagutu zuen eta bertso-sorta ederrak sortu zizkion berak ere hildako emazteari.

Emazteari bertsoak eskaini eta urte batzuk geroago, Joxek adierazpide bera jorratu zuen seme fusilatuen omenez sortutako bertsoetan. Loak hartu ezin zuenean, zoramenaren ertzetan murgilduta, mamuak eta izugarrikeriak uxatzeko bertsoa zuen tresna bakarra. Errealitate irudikaezinaren aurrean bertso osatzea zen helduleku bakarra. Halaber, antzeko bideetan aritu zen Salvador Zapirain, bertso-sortak egin zituen kartzeletako bizimodua aitari azaldu behar zionean. Are zirraragarriagoak izan ziren Antonio Zapirainek espetxeko heriotza-kaperan josi zituen bertsoak. Borreroen aurrean, apaizak

¹⁵⁰ HERNANDEZ, Jone Miren (2011) "Palabras que emocionan" FAEE Estatu Espainoleko Antropologia Elkartearen XII. Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, argitaratu gabea. Egileak emana.

¹⁵¹ GOFFMAN, Erwing (2006) *Frame-analysis: los marcos de la experiencia*. Madrid, Centro de Investigaciones Sociológicas.

¹⁵² BATENSON, George (2004) *Pasos hacia una ecología de la mente. Colección de ensayos en antropología, psiquiatría, evolución y epistemología*. Buenos Aires, Lumen.

¹⁵³ GARIKANO, Asun (2009) *Far Westeko Euskal Herria*. Iruñea, Pamiela.

lagunduta, fusilamendu-taldea noiz helduko zain, familiari idatzi zion bertso-sorta.

Emaztearen eta semeen heriotzari aurre egiteko, Zapirain zaharrak bertsoen bidez bideratu zituen barneko sentsazio pertsonalak, bertsoa adierazpenen bide bilakaturik horrela. Bi kasu horietan, emozioa da bertsoen jatorria. Beraz, bertsoak sortzean emozioak jendaurrean jarri zituen, denek jakin zezaten emaztearen eta bi semeen heriotzek arima urratu ziotela. Behar bada, negarrari emango zion Joxek hainbatetan, gizon emozionala eta sentibera zen aldetik. Gure kulturaren, ordea, gizona ez zaie onartu emozioak negarraren bidez azaltzea eta Joxek, eta beste hainbat eta hainbat euskaldunek ere, emozionaltasuna bertsoen kantuen bidez azaldu ahal izan zuten (Hernandez 2001)¹⁵⁴.

Bertsoen kantuen bidez, Joxek barnean zeuzkan oroimen traumatikoak sortarazi eta memoriatik ezabatu nahi zituen. Oroimen traumatikoen jatorria ezin zuen ulertu: gerra, heriotza eta gorrotoa. Hiru osagaien inguruan osatu zen Joxek gogo barnean zuen mamua.

Joxek emozioetatik abestu zuen, semeak fusilatu dituztela jakin duenean aitari sortzen zaizkion emozio erdiragarrietatik. Zapirain zaharraren kasuan, gerra zibilarekin mundua erabat aldatu zen, ezin zuen inolaz ere ulertu zer gertatu zitzaion, ezin zen arrazoizko hitzen bidez azaldu, adimen arrunt batek ezin zuen sinetsi. Horregatik, bertsoak jo behar zuen. Joxek sormenaren eta artearen hizkuntzara jo behar zuen. Horrelakoetan galdera anitzak suertatzen dira. Adorno filosofoak (2009)¹⁵⁵ erretorikoki beren buruari galdetzen zion bezala, ea poesiarik sor daitekeen semeak fusilatu eta hil dituztenean, ea horrelakoetan bertsoak kanta daitezkeen. Zalantzarik gabe, Joxek baiezkoa emango zukeen. Zapirainen kasuan, gerra eta etsipenaren garaian bertsoak izan zitezkeen barneko emozioa eta sentimenduak bideratzeko bide bakarrenetakoa.

Izan ere, bertsoen kantuek bezala, madarikazioak hitzaren eraginkortasun traumaturgikoan sinesten du; hau da, hitzek, ozenki esandako hitzek, munduaren gainean eragiten dute. Horregatik madarikazioetan kokatzen diren izen eta izenondoak ongi aurkituak dira, eta madarikazioak, botoak bezala,

¹⁵⁴ HERNANDEZ, Jone Miren (2011) "Palabras que emocionan" FAEE Estatu Espainoleko Antropologia Elkartearen XII. Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, argitaratu gabea. Egileak emana.

¹⁵⁵ ADORNO, Theodor W. (2009) *Crítica de la cultura y sociedad I*. Madrid, Akal.

ozenki eta jendearen aurrean esan behar dira. Madarikatzeo eskubidea duenak ez du ahopean egiten, madarikazioa ozenki esan behar da, horrela egi-leak bere burua babesten du (Valcarcel 2010: 48)¹⁵⁶. Laidotuen ahotsa iritsi-ko da, zabalduko da, norbaitek jakingo du mendekua ezartzen edo justizia egiten, horrela inork gordeko ditu hitz horiek oroimenean, zeren ez da ezer egiten alperrik (Valcarcel 2010: 48)¹⁵⁷.

Emozioak azaltzeko modurik ez zegoenean, Joxek bertso sormenera jo behar zuen. Kasu horietan bertsoa sortzea arima sendatzeko ukendua izan zitekeen (Hernandez 2011), beste modu batean sendatu ezin daitekeena sendatu ahal izateko. Horrenbestez, inprobisazioa, kantu ozena edota madarika-zio ozenak, horiexek dira gertakari tragikoek sortutako oinazea eta barne-ko ekaitza baretzeko lasaigarri bakarrak.

Horrela, Zapirainen bertsoek izan ditzaketan alderdi poetiko edo litera-rioak alboan utzita, interesgarriagoa izan daiteke aztertzea Joxeren kantua emozioarekin nola lotzen zen, edo bihotz barnean zeuzkan sentimenduak nola azaltzen zituen.

Joxek bertsoen bidez azaldu nahi izan zuen bestelakoan komunikatu ezin izan zuena. Barne-barnean, isilean gordetako penak azaldu behar zituen. Bertso horiek testigantza traumatikoak dira eta zeregin bikoitza izaten dute: entzulearengana zuzentzen dira, beste batzuek entzun dezaten kantatzen dira; eta bertsolariak bere buruari kantatzen dio, oroimen traumatikoak era-giten dion zama arindu nahian.

7.5. Testigantzaren beharra

Antonio Zavalak, Salvador Zapirainen hitzak jaso zituenean, oso ongi iru-dikatu zuen testigantzaren bigarren zeregina. Zavalak honela gogoratzen zuen *Zigorpean* eta *Espetxeko negarrak* liburuen eskuizkribuak jaso zituenean:

“Ala ere, etzait bein ere aaztuko Ataño-k liburu oriek eskuan zituela, esan zidana: -Banuen gogoa nire barrua ustutzeko, lasaitasun ederra artu det.” (1996: 234)¹⁵⁸

Salvadorren narrazio horietan gerrako bizipenak eta espetxetako urteak biltzen dira. Lan autobiografikoak dira eta zahartzaroan idatziak. Salvado-

¹⁵⁶ VALCARCEL, Amelia ((2010) *La memoria y el perdón*. Barcelona, Herder.

¹⁵⁷ Ibidem.

¹⁵⁸ ZAVALA, Antonio (1996) *Auspoaren auspoa II (itzaldiak, conferencias)* Tolosa, Auspoa.

rrek idatzi beharra zuen, paperean jaso behar zuen ezagututako infernua, baina atzean utzi behar zuen denbora. Jorge Semprún idazleak ohartarazi zuen kontzentrazio-esparrutik askatu bezain pronto ezin zuela idatzi, oroimenari tarte utzi behar zion.

“Hubiera sido imposible sobrevivir a la escritura. El único final previsible de aquella aventura de querer dar testimonio hubiera sido mi propia muerte.” Zamorarengandik hartua (2000: 196)¹⁵⁹

Gerraren eta errepresioaren oroitzapenak lantzean, Salvador Zapirainen helburuetako bat injustizia eta zapalketa salatzea zen, baina ezin zituen ahaztu gerran eta osteko errepresioan hildako biktimak. Izan ere, egilearen identitatea memorian uztartzen da iraganaren aitortzarekin. Gerraosteko urteetan isilean ahazturik geratu ziren protagonistak erreskatatzeko ahaleginak egin zituen, Salvadorrek zokoratuak geratu ziren hainbat eta hainbat pasarte jendaurrera ekarri nahi zituen (Arostegi 2004: 31).¹⁶⁰ Beraz, oroitzeak egileari hausnarketa-espazio zehatza ahalbidetzeaz gain, justizia lekua sortarazten dio (Cuesta 2003: 50)¹⁶¹.

Edonola ere, Salvadorren bi narrazio autobiografikoak, bizitakoaren istorioen eta bizitakoari buruzko subjektibitatearen arteko uztarketak dira. Bi narrazioetan agertzen da iraganeko oroimenaren denbora kolektiboa, non islatzen diren iraganeko pasarteak eta bizipenak, gero orainean gauzatuko direnak, eta etorkizunean proiektatuko.

Testigantza traumatiko guztietan Grezia klasikoko denboraren hiru kontzeptuak (Cronos, Kairos eta Aion)¹⁶² nahasten dira (Valencia 2007)¹⁶³: Eta anabasa horretatik denbora berria sortzen da: “gerraren denbora” deitu daitekeena. Ondorioz, gerraren denbora, iraganeko erreferentzia eta bizipen anitzez osatua, subjektuaren eraiketa pertsonala da. Denbora berri hori, Salvadorrentzat, bihozmin, sufrimendu eta beldurrez beterik dago.

¹⁵⁹ ZAMORA, Jose, A. (2000) “Estética del horror. Negatividad y representaciones después de Auschwitz” in *Isegoria* 23 (183-196).

¹⁶⁰ AROSTEGUI, Julio (2004) “Retos de la memoria y trabajos de la historia” in *Pasado y memoria. Revista de historia contemporánea*, 3 (5-51).

¹⁶¹ CUESTA, Josefina (2003) “Los componentes del testimonio, según Paul Ricoeur” in *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, 2 (41-52).

¹⁶² **Cronos**: denbora kronologikoaren irudikapena zen, **Kairos**: eskarmentuaren denbora zen, esperientziak osatzen dena, **Aion** jaiotzatik heriotzaraino doan bizi-marra da.

¹⁶³ VALENCIA GARCIA, Guadalupe (2007) *Entre Cronos y Kairos. Las formas del tiempo histórico*. Barcelona, Anthropos.

Salbadorrek, idatziaren bidez, eta Joxek, bertsoen bidez, gogora ekarri nahi zituzten gerra zibileko garaituak, kulparik gabeko kondenatuak, agurtzeko aukerarik izan gabe joan ziren fusilatuak eta bestelako zigortuak. Euren testigantzen bidez lotu nahi zituzten biktimak eta bizirik irten zirenak. Tzevetan Todorov-ek (1999) horri buruz honako hau idatzi zuen: holokaustoan hil zirenek bizidunoi eskatzen digute gogoan izan dezagun gertatutakoa, irakabidetzat har dezagun gertatu zena eta geroan zabal dezagun. Gertaera tragikoak ez ditugu gogoratu behar berriro errepika ez daitezten, bestelakoa baita agindua: hildakoak oroimenean gordetzen baditugu, etorkizunean euren bizitzek esangura izango dute-eta. Orduan, fusilatu, sarraskitu eta hildakoen bizitzek etorkizunean arrastoak uzten badituzte, gure kontzientzia urratzen badute, haien heriotzek esangura izango dute, ez da alferrikakoa izango (Calveiro 2000)¹⁶⁴.

Dena den, oinazea edo sufrimendua, adierazia izango bada, hitzetara ekarri behar da; bizitako esperientziak, oso ankerrak badira ere, adieraziak izateko, kontatu egin behar dira. Adierazpen horretan, finean, oinazeak ahotsa aurkitu behar du, eta Theodor Adornok zioen bezala, une horietan adierazpiderik hoberena artearen hizkuntza da (Tafalla 2003)¹⁶⁵. Joxek bertsoen hizkuntza aukeratu zuen oinazea eta sufrimendua adierazteko, esperientzia bortitza testigantza bilakatuz. Bertsoek errealitate berria sortu zuten, horrelakoetan, filosofoak, hitz egin ezin duenean, poetari egin behar dio lekua, hari utzi behar dio mintzatzen (Azurmendi 2011)¹⁶⁶. Beraz, seme fusilatuen arrastoa bertsoari atxikita dago, eltzegilearen arrastoa lurrontzietan geratzen den bezala (Melich 2001)¹⁶⁷.

Holokaustoko testigantzetan gertatzen den bezala, bertsoerik kantatu ezin izan dutenak, aukerarik ere izan ez dutenak dira testigantza horien protagonista nagusiak (Melich 2001)¹⁶⁸. Fusilatuek ezin zuten hitza hartu, ezin izan zuten azaldu heriotzaren arrazoa, errugabetasuna ere ezin izan zuten aldarrikatu; nolana ere, Jose Ramonek eta Antoniok aitaren eta anaiaren ahotsa behar zuten euren oroitzapena bizirik gorde zedin.

¹⁶⁴ CALVEIRO, Pilar (2001) *Desapariciones. Memoria y desmemoria de los campos de concentración argentinos*. Mexico, Taurus.

¹⁶⁵ TAFALLA, Marta (2003) *Theodor W. Adorno. Una filosofía de la memoria*. Barcelona, Herder.

¹⁶⁶ AZURMENDI, Jose (2011) *Filosofía eta poesia*. Donostia, jakin.

¹⁶⁷ MELICH, Joan C. (2001) *La ausencia de testimonio: Ética y política en los relatos del holocausto*. Barcelona, Anthropos.

¹⁶⁸ *Ibidem*.

Horregatik, Joxeren bertsoa eta Salbadorren idatzizkoa estuki lotuak agertzen dira bizipen mingotsekin. Baserriko eta komentuko intimitatean, negar malkoen artean sortutako testigantzak oroimenaren jarioak dira, Francoren diktadurak ezarritako isiltasunaren eta ahanzturaren gainetik osatu ziren zuzentasunaren aldeko aldarrikapen sendoak.

7.6. Urrutiko lurretan Anna Ajmatova

1921ean, Bordaxarretik urrun, Sobietar Batasunean, Anna Ajmatovaren (1889-1966) senarra¹⁶⁹, fusilatu zuten; semea, berriz, atxilotu eta Siberiako lurretara bidali zuten, kontzentrazio eremu batera. Anna, traizio egiteaz akusatuta, deportatu egin zuten. Beldurrez, semea ere fusilatuko ote zuten, Ajmatovak etxeko arrasto guztiak erre zituen, poema guztiak barne.

1934tik eta 1938ra, Stalinen diktaduraren garai ankerrenetan, Nikolai Ivanovich Yezhov-ek zuzendu zituen disidentziaren aurkako purgak. Lau urte horietan, Sobietar Batasunean Stalinen *Chekak* milaka eta milaka biztanle hil zituen.

1935ean, Annaren semea, Lev Gumilioy, berriro atxilotu zuten. Bigarren atxiloketan ama ez zen isilik geratu, eta poema-bilduma bat prestatu zuen. Poema-bildumak hamar kantu zituen: sarrera, gibel-solasa, eta azkeneko eskaintza. Bilduma horri honako izenburua jarri zion: *Requiem, heroirik gabeko poema* (1994)¹⁷⁰. Izenburuak salatu nahi zuen hildakoak zirela bakean zeuden bakarrak. Bizidunek, ostera, kontzentrazio-eremu batetik bestera igaro behar zuten bizitza.

1938. urtean Nikolai Punin, Ajmatovaren bikotekidea, hil egin zen Siberiako bortxazko lan eremu batean. Urte bete beranduago, 1939ko ekainaren 22an, Lev semea Siberiako kontzentrazio eremu batean lan egitera zigortu zuten. Ajmatovak, epaia ezagutu zuen egunean, *kondena epaia* izeneko poema sortu zuen

Eta hitza harri moduan jausi zen
oraino bizia zuen nire bularraren gainean.
Ez izan kezkarik, prest bainengoen,
nola edo hala moldatuko naiz.

¹⁶⁹ Nikolai Gumilioy poeta ezaguna.

¹⁷⁰ AJMATOVA, Anna (1994) *Requiem; Poema sin hero.* Madrid, Cátedra.

Gauza asko egin behar ditut gaur:
oroimena akabatu,
arima harri bihurtu,
berriro bizitzen ikasi.

Bestela... udako murmurio beroak
festa egingo du nire leihoan.
Honelako egun argitsua eta etxea hutsik,
Antzina banuen susmoa.

Ajmatova bizi zen bitartean *Requiem* poema-bildumak ezin izan zuen argia ikusi Sobietar Batasunean. Lehenengo argitalpena Munichen izan zen, 1963an. Badirudi Ajmatovak jakin gabe eraman zutela inprimatzera. Yezhoven garaian, errepresio gordineko garaian, Ajmatovak erre egin zituen koardernoak, eta poemak memorian gorde. Gero, talde txikien aurrean, lagun, ezagun eta jarraitzaileen aurrean errezitatzen zituen. Ahozko adierazpen forma hori hartu zuen Ajmatovak, oinarritzko hitzak esan ahal izateko. Era berean, ahoz eta jendaurrean errezitatzeak ahalbidetzen zion uztartzen poesia idatzia Errusiako kulturaren ahots poetikoarekin (Garcia Gabaldon 1994: 36)¹⁷¹.

Sobietar erregimenean Ajmatova zentsuratuta eta marjinatuta egon zen. Annak oso ongi zekien bere poesiak ezin zuela argia ikusi sobietar erregimenean eta, hala ere, idazteari ekin zion temati, Salvador Zapiirainek egin zuen bezala. Idatzi eta puskatu, berriro idatzi eta berriro puskatu, poema-bilduma kasik buruz ikasi arte. Horregatik moldatu zuen Ajmatovak poema-bilduma ahozko literaturaren modura, jendarteko transmisiorako.

Hala ere, Sobietar Batasuneko garai beltzenetan ere, herritarrek Ajmatovaren poemak memorizatu, kantatu eta errezitatu egin zituzten, oso ezagunak izan ziren. Jendaurreko errezitazio librea Glasnot-en garaian baimendu zen, eta urte batzuk ondoren, 1987an, argitaratu zen *Requiem* poema-bilduma literatur aldizkari batean.

Joxe Zapiirainen bertsoen antzera, Ajmatovaren poesia oso lotua agertzen da bizi izandako esperientziarekin, Stalinen erregimenaren garaian pairatu izan zuen errepresioarekin alegia. Bordaxarreko bertsolariak eta poeta errusiarrak poesia eta bizitza uztartu zituzten, baita euren semeen tragedia eta

¹⁷¹ Ibidem.

euren herriaren patua ere. Ajmatovaren poesian seme desagertuarenganako amodioa salaketa bilakatzen da, Joxerenean bezala. Memoriaren jarioak ahanztura eta isiltasuna alboratzen ditu bi kasuetan (García Gabaldon 1994: 30)¹⁷². Historiako jazoerek edo gizarteko egitateek ezin dute ezer kontatu berez, narratzaile bat behar dute, eta narratzaileak Joxe eta Anna dira.

Requiem, heroirik gabeko poema bildumaren amaieran egileak azaltzen du bertan ageri den guztia ez zela bizipen pertsonala izan. Annak berak bizi izan zituen jazapenak eta irainak, baina Errusiako herriak sufritu zuen errepre-sioa:

Orain badakit aurpegiak nola desegiten diren
beldurra nola bizi den betazal azpitan eta
oinazeak masailetan nola marrazten dituen
orri kuneiforme zakarrak.

Orain badakit kizkur beltzak nola zilarreztatzen diren,
barrea nola zimeltzen den ezpain otzanetan eta
beldurrak nola egiten duen dar-dar barre hotzetan.

Eta orain baldin badakit ez da nire otoitzengatik,
uztaileko infernuaren hotz krudelean
harresi gorri mutuaren azpian
Nirekin batera egon zirenengatik, baizik.

Ajmatovari, etengabeko dolu-prozesuan, zaila suertatu zitzaion ulertzea zer gertatzen zen, emozioak pil-pilean zituen eta zurrunbilo batean nahasten ziren bere baitan. Annak amaren sentimenduak adierazi zituen hitz poetikoak erabilita. Emozioak munduratu baino zerbait gehiago egin zuen, esperientzia berria sortu zuen. Poemak kateatu aurretik existitzen ez zen errealityatea egituratu zuen: terrorearen aurkako salaketa adorea.

¹⁷² GARCÍA GABALDON (1994) "Introducción" in AJMATOVA, Anna (1994) *Requiem; Poema sin héroe*. Madrid, Cátedra.

8. Ahots isilduak

Orhoit gutaz¹⁷³

8.1. Jendaurrean ipinitako sufrimendua

Atarikoan aipatu dudan bezala, ikerlanean nireganatu nahi izan dut Carolyn Nordstrom eta Antonio Robben antropologok (1995)¹⁷⁴ gerraren inguruko ikerketak bildu zituztenean aditzera eman zutena: ikertzaileek arreta handiagoa jarri ohi dute gerraren alderdi teknikoa eta historikoa deskribatzen, gerrak pertsonengan uzten duen sufrimendua agertzen baino. Asko dira gerrari buruz idatzitako ikerlan interesgarriak; gutxi, ordea, egoera horrek sortutako sufrimenduaz aritzen direnak. Nordstrom eta Robbenen hausnarketa zitzakaria nire lanaren abiapuntutik bertatik hartu nahi nuen kontuan.

Ikerlanean hainbat pertsonaren testigantza, gerraren biktimez, pertsonen sufrimenduaz eta indarkeriaz aritu gara. Gaurko hedabideetan eguneroko ogia da eta euskal gizartean bolo-bolo darabiltzagun kontzeptuak dira. Gure gizartean sufrimendua gatazkaren osagai ezinbestekotzat jo izan da askotan, antzeko diskurtsoa barneratu dugu, ia era inkontzientean. Gerraren egoerari egotzi zaio bihozmina, ezinbesteko ondoriotzat izango balitz bezala. Jarrera horrek ahaztarazi edo urtarazi ditu sufrimenduaren alderdiak eta sufrimenduarekiko esperientziak.

Horregatik, ikerlanak justizia bultzatu nahi du, errepresaliatu edo hildakoei zor zaiena erreparatu nahi du. Etorkizunari aurre egin nahi dion gizar-

¹⁷³ Biriatuko elizako horman idazkun hori agertzen da, Lehenengo mundu gerran Biriatuko seme hildakoei eskainia. Izenburu bera jarri zion Unamunok atzerrian idatziko poema bati.

¹⁷⁴ NODSTROM, Carolyn; ROBBEN, Antonius C.G.M. (1995) *Fielwork under fire. Contemporary studies of violence and survival*. Berkeley: University of California Press.

teak iraganaldiko auziak bere gain hartu behar ditu, urteetan isilduak egon diren testigantzak ikertu behar ditu eta etorkizunarekin konpromiso sendoa agertu behar du. Joxe eta Salvador Zapirainen testigantza traumatikoak gizarte osoaren memoria sozialak dira, eta bat egiten dute Todorov-en esanarekin: iraganaren izuak ezagutu dituenak, egungo izugarrikerien aurka altxatuko du ahotsa. Oroimena ezabatzeko frankismoak egin zuenaren aurrean, hauxe zen garaituen alternatiba bakarra: gogoratzea eta gogoraraztea (Panizo 2009: 74)¹⁷⁵.

Zapiraindarren testigantza, beste testigantza guztiak bezala, diskurtso pertsonala da, subjektibotasunez eta emozioz betea. Bertsoetara eta kontakizunetara moldatu zituzten euren testigantzak. Memoriaren narrazioak dira, non nahastu diren kontzientea eta inkontzientea, objektibotasuna eta subjektibotasuna. Denborak moldatu ditu zapiraindarren narrazioak eta bertsoak, baina biak dira oroimenaren oinatzak, zerbait gertatu zela ohartzen gaituzte. Testigantza horiek artxiboaren eta memoriaren arteko zubiak dira: hauxe gertatu, hauxe ikusi, hauxe sentitu nuen.

8.2. Oroimenaren garaian bizi omen gara

Oroimenik gabe, pertsonak orainean biziko ginateke, ez genuke iraganik edo etorkizunik izango zeren, oroitzean, iragana orainera ekartzen baitugu. Beraz, oroimenik gabe ezin dugu gizakia ulertu, kultura eta gizartetik kanpoko gizakia ulertu ezin dugun bezala. Gizakiok geure memoria eraikitzen dugun bezala, memoriak ere gizakiak eraikitzen ditu (Candau, 2002: 5)¹⁷⁶. Memoriaren bidez iragana berrinterpretatzen dugu gizakiok. Horregatik, memoria ez da munduaren erreprodukzioa, mundua interpretatzeko tresna kognitiboa baizik (Arostegui 2004:16)¹⁷⁷.

Oroitzea sortzea da. Denbora igaro ahala, subjektuaren eboluzioaz, eraldatuz doa oroimena, denboraren geruzak moldatzen ditu oroitzapenak, batzuk bazterrean utzita eta beste batzuk ahaztuta.

Dena den, ezin dugu esan memoria ezaugarri pertsonala dela, memoria soziala baita, gizarteari dagokiona. Maurice Halbwachs soziologoak jite sozia-

¹⁷⁵ PANIZO, Marina (2009) "Muerte, desaparición y memoria: el caso de los desaparecidos en la última dictadura militar argentina" in *Historia, antropología y fuentes Orales*, 42 (71-84).

¹⁷⁶ CANDAU, Joel (2002) *Antropología de la memoria*. Buenos Aires, Nueva Visión.

¹⁷⁷ AROSTEGUI, Julio (2004) "Retos de la memoria y trabajos de la historia" in *Pasado y memoria. Revista de historia contemporánea*. 3 (5-51).

la eman zion memoriari. Egile horrek (2004)¹⁷⁸ honako hau aldeztu zuen: norbanakoaren oroimena gizarte koadro edo markoen barnean mugitzen da beti. Azken finean, norbanakoaren oroimenak eta oroimen kolektiboak txanpon bereko bi aurpegiak osatzen dituzte, zeren norbanakoaren oroitzapenak gizarte markoaren barnean sortuko baita. Esaterako, oroitzapena hizkuntza baten bidez irudikatuko da nahitaez, arau eta koordenada zehatzen barnean egituratuta (Colmenero 2000: 222)¹⁷⁹.

Halbwachsen ekarpena interesgarria izan da oroimenaren azterketetan. Batetik, oroimena gertakizun sozial eta kolektibotzat hartzen duelako; eta bestetik, oroimena gizartearen beharretara egokitu zuelako. Beraz, oroimenaren eraikuntza gizarteak duen beharreatatik egiten da.

XX. mendearen amaieran lan ugari egin zen gizarte zientzietan memoriaren inguruan. Horren ondorioz, komunitate zientifikoaren azterketetan ezinbesteko lan-tresna bilakatu zen memoria. Horrekin batera, norbanakoaren alderdi pertsonalak, subjektiboak eta biografikoak munduratu egin ziren eta gizarte zientzietan esangura hartu zuten (Ricoeur, 2001)¹⁸⁰.

Europar, Hegoamerikan zein Asian eztabaida eta ikerketa ugari sortu dira memoriaren inguruan. Judu-herria, Armenia, Indotxina, Aljeria, Espainia, Rwanda, Argentina, Txile, Jugoslavia... testigantzak agertu dira apurka-apurka, eta memoriaren politikak hedatu dira munduan zehar.

Espainiar estatuan, diktaduraren errepresioaren ikerketak izan zuen bultzada izugarria ahozko iturrien azterketaren bitartez. Diktadorea hilda, ikeretzen hasi ziren garaituen bizipen, iritzi eta diskurtsoak. Berrogei urte luzetan isilik egon zirenen testigantzak berreskuratu ziren. Diktadurak nahastu zituen historia eta memoria, legitimazioa lortzearren. Franco hilda, antzina-ko zauri zaharrak ez zirela astindu behar zioten agintariak, baita etorkizuneko bizitzeko iragana ahaztu behar zela ere. Francozaleek egin zituzten sarraskiak zigorrik gabe geratu ziren, demokrazia ahanzturaren zimenduetan erai-ki baitzen.

Azken finean, Espainiako trantsizioan gerra zibileko bi aldeek erantzukizuna parekatu zen eta gatazkako bi bandoren artean banatu zen errua. Era

¹⁷⁸ HALBWACHS, Maurice (2004) *Los marcos sociales de la memoria*. Barcelona, Anthropos.

¹⁷⁹ COLMENERO, Juan Francisco (2000) "La crisis de la memoria" in *Anthropos* 189/190 (221-227).

¹⁸⁰ RICOEUR, Paul (2000) "Definición de memoria desde el punto de vista filosófico" in BARRET-DUCROCQ, Françoise (2000) *¿Por qué recordar?* Barcelona, Granica.

berean, trantsizio prozesuan Espainia, nazioa, ama balitz bezala irudikatu zuten, eta gerra bi anaiaren arteko borroka gaitzesgarria bezala (Narotzky 2004)¹⁸¹. Dena den, XXI. mendearen hasieran berriro azaleratu zen gerra zibilaren oroimena, trantsizioan ez bezala. Hedabideetan zein eremu akademikoetan ezarritako amnesiaren gaineko kritikak areagotu egin ziren (Ferrandiz 2007)¹⁸², eta antzeko jitea hartu zen nazioarte mailan (Ruiz Torres 2007)¹⁸³.

Hala ere, oroimena berreskuratzeko gogoetak ez daude inoiz soberan. Gogoratzea ariketa osasuntsua da, eta aurre-aurrean jarri behar dugu. Bestela, nola eraikiko dugu etorkizuna, iragana eraiki ez badugu? (Baer 2020)¹⁸⁴. Nola mintzatuko gara etorkizunaz, iragana adostu ez badugu?

8.3. Bertso eta testigantza performatiboak

Joxe Zapirainek orainaldi traumatikoan jarri zuen bere burua. Bertsolariak, gorputzean eta ariman pairatzen zuen oinazeari aurre egiteko, bertsoa sortu zuen erregistratu gabeko iraganetik. Beharbada, Joxeren testigantza desordenatua zen, nahastua, anakronikoa, amnesia-espazioez betea. Zapirainek, Ajmatovak bezala, datu batzuk ahaztu zituen eta beste irudi batzuk, berriz, gogoratu; oroimen arruntak eskatzen dituen ebokazio-prozesuaren kronologiatik at. Bi testigantzaren mintzairak ez zuen erregistratzen gertatu zena. Gertatu zenari buruzko narrazioa eraiki zuten, denboraren igarotzeak dena ezabatzen duela dioen baieztapena gezurtatuz.

Zapirainen eta Ajmatovaren testigantza horietan semeekiko konpromisoaren eta justiziaren seinaleak daude. Bi testigantza horietan hizkuntza ez da datuen eta gertaeren deskribapen sinplea; gaitasun performatiboa ezkutatzen dute. Esakune horien helburua ez zen objektuen deskribapena, baizik eta subjektuen arteko komunikazioa eta besteekiko konpromisoa.

¹⁸¹ NAROTZKY, Susana (2004) "Una historia necesaria: ética, política y responsabilidad en la práctica antropológica", *Relaciones. Estudios de historia y sociedad*, 98 (107-146).

¹⁸² FERRANDIZ, Francisco (2007) "Exhumaciones y políticas de la memoria en la España contemporánea" in *Hispania Nova* 7 . Begiratu hemen: <http://hispanianova.rediris.es/7/dossier/07d003.pdf>

¹⁸³ RUIZ TORRES, Pedro (2007) "Los discursos de la memoria histórica en España" in *Hispania Nova, Revista de Historia Contemporánea*, Begiratu daiteke hemen: <http://hispanianova.rediris.es/7/dossier/07d001.pdf>

¹⁸⁴ BAER, Alejandro (2010) "Memoria social. Guía para perplejos" in SUCASAS, Alberto eta ZAMORA, J.A. *Memoria-Política-Justicia: en diálogo con Reyes Mate*. Madrid, Trotta.

Berrogeita hamarreko hamarkadan, John Langshaw Austin-ek (1982)¹⁸⁵ gaitasun performatiboaren kontzeptua zabaldu zuen hizkuntzaren filosofian. Geroago, Jhon Searle-k (1979)¹⁸⁶ osatu zuen kontzeptua. Performatibotasunak izendatzen du hizkuntzak hitzen bitartez hainbat gauza ekoizteko eta sortzeko duen gaitasuna. Austin eta Searleren hizketa-ekintzen teorian, “esaldi performatiboak” ditugu, esaldi horiek ez dute zerbaite esaten edo baieztatzen. Euren bidez zerbaite egiten dugu. Hizketa-ekintzetan kasu garbiak ditugu eguneroko mintzairan: “hitzeman”, “promes egin”, “zin egin”, “erregutu”, “agindu”, “debekatu”, “poztu”, “estimatu”, “eskertu”, bestak beste.

Joxeren, Salbadorren, Annaren eta beste askoren literaturan biktimen markak finkatu ziren, honelako mezuarekin: “gu hemen egon ginen”, “egun batean bizirik egon ginen infernuan”. Ondorioz, testigantza performatibo horietan ez da egia bilatu behar, baizik eta arreta jarri, entzun eta egia diferentek behatu.

Zuzenbide prozesualean gertatzen den bezala, gizarte zientzietan zein gizarte zibilean egiaren teoria bat eraiki beharko genuke testigantzen eta lekukoaren hitzaren inguruan (Reyes Mate 2008: 119)¹⁸⁷

8.4. Oroimenaren kultura

Gizarte zientzietan egindako memoria-azterketari gehitu behar zaizkio beste bi memoria-azterketa: oroimen ofizialarena eta oroimen pertsonalarena. Hiru memoria-esparruren uztarketa horrek osatzen du oroimenaren kultura kontzeptua.

Kontzeptu hori definitzeko, esan daiteke gizarteak bere iragana ulertzeko duen jarrera dela. Gehienetan, gizarteak iraganetik aukera egiten du, gertaera batzuk nabarmenduz eta beste batzuk gordez edo baztertuz. Taldeak esanguratsuak eta eragingarriak diren oroitzapenak aukeratu, gorde eta elikatzen ditu. Azken finean, memoria gizartekoa da, eta taldekoa bihurtzen da banakoei partekatzen dutenean, denen artean ematen diote gorputza narrazio, sinbolo eta erritualen bidez.

¹⁸⁵ AUSTIN, Jhon Langshaw (1982) *Cómo hacer cosas con palabras: palabras y acciones*. Barcelona, Paidós.

¹⁸⁶ SEARLE, Jhon (1979) *Expression and meaning. Studies in the theory of speech acts*. Cambridge, Cambridge University press.

¹⁸⁷ REYES MATE, Manuel (2008) *La herencia del olvido*. Madrid, Errata naturae.

Dena den, aukeraketa horretan gatazka, korapilo eta tentsioen modulazioak sortzen dira (Ruiz Ballesteros 2005)¹⁸⁸. Horregatik, norabide anitzeko memoria-eredua bultzatu behar da (Rothberg 2009).¹⁸⁹ Demokratikoa izan nahi duen gizartea ezin da ahanzturan oinarritu, baizik eta norabide anitzeko memorian. Eredu hori etengabeko negoziazioan diharduen eredua da, non talde baten memoriak ez ditu ezabatzen beste taldekoena. Iraganaren inguruko negoziazioan honelakoak adostu behar dira.

Lan erraza ez bada ere, gure gizarteak memoria demokratiko eta norabide anitzekoaren alde egin behar du eta, denon iragana eraiki behar denez, oroimenaren politika zabala bultzatu.

¹⁸⁸ RUIZ BALLESTEROS, Esteban (2005) "Memoria y conocimiento social" in VALCUENCE DEL RIO, José M^a eta NOROTZKY, Susana (2005) *Las políticas de la memoria en los sistemas democráticos: Poder, cultura y mercado*. Sevilla, Fundación del Monte.

¹⁸⁹ ROTHBERG, Michael (2009) *Multidirectional Memory: Remembering the Holocaust in the age of decolonization*. Stanford, University Press.

9. Bibliografia

- ADORNO, T. W. (2009). *Crítica de la cultura y sociedad I*. Madrid: Akal.
- AIESTARAN, I. (2010). *Walter Benjamin aingerua Gernikako bonbardaketatik. Esne beltza eta nazismoaren adiskideak*. Donostia: Elkar.
- AIZPURUA, M., & besteak. (2007). *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusi-latzeak*. Irun: Alberdania.
- AJMATOVA, A. (1994). *Requiem. poema sin héroe*. Madrid: Cátedra.
- ALFORJA, F., & SIERRA, I. (2005). *Fuerte de San Cristóbal, 1938. La gran fuga de las cárceles franquistas*. Iruñea: Pamiela.
- ALTZIBAR, X. (1977) “Etxagerrateak sorturiko Eguna, lehen Euskal egunkaria” in *Oihenart* 14 (47-56)
- AMURIZA, Xabier (1981) *Hitzaren kirol nazionala*. Gizaburuaga: Hika mika.
- ANTXUSTEGI, E. (2001). “Bertsogintza eta historia: Gerra karlisten adibidea”. *Bitarte*, 24, 79-89.
- APALATEGUI, F. (2005). In ZAVALA A. (Ed.), *Karlisten eta liberalen gerra-kontraerak*. Donostia: Auspoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
- AROSTEGUI, J. (2004). “Retos de la memoria y trabajos de la historia”. *Pasado y Memoria. Revista De Historia Contemporanea*, 3, 5-51.
- AULESTIA, G. (1990). *Bertsolarismo*. Bilbo: Diputacion Foral de Bizkaia.
- ALVAREZ FERNANDEZ, J. I. (2007). *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*. Barcelona: Anthropos.
- AUSTIN, J. L. (1982). *Cómo hacer cosas con palabras: Palabras y acciones*. Barcelona: Paidós.
- AZURMENDI, J. (2011). “Filosofía eta poesia: Platon eta Homero, Heidegger eta Hölderlin”. In J. AZURMENDI (Ed.), *Filosofía eta poesia* (pp. 101-148). Donostia: Jakin.
- BAER, A. (2010). “Memoria social. Guía para perplejos” in SUCASAS, A. eta ZAMORA, J.A. (2010) *Memoria-Política-Justicia: en diálogo con Reyes Mate*. Madrid: Trotta.

- BARANDIARAN AMARIKA, A. (2000). “La fórmula del bertsolarismo en los Enbeita”. *Fontes Linguae Vasconum: Studia Et Documenta*, 84, 239-264.
- BARANDIARAN IRIZAR, F. (1982). *La comunidad de pescadores de pasajes san juan. Ayer y hoy. Estudio antropológico*. Oiartzun: Egilearen edizioa.
- BARANDIARAN, J. M. (2005). *La guerra civil en Euzkadi. 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel Barandiaran*. Milafranga: Bidasoa edition.
- BARRUSO, P. (1993). “La guerra civil en Renteria (julio-septiembre de 1936)”. *Bilduma*, 7, 47-73.
- (2005). *Violencia política y represión en Gipuzkoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-45)*. Donostia: Hiria.
- BATENSON, G. (2004). *Pasos hacia una ecología de la mente. Colección de ensayos en antropología, psiquiatría, evolución y epistemología*. Buenos Aires: Lumen.
- BERTSO (1994). *Bertso berriak gerra ostean jarriak*. Andoain: Bertsolari liburuak.
- BERTSOLARI (1994). “Xanti Zapirain, gordelekuan bertso-jartzaille egin zen gizona”. *Bertsolari Aldizkaria*, 41, 66-76.
- BERVELEY, J.; ACHUGAR, H. (2002). *La voz del otro: Testimonio, subalternidad y verdad narrativa*. Guatemala: Papiro.
- CALVEIRO, P. (2001). *Desapariciones. memoria y desmemoria de los campos de concentración argentinos*. Mexico: Taurus.
- CANDAU, J. (2002). *Antropología de la memoria*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- CARRATALA, E. (2007). *Memorias de un piojo republicano*. Iruñea: Pamiela.
- CATE-ARRIES, F. (2012). *Culturas del exilio español entre alambradas*. Barcelona: Anthropos.
- CHIAPUSO, M. (1977). *Los anarquistas y la guerra en Euskadi. La comuna de San Sebastián*. Donostia: Txertoa.
- CHUECA, J., & FERNANDEZ, L. *Espainiako gerra zibila Euskal Herrian*. Donostia: Euskaldunen egunkaria.
- COLMENERO, J. F. (2000). “La crisis de la memoria”. *Anthropos*, (189-190), 221-227.
- CONNERTON, P. (1989). *How societies remember*. London: Cambridge University Press.
- CUESTA, J. (2003). “Los componentes del testimonio, según Paul Ricoeur”. *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, 2, 41-52.
- DEL VALLE, T. (1999). “Procesos de la memoria: Cronotopos genéricos”. *Areas: Revista De Ciencias Sociales*, 19, 211-225.
- (2000). *Perspectivas feministas desde la antropología social*. Barcelona: Ariel.
- EGAÑA, I. (2009). *Los crímenes de Franco en Euskal Herria (1936-1940)*. Tafalla: Txalaparta.

- ELOSEGI, J. (2004). *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen bertsolaria*. Elgoibar: Paper hotzak.
- EVANS-PRITCHARD, E. (1987). *Los nuer*. Madrid: Anagrama.
- FERRANDIZ, F. (2005). “La memoria de los vencidos en la guerra civil”. In VALCUENCE DEL RIO, J. M^a, & NAROTZKY, S. (Eds.). *Las políticas de memoria en los sistemas democráticos: Poder, cultura y mercado*. Sevilla: Fundación del Monte.
- FERRANDIZ, F. (2007). “Exhumaciones y políticas de la memoria en la España Contemporánea” in *Hispania Nova* 7, 621-640.
- FOUCAULT, M. (2005). *Un diálogo sobre el poder y otras conversaciones*. Madrid: Alianza Editorial.
- FRIGOLE, J. (1995). *Un etnólogo en el teatro. Ensayo antropológico sobre Federico García Lorca*. Barcelona: Muchnick.
- GARCIA GABALDON, J. (1994). “Introducción” in AJMATOVA, A. (1994). *Requiem. Poema sin héroe*. Madrid: Cátedra.
- GARIKANO, A. (2009). *Far west-eko euskal herria*. Iruñea: Pamiela.
- GARZIA, J. (2008). “Baina bihotzak dio...” “*Bertsolari Aldizkaria*, (70), 24-59.
- (2004). “Amesten dudan ikergunea” in EGAÑA, A. eta besteak. *Inprobisazio munduan*. Andoain: Bertsozale elkarte.
- GARZIA, J., SARASUA, J., & EGAÑA, A. (2002). *Bat bateko bertsolaritza; gakoak eta azterbideak*. Donostia: Bertsozale elkarte.
- GOFFMAN, E. (2006). *Frame-analysis: Los marcos de la experiencia*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- GOIOGANA, I. (2010). “36.ko gerrari buruzko saio bibliografiko minimo bat” In M. ERRAZKIN, & J. AGIRRE MAULEON (Eds.). *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*. Eibar: Udako Euskal Unibertsitatea.
- GONZALEZ GARCIA, M. (2010). *Filosofía y dolor*. Madrid: Tecnus.
- HALBWACHS, M. (2004). *Los marcos sociales de la memoria*. Barcelona: Anthropos.
- HERNANDEZ, J. M. (2011). “Palabras que emocionan”. FAEE Estatu Espainoleko Antropologia Elkarteen XII Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, argitaratu gabea. Egileak emana.
- ITURRALDE, J. (1978). *La guerra de Franco, los vascos y la iglesia II. Cómo pudo seguir y triunfar la guerra*. Donostia: Egilearen edizioa.
- JELLIN, E. (1999). *Las conmemoraciones: Las disputas en las fechas in-felices*. Madrid: Siglo XXI.
- KINTANA GOIRENA, J. (1999). “Lehen gerra karlista bertsoen argitan. foruak eta erlijioa hitz neurtutan (1823-1840)”. *Uztaro*, (30), 61-84.

- LARRAÑAGA ODRIOZOLA, C. (1997). "Del bertsolarismo silenciado". *Jentilbaratz*, 6, 57-73.
- LE BRETON, D. (1999). *Antropología del dolor*. Barcelona: Seix Barral.
- LEIZAOLA, J. M. (1965). *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*. Buenos Aires: Ekin.
- LEKUONA, M. (1929). Prologo. In J. K. ZAPIRAIN, & M. LEKUONA (Eds.): *Geno-beba de brabante por el "bertsolari" Juan Kruz de ZapiRAIN*. Gasteiz: Trabajos del Laboratorio de Eusko Folklore.
- LEKUONA, M. (1978) *Idazlan-guztiak. 1 Ahozko literatura*. Tolosa, Librería Técnica de Difusión.
- LEKUONA, J. M. (1995). "Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literatura-ren ikerketan". *Euskara*, 40, 109-122.
- LERTXUNDI, A. (1997). "Hitz bi". In J. CHUECA, & L. FERNANDEZ (Eds.), *Espainiako gerra zibila euskal herrian*. Donostia: Euskaldunen Egunkaria.
- MELICH, J. C. (2001). *La ausencia de testimonio: Ética y política en los relatos del Holocausto*. Barcelona: Anthropos.
- MORENO FELIU, P. (2010). *En el corazón de la zona gris*. Madrid: Trotta.
- NORDSTROM, C., & ROBBEN, A. C. G. M. (1995). *Fielwork under fire. contemporary studies of violence and survival*. Berkeley: University of California Press.
- OH, EUZKADI. (1981). "Ataño, Xalbador ZapiRaiNi elkarrizketa". *Oh Euzkadi!*, 13, 25-28.
- OTT, S. (1993). "Indarra: Algunas reflexiones sobre un concepto vasco". In PITT-RIVERS, J & PERISTIAN, J. (Eds.). *Honor y gracia* (pp. 252-279). Madrid: Alianza Editorial.
- PANIZO, M. (2009). "Muerte, desaparición y memoria: El caso de los desaparecidos en la última dictadura argentina". *Historia, Antropología y Fuentes Orales*, (42), 71-84.
- PORTUGAL ARTEAGA, X. (2007). *Pasaia 1931-1939. La memoria de los vencidos*. Pasaia: Pasaiaiko udala.
- PRAT, J. (2008). "Antropología de la memoria en la obra de Teresa del Valle". *Ankulegi*, 12, 151-165.
- REYES MATE, M. (2008). *La herencia del olvido*. Madrid: Errata naturae.
- RICOEUR, P. (1987). *Tiempo y narración. configuración del tiempo en el relato histórico*. Mexico: Siglo XXI.
- (2000). "Definición de la memoria desde el punto de vista filosófico". In F. BARRET-DUCROCQ (Ed.). *¿Por qué recordar?* Barcelona: Granica.
- (2003). *La memoria, la historia, el olvido*. Madrid: Trotta.

- ROBBEN, A. C. G. M. (2006). "El asalto a la confianza básica: Desaparición, protesta y reentierros en Argentina". *Cuadernos de Antropología Social*, 24, 11-49.
- ROQUERO USSIA, M. R. (2005). "Altza 1910-1940". In *Altza. Hautsa Kenduz*, 8, 117-134.
- ROTHBERG, M. (2009) *Multidirectional Memory: Remembering the Holocaust in the age of decolonization*. Stanford: University Press.
- RUIZ BALLESTEROS, E. (2005). "Memoria y conocimiento social. In VALCUENCE DEL RIO, J. M^a, & NAROTZKY, S. (Eds.). *Las políticas de la memoria en los sistemas democráticos: Poder, cultura y mercado*. Sevilla: Fundación del Monte.
- RUIZ TORRES, P. (2007). "Los discursos de la memoria histórica en España" *Hispania Nova, Revista De Historia Contemporánea*, 7, 305-334.
- SEARLE, J. (1979). *Expression and meaning. studies in the theory of speech acts*. Cambridge: Cambridge University Press.
- SEMPRUN, J. (1997). *La escritura y la vida*. Barcelona: Tusquets.
- STERN, J. S. (1999). "De la memoria suelta a la memoria emblemática". In E. JELLIN (Ed.), *Las conmemoraciones: Las disputas en las fechas infelices*. Madrid: Siglo XXI.
- TAFALLA, M. (2003). *Theodor W. Adorno. una filosofía de la memoria*. Barcelona: Herder.
- TAPIA, J. (2006). *Agur, intxorta maite*. Elgoibar: Gaztelupeko hotsak.
- TEJERINA, B. (1999). "El poder de los símbolos, identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el país vasco". *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, (88), 75-105.
- TERRADAS, I. (1992). *Eliza Kendall: Reflexiones sobre una antibiografía*. Barcelona: Universidad Autónoma de Barcelona.
- TODOROV, T. (2002). *Deberes y delicias. Una vida entre fronteras. Entrevistas con Catherine Portevin*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- (1999). "Después del horror, la memoria y el olvido". *El Correo de La UNESCO*, 52, 18-19.
- (2000). *Los abusos de la memoria*. Barcelona: Paidós.
- URIA, I. (1983). "Pasatako denak gogoan". *Argia*, (981), 29-31.
- URKIZU, P. (1997). "Bertsogileak eta II mundu gerratea". *Ohienart*, (14), 199-202.
- VALCARCEL, A. (2010). *La memoria y el perdón*. Barcelona: Herder.
- VALENCIA GARCÍA, G. (2007). *Entre Cronos y kairos. las formas del tiempo histórico*. Barcelona: Anthropos.
- WEBER, M. (1967). *El político y el científico*. Madrid: Alianza editorial.

- ZAMORA, J. A. (2000). “Estética del horror. negatividad y representaciones después de Auschwitz”. *Isegoría*, (23), 183-196.
- ZAPIRAIN, J. (1950). *Nere bizitzako bertso batzuek*. Errenteria: Makazaga moldiztegia.
- ZAPIRAIN, M. (2001). “Altza lenago zer zan”. In *Altza. Hautsa Kenduz*, 6, 51-57.
- ZAPIRAIN, S. (1966). “Agur seme”. *Zeruko Argia*, 1571, 19.
- (1979). *Txantxangorri kantaria*. Tolosa: Auspoa.
- (1984). *Espetxeko negarrak*. Tolosa: Auspoa.
- (1984). *Zigorpean*. Tolosa: Auspoa.
- ZAPIRAIN, X. (2005). *Bizi behar dugu*. Tafalla: Txalaparta.
- ZAVALA, A. (1962). *Txirrita (bizitza eta bat-bateko bertsoak)*. Tolosa: Auspoa.
- (1968). *Alza'ko bertsolari zaarrak*. Tolosa: Auspoa.
- (1968). *Iru anai bertsolari: Juan Jose, Nikolas eta Anjel*. Tolosa: Auspoa.
- (1975). *Zapirain anaiak. Juan kruz (1867-1934). Jose (1873-1957)*. Tolosa: Auspoa.
- (1982). *Lexoti bertsolaria*. Tolosa: Auspoa.
- (1983). *Kuba'ko gerra*. Tolosa: Auspoa.
- (1993). *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*. Tolosa: Auspoa.
- (1996). *Auspoaren auspoa II (itzaldiak, konferencias)*. Tolosa: Auspoa.
- ZUBIMENDI, J. (2002). *Bertso minez*. Irun: Alberdania.
- ZULAIKA, J. (2003). *Bertsolaritzaz bi saio*. Andoain: Bertsolari liburuak.

IRUDIAK

Azalekoa: Joxe Zapirain semeekin. (Xanti Zapirainek utzia)

- 1.- Bordaxar baserria (Xanti Zapirainek utzia)
- 2.- Joxe Zapirainen bertso-liburuaren azala. <http://www.kulturklik.euskadi.net/handle/10771/10322> webgunetik hartua.
- 3.- Salvador Zapirain, *Euskal Kultura Gaur* liburutik, argazkia Aitor Bayorena. Jakin.
- 4.- San Markoko gotorlekua. <http://www.guregipuzkoa.net> webgunetik hartua. Ondarearen Zuzendaritza Orokorraren Argazki bilduma.
- 5.- Ondarretako hondartza eta espetxea. <http://www.guregipuzkoa.net> webgunetik hartua. Foto Car argazki Bilduma. Kutxa Fototeka.
- 6.- Presoak irteten Ondarretako espetxetik. <http://www.guregipuzkoa.net> webgunetik hartua. Foto Car Argazki Bilduma. Vicente Martin. Kutxa Fototeka.

- 7.-San Kristobal espetxea. <http://todoslosrostros.blogspot.com.es/> webgunetik hartua.
- 8.- San Kristobaleko espetxeko hormetan jarritako idazkuna: <http://bymundoenfermo.blogspot.com.es/> webgunetik hartuta.
- 9.- San Kristobal espetxeko presoak <http://todoslosrostros.blogspot.com.es/> webgunetik hartua.
- 10.- Joxe Zapirain bost semerekin (Xanti Zapirainek utzia).

AITA SANTI ONAINDIA BEKA

1. Jon Kortazar: *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*. 1995
2. Roberto Mielgo Merino: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*. 1995
3. Iñigo Aranbarri - Koldo Izagirre: *Gerraurreko literatur kritika (1930-1936)*. 1996
4. Aitzpea Azkorbebeitia Aldaiturriaga: *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*. 1999
5. Mari Jose Olaziregi: *Euskal eleberraren historia*. 2002
6. Oscar Alvarez Gila - Alberto Irigoyen Artetxe: *Isla Malako haritza. Ignazio Argiñarena Otsotorena bertsolariaren bizitza eta lanak (1909-1997)*. 2007
7. Idurre Alonso Amezua: *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai. Idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboen argitara*. 2008
8. Miren Ibarluzea Santisteban: *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa*. 2011
9. Pio Perez Aldasoro: *Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu arimaren sufrimenduak bertsoen bidez*. 2013